



2013-03-11
ASTELEHENA
401. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Berdintasuaren alde korrika egin dute

Takarraran eta Lilatoia izan dira asteburuan | 25



Korrikalariak Lilatoian. | N.S.

Sorturen Bergarako Kontseilua aurkeztu dute, 15 kideekin | 4



Inoiz baino kooperatiba gehiago sortu ziren iaz | 6



Antzuola igoerarako hautagai nagusia da Getariakori irabazita | 22



Sentsibilizazioa pizten

Zapatuan Natura Eguna ospatu zuten Bergaran. Txikienak inguruan duten natura aberastasunaz jabetzeko ekimen polita izan zen; baita natura zaindu behar dela ohartarazteko ere | 13

Iñigo Arregi Udaleko lorezaina landatu behar zituzten zuhaitzen gaineko azalpenak ematen neska-mutikoei. | IMANOL SORIANO

Osasun Sailak zenbait aldaketa egin ditu aurtengo Txerto Egutegian

EAEko umeek, 16 urtera arte, Osa-kidetzaren eskutik dozena bat txerto hartzeko aukera dute; horiek daude aurreikusita 2013ko Txerto Egutegian. Bada, egutegian aldaketa nagusi bat sartu du Osasun Sailak: tuberkulosiaren aurkako txertoa egutegitik kendu egin dute eta aldaketa gehiago ere badira. | 2

Antzuola eta Bergara arteko errepidea itxi egingo dute

Gauz itxiko dute bihurtik aurrera, lanak egiteko | 4

Ikasteko aukera bermatu guran, musu-truk ari dira Bergarako Unedeko irakasleak

| 5

Instituzioek "biktimak ez ahazteko" mezua igorri zuen Arriolak

Isaias Carrasco erail zutela bost urte bete dira eta PSE-EEK omenaldia egin dio Arrasaten | 4



Sandra aitaren omenaldian. | I.G.

11 gaitzetarako txertoak har ditzakete umeeek Osakidetzatik

- ▶ Lehenengo txertoak 2 hilabeterekin hartzen dira
- ▶ Tuberkulosiaren aurkako txertoa kendu egin dute

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Euskadiko umeeek, 16 urtera arte, Osakidetzaren eskutik dozena bat txerto hartzeko aukera dute, 10 txertalditan; horiek daude 2013ko Txerto Egutegian aurreikusita. Lehenengo txertoak 2 hilabete dituztenean har ditzakete, eta azkena, 16 dutenean; DBHko 1. mailatik aurrera, eskolan hartzen dituzte txertoak, Osakidetzak bideratuta. Horrez gain, gurasoek erabaki dezakete beste hainbat txerto ematea umeari.

Aurtengo egutegian, aldaketa nagusi bat sartu du Osasun Sailak: tuberkulosiaren aurkako txertoa egutegitik kendu dute, eta bakarrik arriskuan egon daitezkeen populazioari emango diote. Bestetik, B hepatitisaren aurkako txertoa, aurrerantzean, jaioberritan, 2 hilabete dutenean emango zaie umeari; orain arte, 12-13 urterekin jasotzen zuten umeeek. Aspalditik dago txerto hori Osakidetzaren egutegian: 1993a ezker, hain zuzen ere. Orain arte eskolek ematen zuten, eta aurten hasita, Osakidetzak emango du.

Beste aldaketa bat ere proposatu zuen Euskadiko Txertoen Batzordeak: neumokokoaren aurkako txertoa aurten sartzea egutegian. Iaz batzordeak Osakide-

tzako buruekin egin zituen batzarretan, hala adostu zen, baina gobernu berriak atzeratzea erabaki du azkenean txerto horren sarrera: asmoa da 2014an sartzea egutegian.

Euskadiko txertoen batzordeko kidea da Arrate Bengoa pediatra. Bergarako Osasun Zentroan egiten du lan. Honakoa diosku: "Osakidetzaren egutegian, 11 gaixotasunerako txertoak daude; horiez gain, merkaturatzen beste asko daude. Munduko Osasun Erakundeak beste batzuk ere aholkatzen ditu, baina herrialde bakoitzak ikusi behar du zein jarri eta zein ez. Erabaki horiek bere epidemiologiaren eta egoera ekonomikoaren arabera hartzen dira, gehienbat".

Horrez gain, Bengoak hauxe argitzen du: "Osakidetzaren egutegiko txerto guztiak ere norberaren aukerakoak dira, hau da, denok dugun eskubide bat izan arren, aukera dago ez jartzeko".

Albo-ondorio gutxi

Gurasoen zalantzei erantzuten saiatzen da Arrate Bengoa. "Guraso oso desberdinak dauzkagu, eta kezkak ere desberdinak dira. Orokorrean, badakite txerto batzuk haurren txerto egutegian daudela

eta abantailak daudela umeari jartzen badizkio. Zalantza arruntak hauek dira: umeeak ez tularrekin edo beste sintomaren batekin daudenean txertatu daitezkeen, eta noiz eta zentzuk diren albo-ondorioak". Lehenengo galderari erantzunez, umea osasuntsu egon behar dela esaten digu: "Umearen



Neskato bat, txertoa hartzen. | ARRITXU BARRUSO

historiala oso inportantea da: ea alergikoa den, ze gaixotasun kroniko dituen... Txertoa hartzerakoan, umea ez da gaixorik egon behar; horrek ez du esan nahi katarroarekin egotea, baizik eta sintoma serioagoekin".

Albo-ondorio "oso gutxi" egoten dira normalean, Arrate Ben-

goak dioenez: "Ondorio lokalak izaten dira, hau da, injekzioa hartu den puntua handituta edo minduta izatea; eta kalentura ere bai". Kalentura honengatik agertzen da: "Gorputza konturatzen da zeozer arrotza sartu diotela, eta immunitatea martxan jartzen denean, erantzun batzuk daude; kalentura horien artean dago".

Ahalik eta gehienek hartu

Txertoen gaineko zalantza gehiago izaten dira. Hala, Bengoak dioenez, "txertoaren eraginkortasuna ez da %100ekoa, eta, zenbait txerto eraginkorrak izateko, dosi bat baino gehiago jarri behar da". Eta beste kontzeptu garrantzitsu bat azaltzen digu: estaldura. "Txerto baten eraginkortasuna ez da indibiduala, hau da, zenbat eta biztanle gehiago egon txertatuta, orduan eta eraginkorragoa izango da. Honek prebenintzen du ez soilik gaixotasun bat izateko aukerak asko murriztea, baizik eta gaixotasun hori biztanlerian zabaltzeko aukerak murriztea". Kontzeptu hori adibide batekin azaltzen du: "Elgorriaren txertoaren bi dosiak hartu behar dituzte biztanleen %90ek baino gehiagok, txertoa eraginkorra izan dadin. Txertoa hartu ez dutenek elgorria badute,

ESANAK



"Txertoaren arriskua baino gehiago, gaixotasunaren arriskua ikusi behar da"

ARRATE BENGOA
PEDIATRA



"Umearen egoera eta historiala begiratu behar dira, eta txerto bakoitza behar duen erabaki"

DORLETA MARTINEZ
MEDIKUA

ARRASATEKO BASERRIKO
PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2013
martxoak 16

Apirilak 20
Maiatzak 18
Ekainak 15
Uztailak 20
Irailak 21
Urriak 19
Azaroak 16

Antolatzailea:



Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, herbilatasuna eta kalitate eskaintzen dizkizute.





Horra ailegatu barik, txertoen inguruan kezka edo zalantza handiak dituzten guraso asko daude. Bengoaren esanetan, "txertaketan aurka dauden arrazoi nagusienetarikoa bat hau da: azkeneko 25 urteetan, gaixotasun asko gure inguruan ia desagertu egin direla. Egia da, baina hain zuzen ere txertoak egoki eman direlako gertatu da hau. Horregatik, umeak txertatzeari uzten badiogu, ia desagertuta dauden gaixotasunak berriz agertzeko arriskua dago. Horrekin zera esan nahi dut: pertsona horiek ez dutela gaixotasunaren arriskua ikusten, baizik eta txertoarena".

Medikuen artean ere badaude ahots kritikoak. Horieta bat Dorleta Martinez arrasatearra da. Bere esanetan, txertoen atzean dagoen ideia "ona" da, batez ere lehenengo txertoen garaian. Ez dago ados txertoak direla gaixotasunak desagertzeko arrazoiak: "1950 aldera difteria, tetanoa, polioa eta beste batzuen aurkako txertaketa hasi zen. Osasunerako Mundu Erakundeak onartu du bizi-baldintzak hobetu zirelako desagertu zirela, batik bat, gaixotasun haiek".

Martinezek ez ditu txerto guztiak baztertzen, baina umei modu indiskriminatuan ematearen aurka dago: "Saldu digute gaixotasunak prebenitzen dituztela, eta hori ez dago argi; eta albo-ondorio larriak ez dizkigute azaldu. Hala, umezarako gaixotasun onberen aurkako txertoak ematen dira: elgorria, errubeola... Baina txerto horrek

gaitzaren konplikazioak izateko aukera handiagoak dituzte".

Azkenik, txertoen eta autismoaren edo bat-bateko heriotzaren artean aipatu izan den loturaz, Bengoak dio lotura horiek ez daudela demostratu izan dela; eta, gainera, txertoek aspalditik ez dutela merkuriorik, autismoarekin

lotura hori argudiatzeko aipatu izan den garai bateko osagarria.

Ezohiko gaitzatarako txertoak

Umei txertoak ematearen aurka daudenak ere badira; mugimendu ezagunena Txertaketa Askearen aldeko Liga da, Xavier Uriarte mediku naturista buru duena.

Egutegia

2 HILABETEREKIN

B hepatitis, difteria, tetanoa, kukutxetzula, polioa, B hemofilusa eta C meningokokoa.

4 HILABETEREKIN

Aurreko guztien 2. dosia.

6 HILABETEREKIN

Aurrekoen –meningokokoa izan ezik– 3. dosia.

12 HILABETEREKIN

Elgorria, errubeola, paperak eta C meningokokoa.

18 HILABETEREKIN

Difteria, tetanoa, kukutxetzula, polioa eta B hemofilusa.

4 URTE

Errubeola, elgorria eta parotiditisa (paperak).

6 URTE

Difteria, tetanoa eta kukutxetzula.

10 URTEREKIN

Barizela.

13 URTEREKIN

Giza-papiloma.

16 URTEREKIN

Tetanoa eta difteria.

ez du betirako babesten. Egiten dutena da arriskua heldutasunera atzeratu, eta hor bai, ondorio larriagoak izan ditzakete gaixotasun horiek". Horrez gain, "oso gaixotasun ezohiko batzuen aurkako txertoak ere ipintzen dira, esaterako, B hepatitisarena. Baina gaixotasun hori oso gutxitan ematen da, eta ondorio larriak ere oso ezohikoak dira. Beraz, merezi du ume jaioberriari horren txertoa ipintzea?"

Kalte-ordainak AEBetan

Martinez esanetan, jaioberriaren bat-bateko heriotzaren sindromea umei ipintzen zaien lehenengo txertoarekin, DTParekin lotu izan da. "Pediatrek ez dute onartzen, baina AEBetan hainbat kalte-ordain eman izan zaizkie familiei, bat-bateko heriotza txertoen ondorioa izan zela onartuz".

Txertoak autismoarekin lotu izan dira ere, batez ere AEBetan. Martinez esanetan, "txertoek substantzia toxiko asko dute: merkurioa, aluminioa, formola... 40ko hamarkadan, zientzialari batzuek DTP txertoarekin eta horrek zuen merkurioarekin lotu zuten".

Martinez gomendioa da ume bakoitzaren kasua aztertu eta, txerto bakoitza ipini aurretik, pentsatu: "Ze gaixotasun prebenitu nahi dugu? Larria da edo ez? Sarri ematen da edo ez? Eragin-korra da edo ez? Eta, horrez gain, ze albo-ondorio ditu? Hori dena kontuan izanda erabaki behar da, ume bakoitzarendako, txertoa ematea komeni den edo ez".

Aste Santuko oporretarako *presta zaitez!*

SOLARIUM
BONUA*

6 saio + 1 opari
45 € bakarrik

Anima zaitez
eta gure eskaintzak kontsulta itzazu:

Gorputz eta aurpegi tratamenduak,
Mikropigmentazioa...



Amagara

Erdiko kalea 54 behe 20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

* Baliagarria martxoaren 28ra arte

PSE: 228/10





Sorturen Bergarako Kontseiluko kideetako batzuk aurkezpenean. | JOSETCO ARANTZABAL

Redondo: "Amesten dugun herria posible da eta Sortu hori lortzeko lehen lerroan izango da"

15 lagunez osatutako Sorturen Bergarako Kontseilua aurkeztu zuten atzo

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Bergarako Sortuk Herriko Kontseilua aurkeztu zuen atzo, Telesforo Monzon plazan. Ez zen kasualitatea izan ekitaldirako leku hori aukeratu izana, izan ere, zapatuan 32 urte bete ziren Bergarako politikari eta kultura sortzailea hil zela eta kontseiluaren aurkezpena aprobetxatu zuten hari omenaldia egiteko.

Hain zuzen, Monzonen omenaldiarekin hasi zuten ekitaldia. Txalaparta doinuekin batera, aurrekoa eta lore eskaintza egin zioten Monzonen irudiari, eta haren hitzak entzuteko aukera

ere egon zen. Omenaldiari amaiera emateko, Monzonek berak sortutako *Kalera, kalera* abesti ezaguna abestu zuten bertarutako guztiek.

15 lagunek osatzen dute

Omenaldiaren ostean aurkeztu zuten Sorturen Bergarako Kontseilua. Honako 15 hauek osatzen dute: Ibai Redondo, Unai Aranzabal, Maren Belastegi, Leire Iruin, Iñigo Arregi, Iñigo Barruso, Iñigo Lete, Maite Aristegi, Aitziber Plazaola, Juan Manuel Minguez, Enara Minguez, Ama- goia Aristegi, Jose Ramon Etxe-

berria, Jolanda Juaristi eta Aitor Arantzabal.

Ibai Redondo izango da koordinatzailea eta berak eman zituen azalpenak atzokoan. Monzonendako ez ezik, "belaunaldiz belaunaldi herrigintzan, udalgintzan, isilean herri honen alde dena eman duzue-nondako" esker hitzak izan zituen lehenik, Sorturen Bergarako Kontseiluaren izenean. Hala ere, Euskal Herria bizirik badago, "nazioartean lagun ugari izan dituelako" ere badela gehitu zuen eta Hugo Chavez ekarri zuen gogora, "agur eta ohore Hugo Chavez komandan- te iraultzaileari", esanez.

"Sortu gara"

Sortu, "Bergarako abertzale eta ezkertiar guztien bilgune izateko" sortu dela esan zuen eta "Euskal Estatu Sozialista helburu" dutela. Kapitalismoa humanizatzeke barik, "herritarrek etxe gabe geratzera, miseriara kondenatzen dituen kapitalismoa errotik eraldatzeko" sortu dela Sortu. Eta euren alternatiba "ekonomia herritarren zerbitzura jartzea, euskal sozialismoa eraikitzea" dela ere azaldu zuen.

Nazio eraikuntzan eta eraldaketa sozialean aurrera pausuak emateko "gaur atzo baino hobeto kokatuta gauden arren, etorkizun hobia lortzeko lan eta borroka asko egiteko" dagoela azpimarratu zuen, "herritarrekin, eragile sozial, sindikal eta alderdi politikoekin indarrak batuz, kapitalismoa eta estatuen zapalkuntza- ren aurrean desobedituz". Zentzu horretan, mezu argia bidali zioten EAJri: "Prest gaude zuekin elkarlanean herri hau independentziara eramateko, baina ez bere etorkizuna hipotekatzeko. Noiz arte jarraitu behar duzue eskubide sozialak murrizten, herritarrek euren etxeetatik botatzen eta ingurumena eta ekonomia AHT bezalako obra faraonikoekin hipotekatzeko?"

Azkenik, "preso eta iheslariak etxera ekartzea urgentziatzeko betebeharra" dela esanez amaitu zuen Ibai Redondok bere interbentzioa.

Antzuola eta Bergara arteko errepidea itxi egingo dute

M.B. | ARRASATE

GI-632 errepidea itxi egingo dute gauez, martxoaren 12tik 26ra arte, Bergarako sarrera eta Antzuola artean. Aldunditik jakinarazi dutenez, GI-632 errepideko lanak direla-eta, beharrezkoa izango da errepidea erabat ixtea inguruko zuhaitzak botatzeko eta ondoren lurrean zuloa egiteko. Lan horiek 21,5 kilometro puntuan egingo dituzte. Bihar, martxoak 12, hasiko dira errepide mozketok eta hilaren 26ra arte iraungo dute. Gauez egingo dituzte lanak, domeka gauean hasi eta eguen gauera arte, 22:00etatik 06:00ak arte. Lanean ari diren bitartean errepidea erabat itxiko dute, baina 15 minuturo ireki egingo dute autorik izanez gero pasatzen uzteko. Hau da, autoek gehienez 15 minutu itxaron beharko dute.

Prestaketa lanak gaur, martxoaren 11tik 12rako gauean, egingo dituzte. Errepidea itxeko seinaleak jarriko dituzte eta litekeena da trafikoari eragitea, arin bada ere.



Zapatuko omenaldiko une bat. | IMANOL GALLEGO

Hitz hunkigarriak Isaias Carrascori omenaldian

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Martxoaren 7an bost urte bete ziren ETAK Isaias Carrasco militante sozialista erail zuela eta zapatuan omenaldia egin zioten Arrasaten. Navas de Tolosa kalean egindako omenaldian lehenbizi Sandra, alaba nagusiak hartu zuen hitza. Aitari zuzendutako gutun bat irakurri zuen berarekin izandako uneak gogora eka-

rriz. Eskutitza amaitu eta gero ETAK "oraindik" armak entregatu ez dituela salatu ostean, bere aitak lortu nahi zuen bakeaz mintzatu zen: "Orain zuk horrenbestetan hitz egin zenidan bakea lortu dugu", esan zuen.

Alabaren ondoren Iñaki Arriola, Gipuzkoako sozialisten idazkariak egun bizi dugun bake eskentokian instituzioek, bereziki Bilduk

kudeatzen dituenak, "biktimak ahaztu ez ditzaten" egin beharreko lana azpimarratu zuen.

Omenaldira bertaratu ziren herritarrez gain, besteak beste Jesus Eguiguren politikari sozialista ere egon zen. Arrasateko zinegotzi sozialistak Paco Gartzia, Aritz Arrieta eta Raquel Diaz eta Bilduko Juan Antonio Barriocanal ere izan ziren bertan.




MIREIA BIKUÑA

Desjabetzeak salatu zituzten

Oñatiko Krisiaren Aurkako plataformak deituta, bilkura egin zuten zenbait lagunek zapatu eguerdian plazan *Heriotza gehiagorik ez!* lelopean. Bilbon alokairuzko etxetik desjabetzera zihoazenean bere buruaz beste egin zuen 50 urteko gizonaren heriotza salatu zuten. Oñatiko Udal Gobernu Taldeak ere atxikimendua erakutsi zion deialdiari.

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxe: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com



EGUZKIGRAF
inprimategia

30 urte
baino gehiago
zure
zerbitzura

Ikasteko aukera bermatu guran, Bergarako Unedeko irakasleak musu-truk lanean

- ▶ "Greba japoniarra" euskaldun erara" egitera behartuta sentitu dira unibertsitateko irakasleak
- ▶ Gainera, mikro-agerraldiak egingo dituzte plazan: egubakoitzetan 17:55ean eta zapatuetan 11:30ean

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA

Azken murrizketen ondorioz Bergarako Unedek greba japoniarra hasi zuen egubakoitzean. Hala, ikasturtea amaitu arte, irakasleek ez dute kobratuko eskolak emateagatik.

Bergarako unibertsitateak 140.000 euro behar ditu ikasturtea arrakastaz amaitu ahal izateko, baina azken murrizketek zail egiten dute xedea erdiestea. Horregatik hartu dute "greba japoniarra euskaldun erara" egiteko erabakia, Alberto Santana Historia irakaslearen esanetan.

Unibertsitatea, kinka larrian

Prentsaurrekoa egin zuten eguean, Bergarako egoitzan, hiru irakasle egoera azaltzeko. "Oso une larria bizi du Bergarako Unedek. Eskolak doan emango ditugu, eta ikasleek ikasketekin jarraitu ahal izango dute".

Egoera larria, baita hezkuntzan erreferente den zentro baten zako. "Egia da Bergarako Uned izen horrekin 1976an sortu zela. Baina askoz lehenagokoa da proiektua; izan ere, Oñatiko Uni-

bertsitatean sortu zen, eta, ondorioz, 500 urte inguruko hezkuntza tradizioa desagertzeaz dago. Den-denok galtzen dugu egoera zail honekin".

Irakastea da Bergarako Unedeko irakasleen helburua, eta argi utzi gura izan zuten beraien lehentasuna. "Ez dugu soldata-aldarrikapenik egiten, ezta gutxiago ere. Ohituta gaude gutxi kobratzera, eta, gainera, poliki-poliki urtero murrizketak izan ditugu, eta guk hor jarraitu dugu".

Baina egoera muturreraino iritsi dela salatu zuten. "Ikasturtea amaitu bitartean musu-truk lan egiteko prest gaude. Egoera aldatu ezean, zer gertatuko da datorren urtean? Ideia originalak topatu beharko ditugu, desager ez gaitezten".

Bergarako Uneden 2.300 ikasle baino gehiago daude, gehienak hezkuntza arautuan. "Gure unibertsitatea proiektua konpartitzen duten ikasle eta irakasleekin osatutako etxe bat da. Klase presentzialak eskaintzeak harreman sare garrantzitsua sortzen du".



Madariaga, Santana eta Talledo irakasleak prentsaurrekoan. | ZVDM

Jasotako babesa

Egoera latzaren aurrean, gogorazi zuten alderdi ezberdinetatik jaso duten babesa. "Hasi patronatutik, eta alderdi politiko ezberdinetara. Martin Garitano Patronatuko presidentea da, bergararra eta gure ikasle ohia. Konprometituta dago egoerarekin".

Gipuzkoako Foru Aldundiak prentsa ohar bidez eman zuen aditzera ahalegin guztia egingo duela laguntzen murrizketen

eraginez Bergarako Unedek eskaintzan dituen tutoretzak erdira ekar ez ditzan. Hala, "Gobernu honek hezkuntzaren eskuduntza osoa duen Eusko Jaurlaritzari inplikazioa exijitzen dio Unedek erreferentziak zentro izaten jarrai dezan Gipuzkoan". Era berean, Aldundiak ukatu egin du inongo erantzukizunik daukanik tutoretzak erdira murrizteko hartu den erabakian. "Neurri hau ez da

Patronatuan onartua izan, beraz, Unedeko zuzendaritzari eskatzen zaio hartutako erabakia berriz hausnar dezala". Oharrean jasota geratzen denez, agindu egiten du Unedeko aurtengo aurrekontuetan aurreikusita zeuden 340.000 euroko laguntzara iristeko.

Era berean, Gipuzkoako EAJK ohar bidez elkartasuna adierazi zien unibertsitateak bizi duen egoera sufritzen dutenei. Bertan, "Bilduren murrizketek Bergarako Uned unibertsitatea arriskuan jarri dutela" salatu zuten. Oharrean, Aintzane Oiarbidek Martin Garitano Unedeko presidenteari leporatu dio "egindako murrizketen ondorioz Bergarako Uned arriskuan jarri" duela. "Foru Aldundiak 2012an 400.658 euro eman zizkion eta 2013ko aurrekontuan, aldiz, 290.000". EAJK oharrean gaineratu zuen ekimena egin duela Foru Aldundiak iritzia aldatu eta 140.000 euroak eman diezazkion.

Bestalde, Gipuzkoako PSE-EEK beste ohar bat kaleratu zuen, non EAJ kritikatzan zuen alderdi horrek Bizkaian Unedekin egin duena Gipuzkoan salatzeagatik. Hala, Gipuzkoako sozialisten batzarkideak "EAJK lotsa gutxi duela baieztatzen du, Portugaleteko Uned defendatu eta mantentzeko lanean Bizkaiko udal sozialistak bakarrik utzi izanagatik". Eneko Anduezak koherentzia eskatu dio EAJri oharrean, eta Portugaleteko unibertsitateari ematen zitzaion laguntza berreskuratzea eskatu dio.

Carrefour

GORBEIA



Carrefour
GORBEIA-ra



*60 € baino gehiagoko erosketan eginda, Carrefour Gorbeiarra joan-etorriko AP-1eko autobidea ordaintzen dizuegu.
-Ezinbestekoa da autobideko tiketa aurkeztea.
-Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.

DOAKO joan-etorria

ARRASATE

ARETXABALETA

ESKORIATZA

Carrefour
GORBEIA

ETXABARRI-IBIÑA

Martxoaren 13ra arte

3x2

3 eraman 2 ordaindu

5.000 produktu baino gehiago
3x2 promozioarekin

%10^{*}

eko

DESKONTU TXARTELA ERREGAIETAN

*60 € baino gehiagoko erosketengatik. Club Carrefour zure txartela aurkeztuz edo PASS Visa zure txartelaz ordainduz. Urartea kalea - 23 (Alibarra izkina), Foronda, Zurbano eta Arrasateko AVIA zerbitzuguneetan trukagarria.



Apirilaren 15era arte

Inoiz baino kooperatiba gehiago sortu ziren iaz: 124

Elkar-Lan elkarteak emandako datuak dira; inoiz urte bakarrean sortutako kooperatiba kopuru handiena

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Iaz, kooperatibak sustatzeko Elkar-Lan elkarteak 124 kooperatiba sortzen lagundu zuen. Inoiz urte bakarrean sortutako kooperatiba kopuru handiena da hori. Elkar-Laneko presidentek, Agustin Mendiola eman zituen datu horiek joan den egubakoitzean, Bilbon, prentsaurrekoan. Horiez gain, 2012an, Elkar-Lanek beste 55 ekintzaile-talderekin jardun zuen, baina horiek ez ziren enpresa gisa gorpuztu.

Kooperatiba berri horiek 608 langile zituzten; hau da, sortzeko momentuan, kooperatiba berri bakoitzak, batez beste, bost langile izan ditu.

Gehienak, lan elkartukoak

Kooperatiba berri gehienak (114) lan elkartukoak izan dira; zortzi, etxebizitza-kooperatibak; bat, hezkuntzakoak; eta beste bat, bigarren graduako kooperatiba.

Sektoreka, 74 kooperatiba berri zerbitzuetakoak dira; 11, eraikuntzakoak; beste 11, komertzioak; zortzi, etxebizitzakoak; lau, kautxu eta egur sektorekoak; beste lau, automobilgintzakoak; beste lau, garraio sektorekoak; hiru, sektore elektrikokoak; beste hiru, metalekoak; eta bi, ehungintzakoak.

Zerbitzu sektorearen barruan, aktibitateka, honela banatzen

dira 74 kooperatiba berriak: ostalaritza (11), komunikazioa (10), gizarte arloa (zortzi), ikus-entzunezkoak eta mekanikoak (sektore bakoitzean sei), informatika, ingeniariak eta formazioa (lau kooperatiba bakoitzean), kontsultorak (hiru) eta beste batzuk.

Lurraldeka, kooperatiba gehienak, %60 inguru, Bizkaian sortu ziren; 40 entitatek Gipuzkoan hartu zuten alta; eta 12k, Araban.

2002tik, 574 enpresa

Elkar-Laneko zuzendariak, Javier Sanzek, ere hitz egin zuen prentsaurrekoan. Izan ere, Elkar-Lanek Enpresa-ekintza Kooperatibo Behatokiaren zuzendariaren txostena ere aurkeztu zuen prentsaurreko horretan. Horren barruan, Elkar-Lanek EAEko administrazio publikoari aholkularitza ematen die, eta Euskadin kooperatibismoa sustatzeko eta garatzeko egokienak iruditzen zaizkion politika publikoak martxan jartzeko informazioa ematen die.

Javier Sanzek aurkeztu zuen txostenetik, honakoak dira ezaguri nabarmenenak: Elkar-Lan sortu zenetik (2002ko abenduan), 574 enpresa kooperatibo sortzen lagundu du. Horien heriotza-tasa oso txikia dela esan zuen Sanzek: bakarrik %1,56, izan ere, bakarrik

574 horietatik 9 kooperatiba likidatu dira orduz geroztik.

Sektoreka, 2002tik hona sortutako ekimen kooperatibo gehienak zerbitzu sektorekoak dira. "Nekazaritza eta industria sektoreko ekimenak oso gutxi dira", esan zuen Sanzek.

Gero eta emakume gehiago

Ekintzailearen profila hau da, Elkar-Lanen arabera: gizonezkoa, 42 urtekoa eta erdi edo goi mailako ikasketekin.

"Hori hala izanda ere, gero eta ekintzaile gehiago dira emakumezkoak", esan zuen Javier Sanzek: gaur egun, kooperatiba-ekintzak martxan jartzen dituztenen %40,5 dira emakumezkoak.

Ekintzaile ia guztiak (%98) aurretik lan egindakoak dira.

Ekintza martxan jartzeko arrazoien artean, gehienek (%49) "neozio-aukerak" aipatu dituzte; baina beste asko (%37) lan egiten zuten enpresa itxi zelako egin ziren ekintzaile. Bi arrazoiak batera eragin izan diete ekintzaileen %14ei.

Kooperatiba eredu juridikoa aukeratu izan dute "filosofia-erregatik" %42k; aholkulariek hala gomendatu zitelako, %40k; abantailak eta laguntzak izango zituztelako, %10ek; eta beste arrazoi batzuegatik, %8k.



Errenta aitortpena egiteko bulegoa, Bergaran. | GOIENA

Errenta aitortpenaren gaineko webgunea martxan dago

L.K. | ARRASATE

Errenta aitortzeko kanpaina apirilaren 10ean hasiko da, autolikidazio proposamenak onartzeko epearekin, baina Foru Ogasuna hasi da dagoeneko horretarako prestatzen, eta kanpainaren gaineko webgunea martxan ipini du.

Foru Ogasunak www2.gipuzkoa.net helbidean ipini du PFEZaren gaineko webgunea. Edukiak "apurka-apurka" argitaratuko ditu Ogasunak, kanpaina hasi baino lehen. Harpidetzeko aukera ere badago, edukiak ze egunetan argitaratuko diren posta elektronikoz jasotzeko.

Besteak beste, aitortpenaren gaineko gidaliburua, programak

eta 2012ko zerga informazioaren gaineko edukiak ipintzen dituen abisua jasoko du harpidedunak.

Apirilaren 10ean hasita

Kontuan hartzeko datuak hauek dira: autolikidazio proposamenak onartzeko aukera izango da 2013ko apirilaren 10etik ekainaren 25era bitartean; errenta aitortpen mekanizatua Ogasunaren bulego baten aurkezteko hitzordua eskatu ahal izango da 2013ko apirilaren 15etik ekainaren 7ra (epea luzatu daiteke ordu librearekin egonez gero); eta aitortpenak aurkezteko epea zabalik izango da 2013ko apirilaren 16tik ekainaren 25era bitartean.

Euskadiren Barne Produktu Gordina %1,7 txikitu zen iazko azken hiruhilekoan

L.K. | ARRASATE

Eustatek 2012ko azken hiruhilekoetan EAEko ekonomia izan zuen hazkunderaren datuak argitaratu berri ditu. Estatistika iturri horren arabera, EAEko barne produktu gordina %1,7 jaitsi zen 2012ko azken hiruhilekoan, urte arteko tasan neurtuta. Halaber, aurreko hiruhilekoaren aldean, hots,

hiruhileko arteko tasan, %0,5 gutxitu zen. Beraz, dagoeneko bost hiruhileko kateatu ditu tasa negatibotan.

Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren arabera, "informazio honek baieztatzen du ekonomia, oro har, ahul eta makal dagoela eta zailtasunak dituela atzeraldiko egoera honetatik irteteko".

Euskadin, 10.000 biztanleko 13 enpresa sortu ziren iaz, Axesor erakundearen arabera

Euskadin, 3.022 enpresa sortu ziren iaz, 10.000 biztanleko 13. Espainiako batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa da hori: 18 enpresa berri 10.000 biztanleko. Axesor erakundearen datuak dira. Horren arabera, Bizkaian dago enpresa berri gehien biztanle kopuruaren arabera: 10.000 biztanleko 14,64; gero Araba dator (13,99), eta azkena Gipuzkoa da (12,57). Enpresa berri horiek 277 milioi euroko kapitala zuten, biztanle bakoitzeko 127 euro.

Ekaina ezker, Bucarestera eta Marrakechera ere hegaldi zuzenak emango ditu Loititik Vueling-ek

Vueling hegaldi-enpresak Bucarest eta Marrakechera hegaldiak operatuko ditu Loiuo aireportutik ekaina ezker. Errumaniako hiribururako erruta ekainaren 19an inauguratuko da, eta Marrakecheko, 21ean. Hala, datorren uda denboraldian, 20 erruta operatuko ditu Vueling-ek Loititik, eta hango lehenengo aire-enpresa bihurtzen da, merkatuaren %33arekin. Loiuo oinarritutako hiru hegazkin ditu dagoeneko Vueling-ek.



Juan Roig, Mercadonaren iazko emaitzen aurkezpenaren. | EFE/MANUEL BRUQUE

Tapiak Mercadonari: "Badago saltoki handi asko"

Mercadonak 25 supermerkatu irekiko ditu Euskadin, eta 1.000 lanpostu finko sortu

L.K. | ARRASATE

Zurumurrak egia bihurtu dira: Mercadonak asmo zehatzak ditu Euskadin supermerkatuak irekitzeko. Hala, Eusko Jaurlaritzari aurkeztu dio Euskadirako epe ertainerako plan estrategikoa: sei

urtean 25 supermerkatu irekiko ditu, 50 milioi euro inbertituta, eta 1.000 lanpostu inguru sortuko ditu. Halako lehenengo inaugurazioa 2014 bukaeran edo 2015 hasieran egin nahi du Juan Roig-en banaketa-kate handiak. Supermer-

katu bakoitzak 40 lanpostu finko sortuko ditu, eta Euskadin 1.000 lanpostu finko berri izango dira. Kate horrek Euskadiko nekazaritza-produktu eta zerbitzu hornitzaileei urtero, gutxienez, 150 milioi euroko erosketak egiteko konpromisoa hartu du.

Garapen Ekonomikoko sailburuak, Arantza Tapiak, Mercadonako arduradunei jakinarazi zien Euskadin "badagoela nahikoa azalera handiko" denda, eta Lurraldeko Zatikako Planak gertuko komertzioaren alde egiten duela.

"Itunarena ez da egia"

Bestetik, Mercadonak Nafarroan supermerkatuak irekiko zituela eta, gaiaren gainean galdetu genion iazko udan Agustin Markaide Eroskiko presidenteari. Hona hemen erantzuna: "Gure lehiakide nagusia da. Nafarroara badatoz eta hona [EAEra] ere etorriko dira. Euskal Herrian daude banaketa enpresa handienak eta sekula ez dute baimenik eskatu hona etortzeko. Ez da egia hainbat forotan esaten den hori, Eroskik eta Mercadonak itun bat dutela Mercadonak Euskal Herri-ara etor ez dadin".

Pello Garai | Arrasateko Udaleko Landa Ingurune teknikaria

"Ez dakit jabetzen garen herriko eta inguruko basoek ematen digutenaz"

- ▶ Udalek bultzatutako landaketek basoen aldeko sentsibilizazioa dute helburu
- ▶ Garai bateko pinu landaketek eraldatu zuten paisaia; izan zenera ari da bueltatzen

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Pello Garai (Arrasate, 1968), Arrasateko Udaleko Landa Ingurune teknikaria da 2002. urtea ezker. Asteotan gurean zuhaitzak landatzeko hainbat hitzordu dau dela aitzakia hartuta, Garairekin izan gara, besteak beste, aholku bila.

Hauxe da landatzeko garairik aproposena?

Garai honetan egitearen arrazoa eguraldia eta eguna luzeagoa delako da. Baserritarrek, baina, neguan egiten dituzte landaketak; nire ustez, berandu samar gabil-tza. Aukeran, landareentzako urtarrean egitea egokiago litza-teke; zuhaitzak izaki biziak dira eta laster hasiko dira mugitzen landareen begiak. Lan horretarako jana behar dute, eta, orain landatuz gero, zuztarrak nahikoa zabalduta ez dituztenez, landareak dituen erreserbetatik jaten du.

Zertarako egiten dira?

Ingurumen Saitetik sentsibilizazio kanpaina asko egiten dira, bereziki, eskoletan. Gela barruan landutakoa praktikan jartzeko modua da; basoen garrantziaz jabetzeko helburuarekin.

Herritarrok, orokorrean, jabetzen gara zuhaitzen beharraz?

Gaur egun eten handia sumatzen dut kale eta baserri giroaren artean. Ez dakit jabetzen garen herriko eta inguruko basoek ematen digutenaz. Sarritan, basoak paisiarekin bakarrik lotzen ditugula esango nuke.

Ze onura azpimarratuko zenuke?

Zuhaitzek CO2a xurgatzen dute, airea garbitzen dute, beraz; higadura saihesteko ere balio dute. Lurrari eusten diote zuhaitzek; horren adibide, azkenaldian izan diren luiziak, hain justu ere, zuhaitzik ez dauden tokietan gertatu direla, gehienbat. Animalien babesleku ere badira; bioaniztasuna aipatzen dugunean, oso lotuta dago basoekin. Uraren zikloaren ardura zuzena ere basoena da; hau da, zuhaitzen hostoek atmosferarekin oreka lortzen dute, eta are gehiago esango nuke, zuhaitzek ura erakartzeko gaitasuna dute.

Zuhaitz bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Bat bereziki aipatzekotan?

Nik oso gustuko dudana, eta uste dut guztiok ezagutu beharrekoa, haltza da. Erreka bazterretan ateratzen da eta bioniztasunean oso funtzio garrantzitsua du. Erreketako ura berotu egiten da, eta, ondorioz, oxigenoa galtzen



Pello Garai, Arrasateko Udaleko Landa Ingurune teknikaria, astean, Monterron parkean. | AITZIBER ARANBURUZABALA

du eta han bizi diren animaliak hil egiten dira. Haltzaren hostoen itzalarekin, berriz, ura ez da berotzen, eta, beraz, ez da uraren oxigenorik galtzen. Hori batetik, baina badu beste funtzio bat: zuztarretan sinbiosian duen ondoren bitartez lurra aberasten du. Aipatzekoa da, era berean, udaberrietik udazkenera hostoak pixkanaka jausten zaizkiola; horiek animalientzat janaria izaten dira. Sasoi baten ikaragarriko haltzadiak zeuden hemen.

Edozein zuhaitz landa genezake edonon? Nola aukeratu ondo?

Landare bakoitzak bere beharrak ditu; orokorrean zer landatu asmatzeko, onena da inguruan zer dagoen begiratzea. Naturak berak esango dizu. Ehuneko ehunetan asmatuko duzu horrela.

Lagun egiguzu zuhaitz bat egoki landatzen.

Hasteko, harri bako lur gozoa aurkitu behar du. Izaki bizi-

dunak dira eta horrela tratatu behar ditugu zuhaitzak; beraz, ahalik eta geihen samurtu behar diogu hazteko bidea. Mintegira joanda, landare freskoak aukeratu behar ditugu gero. Trukutxo bat emango dizuet: azala harrotu eta barrukoa berdea baldin bada- go bizirik dagoela da. Zuztarretan

"Bertako landareen aldeko apustua egiten ari garela sumatzen dut"

"Garrantzi botanikoa duten babestu bako guneak ditugu"

ere ondo begiratu: asko izan behar ditu eta harrotu egin behar dira. Alerik onenak momentuan ateratakoak dira.

Landatzeko orduan oso garrantzitsua da zuloaren gutxienezko neurri estandarra 40 zentrimetro karratu izatea. Era berean, kontua izan nola sartzan den landarea. Bi zati ditu: zuztarra eta zurtoina; eta bien arteko zatiari lepoa deitzen zaio. Bada, lepoa lurraren mailan egotea komeni da, ez gorago, ezta beheago ere; ito egingo dugu bestela. Lur ona badaukagu zuhaitzari botako diogu, eta gero, gainean, zulotik ateratakoa ateratakoa erantsi. Dena ondo zapaldu, airea kentzeko, eta ureztatu.

Mantentze-lanak egin behar dira; besteak beste, inausketak gero. Horrela da, bai; lehenengo urteetako garbiketa-lanak oso garrantzitsuak dira; hau da, inguruko narrak kendu, esaterako. Lur publikoetan, udaletako baso bri-

gadek egiten dute lan hori. Horrez gainera, urtero, inausketa lanak egitea ere komeni da.

Goazen Debagoieneko basoetan ibiladitxo egitera orain.

Orain dela gutxi 65 urteko Gesalibarko auzotar batek kontatu zidan gazteagoa zenean gaztainadiak, artadiak, pagadiak... zirela. Gaur dagoenarekin antzekotasunik ez. Handik gero, beraz; eta horretara bueltatzea litzateke ametsa. Garai baten nagusitu ziren pinu landaketek erabat aldatu zuten paisaia.

Orain urte batzuk pinuak etekin ekonomikoa lortzeko landatzen ziren; joera aldatzen doala dirudi.

Hasteko, ez dut inor kriminalizatuko pinuak landatu izan dituelako; urte onak izan dituen arren, globalizazioaren eraginez, pinuaren merkaturak asko aldatu da, bai. Gaur egun oso merke ekartzen dute-eta, besteak beste, Txiletik eta Landetatik. Horrez gainera, pinuen askotariko gaitzak ere aipatzekoak dira: garai honetan pinu-beldarrak ikusten ditugu pinu orriak jaten. Foru Aldundiak sekulako ahalegina egiten du horiek fumi-gatzen, baina gero eta gogorra-goa da gaitz horri aurre egitea. Baserritarrek hemengo landareen aldeko apustua egiten ari direla sumatzen dut.

Babestutako espezieak ere badira gurean. Nork erabakitzen du?

Foru Aldundiak du landareak babesteko ardura, betiere, udalen aholkuak jarraituta. Europatik ere heltzen dira hainbat habitat babesteko proposamenak. Egia da, era berean, badaudela babestu bako altxorrek, baina, agian, ez dituztenak zerrenda horietan sartzen, interes edo egoera bat dagoelako tarteko (batzuk aipatzearen, harrobiak edo AHT). Azpimarragarria da Udalatx mendiak gertu dituen Aizkorri-Aratz edo Urkiolako parkeak besteko garrantzi botanikoa duen arren, ez dagoela ofizialki babestuta.

Esaera zahar batek dio bizitzan egin beharrekoen artean dagoela zuhaitza landatzea. Bat zatoz?

Oso zalea naizenez, baietz erantzungo dizut, inor ezertara behartu barik. Gure atzetik datozenen aldeko keinu edo metafora bat dela esango nuke; hau da, guk landatzen ditugu, baina ondorengoek disfrutatzeko. Ditudan bi alabak jaio zirenean, bakoitzaren omenez, bana landatu genuen.

ZABALIK

MANEX AGIRRE
http://goiena.net/iritzia/



Begirada fosburyar bat

Norbaitek esango dit pertsonaia gehiegi ustatzen ari naizela, eta ez zaio arrazoirik faltako, baina Richard Fosburyk lilura eragin dit Inoren Ero Ni taldearen disko-puskaren bidez ezagutu nuenetik. Eta kontatu nahi dudana bide emateko (norabide-aldaketa pobre samar bat erabiliz, noski: ohartuko zarete beharaxeago) aprobetxatuko dut beste behin.

Fosbury jauna da, gaur egun, altuera-jauzian mundu osoan zehar erabiltzen den estiloaren fundatzailea. 1968ko Joko Olinpikoetan, Mexikon, egin zuen jendaurrean lehenengoz bere izena daraman jauzia, atletismoko espezialistetan harridura eta agian barre-algarearen bat ere sorraraziz.

Fosbury flop-a modan jarri arte, aurrera begira egiten zuten jauzi atletak, buruz jarrita. Estilo berriak, ordea, bizkarrez jauzi egitea agintzen du; hau da, atzeraka, aurpegia ikusleei emanez. Horrela, ikuspuntu biomekanikotik (wikipedia dixit) abantaila handiak lortzen dira: jauzilariaren grabitate-zentroa eta gainditu beharreko barraren artean tarte txikiagoa uztea ahalbildetzen du, eta altuera irabazten da.

Urrezko domina irabaztea eta jauzi baten bataio-izena ezartzea ekarri zizkion horrek Richard Fosbury jaunari.

(Eta hemen dator argumentu-biraketa kutre hori. Abisatu ez izanaren damurik, behintzat, ez dut izango)

Gutziz errealista ez bada ere, polita da irudikatzea Fosburyk Mexikoko estadioan zeuden ikusleei begiratu egin ziela, zuzen, begietara, nolabaiteko desafio-keinu batekin. Ordura arte, altuera jauzia egiten zuten atletak gainditu beharreko barrari begiratu behar zioten, ezinbestean.

Geuk ere, behin bada ere, eguneroko langei bizkarra eman eta jendarteak daraman benetako martxari begirada fosburyar bat egin beharko ez ote geniokeen; horra kezka. Dena gainbehera badoa, gutxienez ikus dezagun geure begiz nola doan.

"Estilo berriak bizkarrez jauzi egitea agintzen du: atzeraka"

USTEAK USTE

LARRAITZ ZEBERIO | lzeberio@goiena.com

'Guraso.com'-ek lau urte

Martxoaren 5ean bete ditu lau urte Txatxilipurdik, Arrasateko Udalak eta Goienak elkarlanean sortutako *Guraso.com* atariak. Hasierako helburua zen hazkuntzari buruzko eta gurasoendako euskarazko edukia zabalduko zituen plataforma bat sortzea, eta horretan segitzen dugu. Lau urteotan makina bat kolaboratzaile izan dugu; kolaborazioak idatzi dituzte askotariko aditu eta arituek, eta inork kontsultarik egin duenean beti egon dira gertu erantzuna emateko. Irrien Lagunak, Hik Hasi eta *Ttiklik.com* ere gertu ditugu. Erronka, orain, gurasoek gomendioak eta esperimentziak elkar trukatzeko da, eta atal berriak sortu ditugu.

KALE INKESTA

Zer deritzozu Mercadonak EAEn dendak zabaltzeari?




MARI CARMEN RISCO
ARRASATE

"Haroko Mercadonan izan gara, baina Eroskin erosten dugu. Gazteentzat lana ekartzen badute ongi etorriak".



MARI CARMEN IRAOLA
ARRASATE

"Eroskin erosteko ohitura dut, baina gertu izanda probatuko beharko da. Lanpostuak sortzen baditu berri ona izango da".



REYES GARCIA
ARRASATE

"Peñiscolan oporretan nagoenean askotan erosten dut Mercadonan. Ea honekin lanpostuak sortzen diren".



ANGEL TXINTXURRETA
ARRASATE

"Lanpostuak sortuko dituztela esan arren, beste hipermerkatuek langile gutxiago beharko dituzte. Gezur hutsa da".

HANDIK ETA HEMENDIK

Hil da Hugo Chavez, fuera Hugo Chavez

Aritz Galarraga
http://berria.info/blogak/ekografiak/

Hil da komandantea.
Hil da diktadorea.
Hil da libertadorea, kaudilloa.
Hil da Venezuelako presidentea.
Hil da Hugo Rafael Chavez Frias izeneko tipo bat.
Eta gauza asko eta asko esan dira azken bi egunetan -benetan, asko.

Baina gauza bat nabarmendu dute ia bazter guztietan: pasioak eta gehiago altxatzen zituen modu berean sortzen zituela kontrario sutuak.

Alegia, bitan banatzen zuela, ez bakarrik Venezuelako biztanleria, baizik eta kasik mundu osoa.

Horregatik, hedabide askok, esango nuke gehienek, pasa duten mezua ondorengoa izan da:

Ados, gauza txukun batzuk egin ditu, baina agintari

populista izan da, totalitario izatera jolastu dena.

Zalantza daukat: gauza berdina egingo lukete, adibidez, Angela Merkel hilko balitz?

Edo David Cameron? Bai baina ez formula erabiliko lukete Chavezekin egin bezala?

Ezin da egin beti edozein estatutako politikaren irakurketa gutxienez bikoitza?

Batak ez du bestea kentzen: azken bi egunetan arraro sentitu naiz, ez dudalako sekula izan Venezuelako errealtate politikoren gaineko iritzi garbirik.

Eta harritu ere harritu naiz ikusita, Gorka Erostarbe kazetariaren definizioa erabiltzearen, zenbat venezuelo eta chavezologo agertu den derrepente bazterrotan.

Akatsa nirea izango da, noski, eta horregatik zuzendu nahi izan dut.

Irakurri dut adi prentsa, entzun ditut zorrotz irratia, ikusi ditut ikusi beharreko albiste guztiak, ohikoak eta bereziak, bestelako saioretan esan dutena, bai eta begi-belarri zabalik Berria TBk

asteazkenean emandako mahai ingurua ere.

ETBk esanda dakit Latinoamerikako buruzagiek Hugo Chavezen irudia goraiatu dutela.

AEBetako presidente Barack Obama ez alde ez kontra agertu dela, eta errepublikarrak gogorrako, esanez Chavez tiranoa zela.

Europako Batasunak garapen soziala eta Hego Amerikako herrialdeen arteko harramana bultzatzeko lana goraiatu dizkiola.

Baina ETBk berak militarista, populista, antiinperialista, antikapitalista gisa ere definitu du Venezuelako presidentea zena.

Beraz, zer? Txirritaren hura moldatu behar dugu?:

"Hil da Hugo Chavez, fuera Hugo Chavez".
Edota "hil da errege, biba errege" ezaguna egin behar dugu oihu?

Ezen ez baita egia hedabideek gauzak garbiago izaten laguntzen ez dutela.

Nik, adibidez, gaur askoz argiago daukat Chavezen aferan atzo baino nahasiago ikusten dudala dena.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Uthane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrariaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna
Monika Belastegi
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrariaga, Amaia Mundiñano, Ziorza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com


Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRTIZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jauriaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



GOIENA KLUBEKO BAZKIDEEI HONAKOA DUGU ESKAINTZEKO MARTXOAN

ADI EGON!

GOIENA Klubeko 4.000 bazkideon artean martxoan honakoa zozketatuko dugu.



3 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako gaua ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala.



3 BONO

Aisia Deba hotelean 2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantuarekin eta spa zirkuitua).

Parte hartzeko

BaserriSarea
Korrika
Arrikruz
Alabatxo
Romeo

SMS: KLUBA [SARIAREN IZENA]
[bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp bidez: KLUBA [SARIAREN IZENA]
[bazkidearen zenbakia]688 69 00 08 zenbakira.
Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestiozatea. Eskubidea izango duzue datuotan sartzeko, hainek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

BASERRISAREA .COM

DEBAGOIENEN BASERRI SAREARI esker baserriko produktuez osaturiko 4 otar zozketatuko ditugu.



KORRIKA

KORRIKAKo materiala dugu GOIENA KLUBEKO bazkideen artean zozketatzeko (kamisetak, polarrak...)



ARRIKRUTZ

Hilero bezala, Arrikruz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.



ANTZERKIA

Bi antzerki hauetako bina sarrera ditugu zozketatzeko.
Arrasateko Amaia Antzokia:
Martxoak 16, 17:00etan Alabatxo haur antzerkia
Martxoak 24, 19:30ean Romeo antzezlan (Teatro Meridional)



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

2 erosi 1 ordaindu.
Eureka! Zientzia Museoko eta planetariumerako sarrera bat erosi eta prezio bereko edo merkeagoko beste bat jasoko du duan.

Izena:
Abizena:
Bazkide Zenbakia:



Kupoi horien balio-epaia 3 hilabetekoa izango da.



DESKONTUAK: www.goienakluba.com



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Miguel Maiztegi | EAko zinegotzia Oñatin (1987-1991)

- ▶ Lehen politikariek ospe hobea zutela uste du
- ▶ EAJ eta EAren arteko banaketa bizi izan zuen
- ▶ Bere burua baserriartzat du

"Garai hartako EA gehiago gustatzen zitzaidan, kontserbadoreagoa zen, orain ezkerrera egin du"

IMANOL GALLEGO | OÑATI

Pertsona gutxi ezagutuko dituzte Arantzazuko inguruak Miguel Maiztegi baina hobeto. Bere familiak 200 urte baino gehiago daramatza Goiko Bentan, nahiz eta, benta XVI. mendean sortu zen. Soilik baserri-giroak ematen duen kutsu hori nabari zaio Maiztegi, zentzuzko gizona, zintzoa... Hitz bakarrean, Maiztegi etxekoa da; eta balore horiengatik eta sinpatia kontu bategatik sartu zen politika munduan.

Zen izan zen politikan sartzeko arrazioa?

Sinpatia kontua bat izan zen. Garaikoetxea gustuko nuen eta bere politikaren aldekoa nintzelako. EAJkoak, baina Garaikoe-txearen aldekoak.

Zuk EAJ eta EAren arteko banaketa bizi izan zenuen. Nola izan zen prozesu hori?

Nahiko xelebrea izan zen. Herriko jendearen artean, betiko lagunak izan arren, agurtzeari utzi genion. Zorionez, kontu horiek guztiak atzean geratu dira eta gauzak bere onera bueltatu dira.

Zu sartu zinen momentuan Oñatin gauza asko egiteke zeuden.

Gauza asko bai. Gogoan daukat herriarendako oso ona izan zen alkate bat egon zela. Korkostegik

hirigintza kontuetan oso ideia onak izan zituen. Kontua baina oso bestelakoa izan zen, proiektu asko bere ideiak izan arren, EAJk bereak izango balira bezala hartu zituen.

Herri batean pentsatzean herrigunea etortzen zaigu burura, baina Oñati hedadura handiko herri bat da eta gainera, zenbait berezitasun ere baditu.

Oñatik auzo asko ditu eta herriak duen tamainagatik oso behar ezberdinak zituzten eta dituzte. Gainera, arlo askotan Oñati kasu berezia da. Ur-jauzien kontua adibidez, hori Oñatiren berezitasun bat da. Gogoan daukat ni zinegotzi nintzela erosi genitue-

"EAJren barruan egon arren, ni Garaikoetxearen aldekoa nintzen"

"EA banatu ondoren herrian zenbaitek ez gintuzten agurtu ere egiten"

la. Martxan jarri... jendeak erre-zeloz ikusi zuen proiektua. Zorionez, urteek arrazioa eman digutela esango nuke.

Zinegotzien kasuan herria da zuen nagusia. Inoiz egin dizute errieta?

Galantak gainera! Ur-jauziak erosi ostean 840 milioi pesetako zorra geratu zen udaletxean. Garai hartan dirutza ikaragarria zen. Orain berriz horrelako proiektu handiak, urteen poderioz, beste begi batzuekin ikusten ditugu. Gastua beharrean inbertsio moduan hartzen ditugu.

EA ez zen gobernuaren egon. Zertan datza oposizio lana?

Ez da lan erraza! Jendeak uste du agintean dagoenari kontra egitea besterik ez dela, baina hori ez da horrela. Oposizioak zaintza papera dauka eta gobernuak egiten duena ongi badago, bere ondoan egoteko ardura dauka. Beti ez esan behar.

EAK urte latzak pasa ostean Bildun dagoenetik hobeto dagoela dirudi.

Beno nik EA lehen eskumarago ikusten nuen, orain ezkerrera egin duela uste dut.

EA Bildun sartu izana ona da?

Beno, emaitzei begiratuta ona izan da. Udal hauteskundeetan Bilduk eskuratu zituen emaitzak ez zituen inork espero. Hortaz ona izan da nonbait!



Miguel, berea den Goiko Benta ostatuaren alean. | IMANOL GALLEGO

Oñatiar batentzako nola da bere partidua arrasatear batek zuzentzea?

Zuzendari ona bada berdin dio Arrasatekoa, Gasteizkoa edo beste herri batekoa izatea.

Baina bi herri horien artean beti egon dira hika-mika handiak.

Betidanik. Gerrate gehienetan Arrasate eta Oñati bando banatan egon dira. Baina horiek oso aspaldiko kontuak dira.

Norbere partiduarekin kritikoa izatea beharrezkoa da?

Dudarik gabe. Bakoitza da bere etxea ondoen ezagutzen duen pertsona. Guztien ideiei esker irteten dira partiduak aurrera. **Zer behar du politikari batek bere lana ongi egiteko?**

Gauzak ondo egiteko gogoia eta lanerako grina besterik ez. Politikari batek herria aberasteko egin behar du lan, ez poltsikoa. Dirua ondo kudeatu, lana sortu... Aberastasuna herriak igarri behar du.

Lehen politikariek ospe hobea zenuen.

Lehen politikari izateak errespetua ematen zizun, baina egunero ikusten ditugunak ikusi ostean... Errespetu hori galdu da!

"Oposizioak ez lituzke gobernuaren proiektu guztiak baztertu behar"

"Aberastasuna herriak igarri behar du ez politikariaren poltsikoak"

Orain Arrasaten

Benetan **pisua galdu** nahi duzu?

PSE: 37/04



Rosa Sarabia doktorea

PronoKal[®] metodoa
Zientzia eta zorrozatasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gosegabezia

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBESITATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA

BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA

BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK

BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastiko

HERRIAK

ARETXABALETA

Auzokoekin hartu-emanean

- ▶ Auzoko proiektua Topagunearen barruan dago eta Loramendik eta Udalak garatzen dute
- ▶ Jatorri askotariko herritarrak egubakoitzero elkartzen dira, eta harreman sarea handitu

ZURIÑE V.D.M. | ARETXABALETA

Maraguak, Tatianak, Kenazak, Mariak, Ghalilik, Nighatek, Palomak, Josuk, Montsek, Carmenek, Pedrok, Iñigok, Arantzazuk eta Larraitzek hitzordua egiten dute egubakoitzero udaletxe zaharrean, otsailaren 1a ezkerro.

Topaguneak martxan ipinitako Auzoko egitasmoaren barruan elkartzen dira. Aretxabaletan, Loramendi euskara elkarteak eta Udalak elkarlanean eramaten dute aurrera proiektua. Talde erdia euskaldunetz eta beste erdia sahararrez, kurdutz, sevillarrez, mexikarrez eta galiziarrez dago osatuta.

Harreman sarea osatzen

Auzoko martxan ipintzeko behar bat zegoela adierazi du Larraitz Arandok, Aretxabaletako Auzoko dinamizatzaileak. "10-20 urteotan gure herrietako errealtateak aldatu da; esaterako, lehen elebidunak baginen, orain eleanitzak gara, gurera bizitzera etorri direnengatik. Aretxabaletan ere horixe ikusi dugu".

Beste arrazoietako bat da euskal komunitateak eta gainerako komunitateek oso gutxitan mantentzen dutela kontaktua: "Euskaldunok elkarte, taberna edota kaleko gune zehatzetan mugitzen baldin bagara, euskaratik urruti daudenak anbulatorioan, Caritasen inguruan eta Helduen Heziketa Iraunkorrean elkartzen dira, esaterako. Ez dugu harremanik izaten, eta, egoera

horretan, euskara irteten da gal-tzaile". Arandoren esanetan, "ez dute jakiten hemen beste hizkuntza bat berba egiten denik, ezta historia handiko kultura bat dagoenik ere."

Horregatik guztiagatik elkartzen dira egubakoitz arratsaldeetan; bai harreman sarea osatzeko, belarria euskarara egiteko (helburua ez baita euskalduntzea) eta, noski, baita une atsegina igarotzeko. Betiere, testuinguru informalean.

Ezagutzak barneratuz

Lagunak egiteko aitzakia ona da Auzoko, baina baita ikasteko ere. "Kalean elkar agurtuko dugu aurrerantzean, eta, gainera, batak bestearen kulturaz gehiago jakingo dugu".

Hala, egubakoitzetako hitzorduetan, jolasen bidez, eta aurrez definitutako hiztegi txiki baten bidez, egunerokoan erabil dezaketen euskarazko berbak tartekatzen dituzte, "euskaratik urrutik daudenak poliki-poliki gure hizkuntzara gerturatuzko".

Eta egun batzuetan kalera ere irten dira, eta orain arte, esaterako, herriko saltoki batzuen laguntza izan dute. "Egun batean fruten izenak ikasi genituen, eta ondoren, denda batek atea ireki zizkigun eta euskarazko berbak erabiltza erostera joan ginen. Jakiekin fruta-burruntzi goxoak egin genituen ondoren, eta amaiera borobila eman". Herritar ezberdinekin edukitako hartu-emanaren bidez

jendeak elkar ezagutzen du eta sarea handitzen doa.

Bestalde, Arandok Auzokoren bidez asko ikasi duela gaineratu du. "Egitasmoa hasi aurretik plangintza egin genuenean, hemengo ikusmoldearekin zehaztu genituen gauza guztiak. Eta konturatu gara kultura ezberdinak elkartzerakoan, askotan, ez dutela gure aurreikuspenek funtzionatzen".

Esaterako, Aretxabaletako kasuan, gehienak emakumezkoak dira eta musulmanek, esaterako, publikotasuna desberdin bizi dute. "Kontuan hartu behar diren gauzak dira. Beste adibide bat: guk Auzoko egubakoitzetan 15:00etan izatea zehaztu genueneko pasarteak. Aljeriako bikote bat interesatuta zegoen, baina egubakoitzak egun sakratuak dira haientzat, eta ordu hori otoi ordua da".

Egitasmoak, iraungitze-data

Lauzabost urteko bizitza duen egitasmoa izan gura du Auzokok. "Hain zuzen ere, modu naturalagoan harremanak izaterakoan desagertuko litzateke. Hori da asmoa, behintzat, helburu nagusia, eta amaierara irits dadin gura dugu, albiste ona izango litzateke-eta".



Auzoko ekimenean, tea hartzeko tradizioa partekatzen. | LORAMENDI

Atzeritartasun Legeaz berbetan

Eguen honetan, martxoaren 14an, Arkupen, atzeritartasunaren gaineko legeari buruzko informazio saioa eskainiko dute. Azken urteotan Udaleko Gizarteratze Zerbitzuak antolatu duen saioa da eta 10:00etatik 12:00etara bitartean izango dela eman dute aditzera.

Zalantzak argitzeko abagunea izango dute interesa duten herritarrek bi ordu horietan zehar, eta ez da soilik atzeritarrei zuzenduta egongo, haiekin hartu-eman dute guztie ere egin dieite dei parte har dezaten.

"Oro har, legearen nondik norakoez gehiago jakin gura dutenei irekita dago". Eusko Jaurlaritzako Biltzen Zerbitzuko kide bat bertaratuko da Arkupera, interesa duten guztien zalantzak argitzen saiatuko da. Ez baitira gutxi izaten legearen aurrean izaten diren kezak, eta ohikoena nazionalitateari buruzkoak izaten dira, edota kanporatzeen ingurukoak, bai eta bizi edota lan egiteko baimenak eskuratzeko moduen eta egon daitezkeen zigor ezberdinen ingurukoak.



Aretxabaletako Auzoko egitasmoko kide batzuk. | LORAMENDI



Antzuolan txikienek margotzen ospatu zuten eguna. | MONIKA BELASTEGI



Oñatiko emakumeek talde argazkia egin zuten. | MIREIA BIKUÑA



Feminismoaren aldeko Arrasateko martxa. | IMANOL SORIANO

DEBAGOIENA

Aste bukaeran berdintasuna aldarrikatu dute era askotara

Martxoaren 8a ospatzeko, herri bakoitzak, bere egitaraua antolatu zuen

IMANOL GALLEGO | ARRASATE
Arrasaten, besteak beste, manifestazioa egin zuten barikuan, *Gora feminismoa* lelopean. Seber Altuben hasi eta plazan amaitu aurretik, Maalako biribilgunean, Arbolapetan eta Iturriotz kaleetan emakumeekin zerikusia duten testu batzuk irakurtzeko geldialdiak egin zituzten. Martxan, adin guztietako emakumez gainera, gizon ugarik ere parte hartu zuen. Kulturaren bestalde, Ekin Emakumeak Elkarteak antolatutako erakusteka hilaren 24ra arte egongo da zabalik.

Zapatu eguerdian Oñatiko emakumeen sareak deituta plazan emakumeek talde argazkia egin zuten. Guztira 40 bat emakume hartu zuen parte eta ondoren herriko kaleetatik poteoa eta gaztetxean bazkaria egin zuten.

Berdintasuna, guztion kontua
Gizon zein emakume, gazte zein nagusi, berdintasuna guztiok aldarrikatu beharreko kontua dela gogorazi dute ekimen guztietan. Antzuolaren kasuan, txikitxoek ere ospatu zuten Martxoaren 8a. Zurrategi plazan

elkartu eta marrazkiak egin zituzten neska-mutikoen egubakoitz arratsaldean. Marrazkiok Olanar etxean egongo dira ikusgai datorren asteburuan. Amaieran, partaideek txokolatea edan zuten.

Bergaran tea hartzeko batu ziren barikuan 12 emakume Auzoko egitasmoak antolatuta: 9 auzotar eta 3 auzokide. Tea prestatu ondoren bi ordu eta erdiz hitz egiten egon ziren eta guztiak oso gustura ibili zirenez, bi aste barru berriz elkartuko dira. Gaztetxeak antolatutako ekintzak ere izan ziren Bergaran.



Ekinek Kulturaren antolatu duen argazki erakusketa. | IMANOL GALLEGO



BERGARA

IMANOL SORIANO

1936 urtera itzuli dira Bergaran

Intxorta 1937 Kultur Elkartearen ekimenez *Bergara 1936. Guerra y represion* delako DVDa grabatzen jardun dute asteburuan. Zapatuan Bergarako zenbait lekutan –irudian San Antonio auzoa– hainbat eszena grabatu zituzten, eta besteak beste, herriko bertako hainbat lagunek hartu zuten parte grabazio horietan. Domekan, berriz, Leintz Gatzagan egin zituzten grabazioak. Datozen egunetan gehiago ere egingo dituzte.



ARETXABAETA

JOSETXO ARANTZABAL

Zuhaitz landaketa arrakastatsua

Kurtzebarri eskolaren inguruak jendez bete ziren atzo, domeka. Handik igarotzen den bidegorri zatiaren ondoan dagoen berdegunean 100 bat zuhaitz landatzeko batu ziren. Gehienak familiak izan ziren eta guztiak gogotsu ibili ziren urki, haritz, zume negarti eta gorostiak landatzen. Ekimenak erabateko arrakasta izan zuen eta zuhaitzak taldeka landatu behar izan zituzten.

BERGARA

Familia eta lagunekin naturaz gozatu zuten

Natura Egun dotorea ospatu zuten San Martzialen

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Ehun bat herritarrek egin zuten bat zapatuan Bergaran Natura Eguna ospatzeko Udalak egindako deialdiarekin. Azken urteetan egindako Zuhaitz Egunaren bertso osatu eta aberastua prestatu dute aurten eta herritarrek primeran erantzun dute.

Eguraldiari ezin zitzaion gehiago eskatu, eta Oxirondo azoka ondotik abiatuta, oinez egin zuten guztiek San Martzialerako bidea. Igoeran Amaia Arriaran ipuin kontalariak gidari lanak egingo zituela iragarrita egon arren, azken unean gaixotu eta ezin izan zuten parte hartu -Udalak aztertu egingo

du ekimena aurrerago berreskuratzedun-. Hala ere, horrek ez zuen mendigoizale txikiaren animoa ilundu eta gogor egin zuten aldapan gora; izan ere, batutako gehienak, seme-alabak familialak izan ziren.

San Martzialera iritsitakoan Udaleko lorezain Iñigo Arregiren azalpenak entzun ostean, tresnak hartu eta zuhaitz eta zuhaixkak landatzeari ekin zioten: haritzak, sagarmina, gorostia, astigarra, makala... 150 guztira. Hainbeste lan egin ostean, ermitako aterpean hamarretakoa jan zuten eta horrekin batera, Udalak prestatu berri duen Gerriko Berdearen planoak ere jaso zituzten.



Ume, gazte zein heldu, primeran pasa zuten guztiek zuhaitzak landatzen. | IMANOL SORIANO



ROBERTO MARTINEZ

"Goiza aprobetxatzeko eta umeek disfrutatzeko oso ekimen aproposa izan da. Eguraldia ere primerakoa izan da. Batzuetan joaten gara umearekin mendira, baina gaur halako talde handian primeran pasatzen ari da".



MAIALEN, ERKUDEN, MALEN, MIREIA ETA ELI

"Primerako ideia izan da. Umeekin batera parte hartzeko oso polita. Pena izan da Amaia Arriaran gaixotu egin dela, umeengatik batik batik, baina bestela, ibilbidea oso polita da eta umeekin egiteko oso ondo dago. Horrekin lotura, gaur egin dugun zatitxo Gerriko Berdearen parte da eta bergarrendako ez ezik, kanpotik datozenendako ere oso ondo dago. Izan ere, ibilbide osoak herriari buelta ematen dio, altuera batetik, eta herria ikusteko oso modu atsegina da".



GURUTZE, NEREA, TELMO, JON, MADDI, LEIRE, HAIZEA ETA AURITZ

"Familiarekin eta lagunekin batera naturaz gozatzeko eta sentsibilizazioa lantzeko aukera ona izan da Udalak antolatu duen hau. Eguraldia lagun dugula oso goiz polita pasatzen ari gara, eta gainera, zuhaitzak landatuz, naturaren alde ere gure hazitxo jartzen dugu. Umeekin etorrira, bestalde, eurek ere ondo pasatzeaz gain, natura errespetatu behar dela erakusteko bide bat ere bada. Aisialdirako oso ekimen polita iruditzen zaigu".

ARETXABALETA ETA OÑATI

Azken mauskak eskaini dituzte asteburuan

M.B. | ARRASATE

Aretxabaletan Ixadebalde merkealdi azoka egin zuten zapatuan. Aretxarte Merkatarien Elkarteko 13 denda batu ziren Iturrigorri pilotalekuan udazken-neguko mauskak, eta haiekin batera, Kurtzebarriko ikasleek ere bigarren eskuko

gauzen postua jarri zuten, ikas-bidaiarako dirua ateratzeko. Gainera, umeendako tailerrak ere egin zituzten. Aretxarteko kide Sonia Moralesen esanetan, zenbaitek ondo saldu zuten bazuten ere, orokorrean, "aurreko urteetan baino floytxoagoa" izan zen azok eguna. Giroa

gehiago osatzeko, musika eta dendariek eurek kudeatutako taberna ere jarri zuten.

Oñatin ere outlet azoka egin zuten bariku eta zapatuan. Txanda elkartekoez kalera atera zituzten denboraldiko azken mauskak.



ARRASATE

SEVERINO MORON

Lehen saria Caritasen jantokira

Egubakoitzean Arrasateko pilota taldeak bere zozketako sariak banatu zituen. Bigarren sariaren bi bisiguak Sabino Llodioek eraman zituen etxera, baina lehen sariaren irabazlerik agertu ezenez, saria Caritasen Arrasaten duen jantokiarentzat izan da. Lehen saria angula kilo bat zela kontua izanda, Eguren arrandegiak, kilo horren kostua arrain freskoan emango dio Caritas Arrasateko jantokiari.



Ixadebalde azoka Iturrigorri pilotalekuan egin dute. | IMANOL SORIANO



Postuak kalean Oñatin. | T.M.



Udal azokak geltokia izango du apirilaren 8a ezkerro, astelehenetan eta eguaztenetan (09:00-13:00). | JOKIN BEREZIARTUA

Hiri autobusak geltoki berriak izango ditu laster

San Josepe auzoan eta azokan geldione berriak; Institutuan, zerbitzu berezia

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Mugikortasun Planaren barruan, garraio publikoaren erabilera bultzatzeko apustua egin zuen Udalak aspaldi. Horren adieraz-

le da apirilaren 8a ezkerro bi geltoki berri izango dituela autobus urbanoaren ibilbideak: San Josepe auzoan eta udal azokan jarriko dira geltoki berriak. Mugikor-

tasun jasagarria bultzatzeko beste ekimen bat da honakoa, unibertsitate inguruan TAO jarri edo alde zaharrean oinezkoei lehenetsuna ematearen alde due-

Erguin auzoko eguneko zentroa asteon hasiko da funtzionamenduan, Aldundiak jakinarazi duenez

Gertu dago Erguin auzoan buruko gaitza dutenendako eguneko zentroa. 2011ko abuztuaren 10ean hasi ziren lanak, eta 2012ko otsailaren 7an amaitu. Dagoeneko erabilgarri dago, eta, inaugurazio eguna zehaztu barik badago ere, erabiltzaileak asteon hasiko dira zentroan sartzen: "Inaugurazio ofiziala egin aurretik, erabiltzaileak zentro berrira ohitzea gura dugu. Gaixotasun psikologikoak dituzte eta egun batzuk beharko dituzte leku berrira egokitzeko", adierazi dute Aldundiko Ongizate Saitetik.



Erguin kaleko 19. zenbakian dagoen eguneko zentroa. | J.B.

Mugi txartelaren gainean informatzeko aukera egongo da gaur eta bihar BAZen, goiz eta arratsalde

Mugi txartelaren gainean informazioa jasotzeko aukera egongo da gaur eta bihar BAZen, goiz eta arratsalde -10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara-. Hilaren 1ean etorri ziren Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako ordezkariak, baina, informazioarako beharra dagoela ikusita, itzuli egingo dira.

OHARRAK

STOP KALERATZEAK

Debagoieneko Stop Kaleratzeak Plataformak sinadura bilketa deitu du hilaren 14rako Seber Altube plazan (19:00). *Kreditua amaitzen ari zaizue* lelopean batuko dira sinadurok.

1972AN JAIOTAKOAK

Apirilaren 13an egingo dute ospakizuna. Izena eman behar da apirilaren 3a baino lehen, 3008 0253 43 2515454813 kontuan 50 euro sartuta. Seber Altuben elkartzeko dira, 13:00etan.

Wert legearen kontrako euskal erantzuna

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

Euskal Herrian Euskaraz, Ikasle Abertzaleak eta AED elkarteko gazte taldeek prentsaurrekoa eman zuten Wert legeak euskararen inguruan izango duen eragina salatuz. Hiru taldeen ustetan LOMCE legeak "orain arteko murgiltze eredu bera ere zalantzan jarriko du". Horretaz gain, legeak euskara espezialitateko ikasgaitzat joko du eta "gaztelania eta atzerriko hizkuntzak baino atzerago" egongo dela ere salatu zuten agerraldian.

Adierazi zuten moduan, martxoaren 2an, euskal sektore desberdinek antolatuta hainbat deialdi egin ziren Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan guztiak ere aldarri bakarrarekin *Murrizketarik ez, LOMCE ez, Euskal Herrian gure hizkuntza!*. Arbolapetako agerraldian "herritarrek hizkuntza eskubideen alde lan egitera deitu nahi ditugu", alda-



Egubakoitzeko Arbolapetako agerraldikoa. | IMANOL GALLEGU

rikatu zuten. Honekin batera, euskal erakunde eta instituzioei "ausardia" ere eskatu zieten.

Amaieran, herritarrei EHEK urtero antolatzen duen Euskaraz Bizi Egunerako gonbita egiteko

ere erabili zuten agerraldia. Aurtengo Auzoaren izango da eta *Ez zaitez espaloitik jaitsi. Euskaraz bizi!* lelopean, apirilaren 13an euskaltzale guztiak festa horrekin bat egitera animatu zituzten.

Felisa Axpek 100 urte bete ditu: zorionak!

Dotore-dotore eta umore on paregabearekin bete zituen Felisa Axpe arrasatearrak 100 urte hilaren 7an. Familiakoan, Iturbide egoitzakoan eta Udalaren partetik jaso zituen opariak; besteak beste, loreak eta zapi eder bat jaso zituen. Adin horretara heltzeko sekretua lan asko egitea dela kontatu zigun. Zorionak eta urte askotarako, Felisa!



TXOMIN MADINA

DATUA

14.164

EURO HIRU GELTOKIETARAKO

San Josepen eta azokan geltokia jartzeak eta Instituturako zerbitzua luzatzeak 14.164 euroko gastua izango du, guztira.

Diru partida ezberdinak

San Josepe auzora urbanoa eramateak 9.196 euroko kostua izango du urtean eta zerbitzu osoaren ordutegi eta ezaugarri berak izango ditu. Azokako geltokiak, berriz, 1.094 euroko gastua suposatuko du urtero autobusa eguzten eta egubakoitzetan pasako da bakarrik, 09:00etatik 13:00etara. Aipatu beharra dago gastu hori Bagara Udalarekin batera gauzatzen ari den Azoka biziberritzen proiekturako partidaren barruan kokatzen dela. San Josepekoa eta Instituturako garraio publikora bideratuko partidaren barruan dago. Azkenik, Instituturako zerbitzu bereziak 3.874 euroko gastua suposatuko du urtero.

Zuhaitz Eguneko landatzea herriko erreka inguruak berreskuratzeko

Herriko seigarren mailako ikastetxeetako gazteak Markulete inguruko erreka inguruan ibili ziren

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Egubakoitzean ohikoa baino zalaparta handiagoa zegoen Garagarzara doan bidegorrian. Herriko ikastetxeetako seigarren mailako gazteak zuhaitzak landatzeko prest zihozten, bidegorriko isiltasuna apurtuta. Markulete ingurura iritsi bezain laster, aitzurrak hartu eta gogotsu hasi ziren zuhaitzak landatzen.

Udalako Ingurumen Eskolako irakasle batek argitu zigunez, ia 100 zuhaitz landatu zituzten: "Erreka zati hau berreskuratzeko, haltzak, altzifreak eta erramuak ekarri ditugu", guztiak bertakoak. Zuhaitzak handitzen direnean, erreka inguruak hobetzeaz gainera, ondotik igarotzen den bidegorri zatia ere hobetzen lagunduko dute.

Gazteek errekararen albo banatan landatu zituzten, eta, Arizmendikoek bidegorria babestuko duten zuhaitzak landatzen zituzten bitartean, herri eskolakoek beste aldean errepide inguruko



Markulete inguruan zuhaitzak landatzen. | IMANOL GALLEGO

zuhaitzekin gauza bera egin zuten. Azken horiek autoen zarata txikitzeko balioko dute.

Guztiok batera giro polita

Egubakoitzekoa "oso esperientzia ona" izan zela zioen ikasle batek,

aitzurra eskuan zuela. Gainera, eta egindako landaren ordainetan, bertaratu ziren ikasle guztiak txorizo-ogitarrekoak jan zituzten. Hori gutxi balitz, Udalak eskolarako zorro jasagarri bana eman zien ikasleei.

MANEX CARABIAS



"Natura gustuko dut eta honelako ekintzen bitartez hura zaintzen ikasten dugu. Gehiagotan egin beharko genituzke horrelako gauzak".

PAULA RODRÍGUEZ



"Ekintza hauen bitartez, ingurumena zaintzen ikasteaz gainera, gizarte osoari mesede egiten diogu. Natura zaindu beharreko zerbait da".

AITOR SANJERONIMO



"Niri asko gustatu zait. Lehen aldia izan da eta zuhaitz bat lagunekin landatzea dibertigarria izan da. Ea ekintza errepikatzen dugun!".



JOKIN BEREZIARTUA

1925ean jaiotakoan ospakizuna

Urtero moduan, 1925ean jaiotako –1946ko kintoak– arrasatearrak mahaiaren bueltan elkartu ziren. Hain zuzen ere, zapaturako egin zuten hitzordua: egun berezia hasteko, guztiak meza entzutera joan ziren, eta, horren ostean, Buenuena jatetxean egin zuten ospakizun bazkaria. Mahaiaren inguruan zeudela aprobetxatuz, bertan hasi ziren aspaldiko kontuez berba egiten. Eguna amaitzeko, eta urtero moduan, giro ederrean igaro zuten euren kintada.

Larrialdietarako hiru desfibriladore ditu Udalak

Otsailean bihotzekoak eman zion pertsona ondo dago, "azkar eta ondo" erreakzionatu zelako

J.B. | ARRASATE

"Kirola egiten ari zen gimnasioan eta makina baten ariketa amaitu ostean izerdia garbitzera zihoala lurrera erori zen, konortea galduta". Hitz horiek izan ditu Arrasate Irratian Larraitz Sanzberrok, Aukeako gerenteak, otsailaren 5ean Musakolako kiroldegiko erabiltzaile bati emandako bihotzekoaren berri emateko.

Aukeak eskerrak eman gura dizkie "une zail" horretan lagundu zuten guztiei: "Halakoetan oso garrantzitsua da azkar eta ondo erreakzionatzea, eta hala egin zen. Lehen minututik oso ondo egin zen lan", dio Sanzberrok. Bihotzeko masajea eman ostean, sorosle batek kiroldegian dagoen desfibriladore automatikoa hartu eta aplikatu egin zion. "Erabateko talde lan eder"

horri esker bihotzekoa izan zuen erabiltzailea ondo dago orain: "Larrialdi zerbitzukoek posta bidez esan ziguten azkar eta ondo egin zela lan, denen erreakzioa zoriontzekoa izan zela".

Formakuntza jaso dutenek

Euskal Herrian ez da derrigorezko desfibriladorea erabiltzeko ikastaroa. Ordenagailu txiki baten modukoa da eta aparailuak esaten du zeintzuk diren jarraitu beharreko urratsak: "Gure desfibriladorea aparailua erabiltzeko formakuntza jaso duen langile bati utziko genioke hurrengo batean ere gertatuko balitz", adierazi du. Udalak hiru aparailu ditu gaur egun: bata Udaltzaingoa, beste bat Iturbide egoitzan eta beste bat Musakolako kiroldegian.

Sei Urte taldea hurrengo Kooltur saioan, egunean

ANE ETXEBERRIA | ARRASATE

Eguenero egiten duten Kooltur saioko hurrengo protagonista Sei Urte taldea izango da. Musika talde berriztarra martxoaren 14an izango da Gaztetxean, 22:00etan, *Atlantida* diskoko abesti sorta aurkezten.

Kaleratu berri duten sei garren diskoan aldaketa igar dezake entzuleak; izan ere, "pop-rockari seriotasun sendoa erantsi" diote. "Ahotsak ez dira horren gardenak, baina melodiaren indarrak ez dute galdu."

Sei Urte taldearen ustez, "diskoaren entzunaldiek ausardia eskatzen dute"; aldaketaren bidea, beraz, eraikia dago. Sarrera 5 euro izango da.

Martxoaren 12an iritsiko da Laburbira Arrasatera

I.G. | ARRASATE

Topaguneak sustatutako film laburren X. zirkuituaren emandian martitzenean izango da, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian, Korrika Kulturaren barruan. Zinema emandian doakoa izango da, eta bertan, euskal herrian ekoiztutako zortzi film labur eskainiko dituzte.

Sormena, dokumentala, fikzioa, animazioa... genero guztiak izango dute lekua AED elkarteak Kulturaten martitzenerako antolatu duen emaldian.

Bertan eskainiko diren film labur guztiak, gainera, 2012tik hona ekoiztutakoak dira. Hori gutxi balitz, film laburrak hainbat lehiaketatan sariak jasotakoak dira.

Goiena i-rent
Ibilgailuen alokairua



IBILGAILUA NAHI DUZUN TOKIRA ERAMANGO DIZUGU:
- LANTOKIRA
- ETXKO ATARIRA
AIREPORTUKO ZERBITZU EZIN HOBEA.
IBILGAILU-FLOTA ZABALA.

AUTOAK, EGUNEKO, 19,95 €TIK AURRERA.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK:

943 71 66 52 / 619 44 71 75

info.goienarent@i-rent.es
www.goienarent.com



Hondakinak gaika botatzeko zakarrontziak dagoeneko kalean dira

Zakarrontzi zaharrak kendu, konpondu, berritu eta margotu ostean berriro jarri dituzte kaleetan

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Udala hasi da kalean ere hondakinak gaika jasotzeko zakarrontzi koloredunak jartzen. Auzo eta kale ezberdinetan ekin diote hondakinak gaika batzeko kaleko sistemari: "Jendea apurka-apurka ohitzen joatea nahi dugu horregatik auzo guztietan ekin

diogu gaikako zakarrontziak jartzeari", adierazi du Iñaki San Jose Bergarako Udaleko brigada buruak.

Orain arteko zakarrontzi zaharrak erabili dituzte horretarako: "zaharrak kendu, konpondu, berritu eta margotu ostean berriro jartzen ditugu", azaldu du Briga-

da buruak. Udalak prozesu guztia amaitzeko data zehatzik ez duen arren lanak "erritmo onean doaz, egunero 80 bat zakarrontzi kentzen ditugu", azpimarratu du San Josek.

Prozesua erraza da, kale bat aukeratu ostean, bertako zakarrontzi gehienak kentzen dituzte eta 48 orduren bueltan berriro jartzen dituzte. "Tokia ez dugu zoriz aukeratzen, aurretik zabor-biltzaileekin hitz egiten dugu eta zabor gehien pilatzen den puntuetan jartzen ditugu gaikako bilketa egiteko zakarrontziak" San Josek aipatutako irizpidez gain, mugikortasun arazoak ere erabiltzen dira. Gurpildun aukiek eta zabor-biltzaileen, nahiz haur karrotxoei ere pasatzeko tokia uzten zaie.

Jendearen erantzuna

Oraindik goiz da datu orokor bat emateko, baina brigada buruak argi dauka: "Jendeak begi onez ikusten ditu". Zenbait kasutan ontzi bakoitzean zer bota behar den ongi jakin ez arren, jendeak oso iritzi positiboa dauka "ez da ezer kostatzen eta ingurumenababesteko balio du" zioen herritar batek.



Gaikako zakarrontziak Martinez de Irala ikastetxearen ondoan. | IMANOL SORIANO

Ze bota behar da zakarrontzi bakoitzean?

Udalak zakarrontziak launaka multzokatu ditu eta herritarrei lana errazteko horietako bakoitzak marrazki nahiz izena izateaz gain, zakarrontzi kolore ezberdinak dituzte. Zakarrontzi marroia hondakin organikoarena da, urdina papera eta kartoiarena, zakarrontzi horian ontzi arinak sartu behar dira eta grisa, berriz, errefusari dagokio.



Organikoaren zakarrontzia. | J.I.



Paperaren zakarrontzia. | J.I.

MARROIA, ORGANIKOARENA

- ▶ Fruta azalak.
- ▶ Ogitartekoaren sobrak.
- ▶ Mukizapiak.
- ▶ Txotxak.
- ▶ Egurrezko izozki makilak.
- ▶ Fruitu lehorren azalak.

URDINA, PAPERARENA

- ▶ Egunkariak.
- ▶ Aldizkariak.
- ▶ Tiketak.
- ▶ Eskuorriak.
- ▶ Kartoizko bilgarriak.
- ▶ Kartelak.



Ontzi arinen zakarrontzia. | J.I.



Errefusaren zakarrontzia. | J.I.

HORIA, ONTZI ARINENA

- ▶ Ur botilak.
- ▶ Jogurt poteak.
- ▶ Plastikozko bilgarriak.
- ▶ Aluminio papera.
- ▶ Edari latak.
- ▶ Zuku tetrabrikak.

GRISA, ERREFUSARENA

- ▶ Boligrafoak.
- ▶ Zigarro-mutxikinak.
- ▶ Pixohialak.
- ▶ Txikleak.
- ▶ Gozoki makilak.
- ▶ Garbitasun eskuzapia.

Matxalen Legarreta | EHUko Soziologia irakaslea

"Berdintasuna lortzeko pauso txikiak eman behar ditugu egunero"

Gizonen eta emakumeen denbora erabileraren inguruko hitzaldia egin du

ANE ETXEBERRIA | BERGARA

Matxalen Legarreta (Igorre, 1977) gaur egun Soziologia irakaslea da EHU. Emakumeen Egunarekin lotuta Bergaran izan da hitzaldia egiten.

Emakumeen eta gizonen arteko denbora banaketa desberdindua zure tesiaren ildoa eta hitzaldia- ren oinarria izan da; nolatan jorratu duzu gai hau?

Kasualitatez jorratzen hasi nintzen gaia da, zerbaitetarako balio duen zerbait egin nahi nuen; hala, denboraren banaketa era desberdinean nola egiten den aztertzen hasi nintzen. Denbo-

raren esanahia zein den aztertzea da helburua, eta proposatzen dut etxeko lanaren eta zaintza lanaren dohaintza denboraren begiradatik aztertzea. Berdintasunezko gizarte baten bizi garelako uste dugu, baina datuek ez dute hori esaten.

Zaintza lanaren eta lanaren inguruko mitoak daude oraindik ere? Bai, hala da, eta hori izan da nire helburua, etxeko lanaren eta zaintza lanaren inguruko mitoak deseraikitzea. Askotan esaten dugu zaintza lana eta etxeko lanak maitasunez eginko lanak direla emakumeok



Legarreta, tesi liburuarekin.

hobeto egiten ditugulako emakumeak garelako, baina horrek ez du zertan horrela izan.

Berdintasunera iristeko zein pauso eman behar dira, zure aburuz?

Lehenengo, ezberdintasuneko kontzientzia hartu, eta gero, paper garrantzitsu bat jokatu

"Arriskutsua da lan gehiago egin behar ez dela pentsatzea"

behar dugula guztiok, bai banakook gure egunerokotasunean etxean, lanean... baita gizarte mugimenduek euren praktikan... Gizarteak pausoak eman beharko ditu, baina lan-merkatuan ere aldaketak izan beharko dira; izan ere, gaur egun lan-merkatuak dituen eskaerekin ezinezkoa da etxeko lana eta zaintza lana era ekitatiboan gertatzea.

Hainbat herritar hitzaldiak egiten zabilta; zein da herritarren jarraera?

Oso positiboa; gehienetan, gainera, hitzaldietara etortzen direnak emakumeak dira eta ikusten dute eurek egiten duten horrek badaukala lekua unibertsitatean. Askotan, herritar egiten dira ezberdintasun hain nabarmenek oraindik ere nola bizi irauten duten ikusita.

Mezurik bidali nahi?

Berdintasunaren aldeko borroka ez da egun bakar bateko kontua, gaur egun sinbolikoa da eta beharrezkoa da kalera ateratzea, baina egunerokoan egin behar dira berdintasunaren aldeko apustu txikiak.

Pazkoak antolatzekeo batzar irekia dago bihar

M.B. | BERGARA

Udaleko Kultura Zerbitzua aurtengo Mendekoste jaien antolaketa lanetan hasia dago. Aurten Mendekosteak maiatzaren 17tik 21era ospatuko dira, eta hain zuzen ere, Kultura Zerbitzutik herritar guztiei, banakako zein talde ezberdinei, deialdia luzatzen diete Mendekoste jaiak antolatzekeo egingo den bilera irekian parte hartu dezaten.

Kultura zerbitzutik aurreratu dute proposamen guztiak ongi etorriak izango direla eta gehitu dute: "Ea denen artean egitarau txukun bat egiten dugun".

Batzarra bihar, martxoak 12, izango da, 19:00etan, kultura etxean.

Lau hilabetean, urte bakarreko turista kopurua bikoiztu egin du Bergarak

Negu partean 40 autobusetik gora jasotzen dihardu udalerriak

JONE ALBENIZ | BERGARA

Lehen oso bisita turistiko gutxi ziren Bergarako udalerrian egiten zirenak. Bada, egoera hori aldatzeko asmoarekin, azken bi urteotan Bergarako Udalak, Mankomunitatearekin batera, garatutako proiektua martxan jarri dute aurtengo neguan.

Hain zuzen ere, urtarrileko bigarren hamabostaldiaz geroztik, turistei harrera egiteko proiektua da martxan dagoena. Bereziki, Imerso erakundearen bitartez, Kataluniako eta Espainiako ehunka erretiratu igaroko da Bergararik datozen hilabeteotan.

Orain arteko datuek erakusten dute oso arrakastatsua izaten dabilena ekimena. David Zapirain Turismo teknikariaren esanetan, "40 autobusetik gora" jaso dituzte; zebakitan, "2.000 bisitari baino gehiago". Guztiak ere, esandako moduan, Imersorekin elkarlanean erakarritakoak. Eta zenbakietatik harago, bisitariak ere "oso erantzun positiboa" eman diote ekimenari.

Formazioa eta materiala

Orain arte Bergara bisitatu duten turista gehienak Kataluniatik



Imersoren bitartez Bergarara etorritako Zamorako turista talde bat martitzenean Bergaran. | ENEKO AZKARATE

eta Madrildik etorri dira, nahiz eta Iberiar penintsulako toki guztietatik ere etorri izan diren: Andaluzia, Mallorca, Oviedo... "Tour horiek bidaia agentziek antolatzen dituzte; turistak euren kabuz ez ibiltzeko, berriz, Bergarako Udala bisitariari herria erakustez arduratu da. Eta herria bera erakustez gainera, harrera

egin eta turisten gidariekin ere lan egin dugu, haiei formazioa eman eta materiala eskainiz", dio Zapirainek.

Bisita horien bitartez, jakina, Bergararen balioa azpimarratzen saiatu dira. Horri esker, "Bergara behar den tokian daukate, goi mailako tokian, hain zuzen ere. Bergararrei sines-

gaitza iruditu ahal zaien arren, herria oso ezaguna da ondare edo kultura esparruan ibiltzen den jendearentzat".

Turistek Bergarari buruz zer nabarmentzen duten galdetzean, zera dio Zapirainek: "Herriko monumentuez gainera, bertako gune berdeak nabarmentzen dituzte, eta, orokorrean, herria-

ren historiak berak harritu egiten ditu: *Bergarako besarkada*, seminarioa eta kolore urdina dira nabarmentzen dituztenetako batzuk, besteak beste. Horien berri badute...".

Horrekin batera, hondakinen kontuarekin jakin-min handia erakusten dute, eta krisiaren eraginik ez ikusteak ere harridura pizten die. Bisitariak diotenez, "oso maila altuan" bizi dira bergararrak.

Egunetako egonaldiak

Bisita horiek aprobetxatuta, arlo ekonomikoari ere bultzada eman nahi dio Bergarako Udalak, Zapirainek dioenez. Horretarako, ostalari, tabernari zein herriko gozogleekin harremanak sendotu nahi dituzte. Horrekin lortu nahiko lukete, besteak beste, bisitariak denbora luzeagoan egotea herrian.

Museoa, erreferente

Bergarako eskaintza turistikoaren borobiltzeko, erreferente bat ere sortu nahi dute herrian: Errege Seminarioaren zientzia bildumaren eta Bergarako historiaren ezaugarrien museoa, hain zuzen ere. Proiektu horren kokapen posibleetako bat Errekalde jauregia da. Oraingoz, "mahai gainean dagoen asmoa" besterik ez da, hala ere.

Aurtengo udal aurrekontuetan, proiektu hori lantzeko diru zati bat (40.000 euro) aurreikusi dute. Museo hori da Bergarako herriak aspalditik duen aldarrikapen bat.

Fabrikazio mekanikoa, informatika eta beste, Hobetuzen bitartez

Gaur, astelehena, hasiko dira ikastaroak, Miguel Altuna Institutuan, arratsaldean

M.F. | BERGARA

Miguel Altuna Institutuak, Hobetuzen bitartez, doako ikastaroak egiteko aukera iragarri du.

Ikastaroak martxoan eta apirilean izango dira, eta langileendako eta langabeendako. Leku libreak geratzen dira, langileentzat gorderik daude, bereziki.

Arlo ezberdin ugari

Lan esparruko hainbat ikastaro eskaintzen dira: fabrikazio mekanikoari dagokionez, 40-80 ordu bitarteko lau ikastaro eskaintzen dira eguerdi-arratsaldeko ordutegian. Elektrizitate arloan, 50-60 ordu arteko bi ikastaro. Administrazioa eta informatikan 30 orduko bi ikastaro, eta 90 orduko bat arratsaldean, eta, besteak beste, hotzeko estanziozko oinarriko prozesua,

diseinua eta makinaren doikuntza, Forge aurreratua eta erremintzen analisia, eta, azkenik, hotzeko eta beroko forjako simulazio formazioa. Ikastaro horiek izango dira aukeran.

Lehen ikastaroak gaur, astelehena, hasiko dira. Gainontzekoei begira, berriz, interesa duenak ahalik eta lasterren eman behar du izena

Aurkeztu beharrekoa

Izena emateko, baina, bada aurkeztu beharreko dokumentazioa: langabeek Darde agiria aurkeztu beharko dute eta lanean ari direnek, aldiz, enpresaren izena eta enpresaren IFK. Hala ere, zalantzaren bat izanez gero, ondorengo telefonora dei daiteke: 943 76 70 49. Edo, bestela, honako helbidera idatz daiteke: ikastaroak@imaltuna.com.

Gure Ametsa elkarteak 40 urte bete berri ditu

M.F. | BERGARA

Gure Ametsa elkarteak 40. urteurrena bete du martxoan. Hori ospatzeko, martxoaren 11tik 15era zenbait ekitaldi antolatuta dituzte.

Astelehenetik ostiraleira, Gure Ametsa elkarteari eta San Antonio auzoari buruzko argazki zaharren erakusketa izango da: 16:00etatik 20:00etara, Gure Ametsan.

Martxoaren 14an, ostegunean, berriz, arratsaldeko zortzietan, *Kanalejas tabernako hegazkina*-ren eta Simon Arrietaren margo erreproduzioaren inaugurazioa izango da. Ondoren, Juan Luis Bikuñaren eskutik, hegazkinaren eta elkartearen historiari buruzko hitzaldia eta ekitaldiei amaiera emateko, lancha.



SAN MARTIN ESKOLA

Txirri, San Martin Agirre eskolan

Ostegunean, hilaren 7an, Txirri (Fernando Ruiz, Bergarako San Martin Agirreko irakasle dena) 2-6 urte bitarteko Haur Hezkuntzako ume eta irakasle guztiekin izan zen. Bere ispilu magikoaren aurrean makillatuz, Euskal Herrian hain famatua den Txirri pailazo zelan bihurtzen zen erakutsi zien guztiei. Eraldaketa emanaldiaren bi saio izan zituen, goizean 10:30ean eta arratsaldean 15:00etan. Kantuak ere abestu zituzten.

ZUHAIZTI

BERRIZ ERE ZABALIK!

- Menuak eramateko edo bertan jateko.
- Bokadilloak / Sandwich-ak / Hanburgesak
- Errazioak
- Plater konbinatuak
- Oilasko erreak eramateko.

Espoloia 6 - BERGARA - Tel.: 943 76 59 22

Isabel Arenatza eta Kizkitza Alustiza | Oñatiko osasun zentroko erizainak

"Elikadurak eta ariketa fisikoak lotura dute diabetesarekin"

Diabetes motak, bakoitzaren ezaugarriak eta elikadura egokia zein den azalduko dute Arenatzak eta Alustizak etzi zinema aretoan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Diabetesa. Ondo jan, ondo bizi izenburuko hitzaldia antolatu du Debagoieneko ESIk. Eguaztenean izango da, martxoak 13, 19:30ean, zinema aretoan.

Zer da diabetesa?

Metabolismoan gertatzen den gorabehera bat da. Gorputzeko zelulek beren bizi prozesuen garapenerako glukosa barneratu behar dute, eta diabetesen kasuan ez da hori gertatzen, pankreak ez baitu behar adina insulina sortzen, eta intsulinarik gabe ezin da glukosa zelulen barnean sartu. Glukosa odolean pilatzen da, eta hipergluzemia deritzoguna sortu.

Zer gertatzen da gorputzean?

Organismoak funtzionatzeko behar duen energia murriztuta

ikusten du eta gorputz atal desberdinetara odola eramaten duten baso handi eta txikietan arazoak sortzen hasten dira, eta begi, giltzurrun, bihotz, nerbio eta oinen gaixotasunak azaldu.

Zer motatako diabetesak daude?

I erako *diabetes mellitusan* (intsulina mendekotasuna edo haurgazteena), erabateko intsulina gabezia dago, eta gaixoak intsulina xiringak beharko dituzte

"Batzuetan analisietan antzematen da, sintomarik barik"

glukosa zeluletara pasatzeko.

II erako diabetesean (40 urtetik gorakoetan gertatzen da eta pisuak zerikusi handia du) ez dago erabateko intsulina gabeziarik; ondorioz, gaixoa dieta eta pastillen bidez kontrolatuko da. Kasu batzuetan, haiek ere intsulina beharko dute.

Zeintzuk dira sintoma nagusiak?

Normalean, II erako diabetesak ez dauka sintomarik eta analisi arruntetan antzematen da. Hala ere, batzuetan honako sintomak agertzen dira: pixa asko egitea, ur asko edatea, gose handia izatea eta neke handia.

Nola diagnostikatzen da?

Analisietan, odolean dagoen glukosa kantitatea 110etik gora bada, birritan, pertsona diabetikoa dela esan daiteke.



Isabel Arenatza eta Kizkitza Alustiza, osasun zentroan, egubakoitzean. | O.E.

Zein garrantzi du elikadurak?

Ariketa fisikoarekin batera garrantzi handia dauka. Arau nagusi bezala esan daiteke diabetesaren dietak askotarikoa, bariatua, izan behar duela. Beraz, komenigarria da gogoraztea zeintzuk diren elikaduraren printzipio nagusiak eta ondoren diabetesa dutenek zein aldaketa egin behar dituzten jakitea.

Zertan oinarrituko da hitzaldia?

Gure hitzaldia elikagaien ezagutzan oinarrituko da. Horretaz

gain, jateko neurriak, jakiak nola konbinatzen diren ikasi eta nola sukaldatu ere erakutsiko dugu.

Azkenean, alimentuen piramidearen erreposoa egingo dugu.

Norendako da hitzaldia?

Herritar guztiendako dago zabalik, bai diabetesa dutenendako eta baita ez dutenendako ere.

Gogoratu gura dugu eguaztenean izango dela, 19:30ean, kultura etxe zinema aretoan. Denak daude gonbidatuta.

TXALOAK ETA TXISTUAK

Zebra-bideak margotu dituzte Olakuan



Olakua auzoan zebra-bideak eta bestelako zirkulazio seinaleak –stopak,

esaterako– margotu dituzte.

Lehen ere egondako puntuetan margotu dituzte batzuk, baina baita toki berrietan ere; adibidez, argazkian ikusten den puntuan, Super BM dendaren ondoan.



OIHANA ELORTZA

Udaberriari ongietorria egingo diote Pake Lekun

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Udaberriari ongietorria egingo diote datorren astetik aurrera Pake Leku erretiratuaren elkartean. Hitzaldia, antzerkia, bingo berezia eta Mirandaolako Burdinolara irteera jasotzen dituen egitaraua prestatu dute.

Gaur zortzi, esaterako, hilaren 18an, *Kirola bizitza da* izeneko hitzaldia egingo da. Oñatiko osasun zentroko erizainen buru Isabel Arenatzak eta Kizkitza Alustiza erizainak emango dute. 17:30ean izango da, Pake Leku areto nagusian. Hurrengo egunean, berriz, hilaren 19an, *Yo por mi pueblo, cualquier cosa* izeneko antzezlan egingo du Gernikako erretiratuaren elkarte Gure Arbola Zaharra antzerki taldeak. Santa Anan izango da emanaldi hori, 17:30ean.

Mirandaolara irteera

Bestalde, hilaren 21ean bingo berezia egingo dute, opari eta guzti, eta 22an Mirandaolara txangoa. Irteerara joan gura duenak txartela hartu behar du aurrez. Horretarako egunak dira: martxoaren 14a eta 15a, 18:30etik 20:00etara. 5,5 euro balio du txartelak.

Irteera goizean egingo dute eta arratsaldean urteko batzar orokorra egingo dute eta zuzendaritzako kide berriak aukeratzeko dituzte.

Urbasa inguruetara egingo du irteera domekan Aloña Mendik

Urbasa inguruak ezagutzeko irteera egingo du Aloña Mendik domekan, hilaren 17an.

Irteera horretan, Urbasako goi lautadak zeharkatuko dituzte, Urederra ibaiaren sorburura heltzeko. Hasiera Lizarraga gainean dagoen Zumbeltz bentan izango da. Zuzenean Dulantz ton-torrera abiatuko dira. Pilatosen Balkoia amildegira hurbilduko dira gero eta Urederra ibaiaren sorburura jaitsiko dira, azkenik. Bukaera Bakedano herrian izango da. Guztira, 20 kilometro inguruko ibilbidea izango da, 600 metroko desnibelarekin; bospasei ordutan egiteko modukoa. Izena eguna baino lehen eman behar

Karting irteerara joan gura duenak izena eman behar du

Aurten ere antolatu du gaztelekuak karting irteera. Martxoaren 23an izango da irteera hori, Gasteizera, baina joan gura duenak aurretik eman behar du izena. Horretarako azken eguna martxoaren 15a da, egubakoitza. Aurreko edizioetan bezala, aurten ere bi zatitan banatuko dute irteera: lehenik, bide-hezkuntza saioa egingo dute gidatzeko arautegia eta kontuan hartzekoak ondo barneratzeko; eta bigarren zatian, gidaketa librea egingo dute. Irteerara joateko, beharrezkoa da gurasoen baimena. Bazkaltzeko norberak eraman behar du.

Jaengo martxarako autobus txartelak salgai daude Arranon

Datorren zapatuan, hilak 16, Jaenerako martxa antolatu du Oñatiko Herrirak, Xabin Usandizaga preso oñatiarrari elkartzuna adierazteko. Autobusez egingo dute irteera, eta txartelak dagoeneko salgai daude Arrano tabernan.

Jaenerako martxa Arrasateko Herrirarekin batera antolatu dute, Jesus Maria Zabarte arrasatearra ere hantxe dagoelako preso. Gainera, biei, bai Zabarteri bai Usandizagari, 197/2006 doktrina aplikatu diete. Elkartzuna adierazteaz gain, doktrina hori bertan behera uzteko ere eskatuko dute.

'Arrikruz, uraren taupadak' DVDa salgai dago zortzi eurotan

Arrikruz, uraren taupadak izeneko DVDa salgai dago Oñatiko Turismo Bulegoan eta Arrikruzeko Kobetan. Euskaraz eta gazteleraz ikusi ahal da DVD hori eta zortzi euro balio du.

Arrikruz, uraren taupadak dokumentalak 20 minutu irauten du eta Gesaltza-Arrikruz eta Jaturabeko galeriak erakusten ditu. Imanol Biain eta Kepa Aranburu dira egileak; bi urtean ibili ziren dokumentalean erabili duten materiala grabatzen. Palentzian egin zuten Cuevatour kongresuan aurkeztu zuten lan hori iaz urrian.

ARETXABALETAKO

Goroetako altxorrera bisita dago domekan

'Ezkutuko altxorrak' izeneko bisita gidatuetan Santiago elizako erretaula ezagutu ahal izango da



Goroetako Santiago elizako erretaula. | DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA

MIRIAN BITERI | ARETXABALETAKO

Aretxabaletako Goroeta auzoko Santiago elizako erretaula ezagutzeko aukera dago domekan, hilak 17, Debagoieneko Mankomunitatearen eskutik. Interesatuak egubakoitza baino lehen eman behar dute izena 943 79 64 63 telefono zenbakian edo turismo@debagoiena.net helbidean. Bi ordu dituzte bisitariak aukeran: 12:00etan eta 17:00etan. Irteera horren prezioa bi euro da.

Goroetakoa Santiagoren bizitziari eskainitako erretaula bakarra da Gipuzkoan; XVI. mendekoa. Ana Isabel Ugalde arrasatearrak artelan horren azterketa sakona egin du: *Santiagoren Ikonografia Gipuzkoan*. Besteak beste, jakinarazten du Miguel Perez de Sardaneta dela egilea, eta zurezkoa dela, trauskilki polikromatua, eta estiloz erromanista. Predelak, bi gorputzek, hiru kalek eta frontoidun atikoak osatzen dute. Bisita gidatua horren gaineko informazioa eskainiko dute.

Begirada taldearen 'Balitzen hioa' dago etzi Arkupen

Martxoaren 8aren harira Aretxabaletan antolatutako ekintzen barruan dago antzezlan

M.B. | ARETXABALETAKO

Begirada taldearen azken lana ikusi ahal izango da etzi, eguaztena, Aretxabaletako kultura etxean. *Balitzen hioa*-n izeneko antzezlanean, hitzen balioa abiapuntutzat hartuta, Ainhoa Agirreazaldegia, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Uxue Alberdi bertsolariak testu batean sakondu dute, eta horren harira prestatutako gidoi hori agertokira eroango dute Esti Curiel, Leire Ugarte eta Hodei Untze-

ta aktoreek. Ainhoa Alberdi arduratu da zuzendaritza lanak egiteaz.

Lau euro

Arkupeko Zaraia aretoan izango da ikuskizuna, 19:00etan; sarrerak lau balio du. Begirada taldearen antzezlan berria Martxoaren 8aren harira Aretxabaletako Gizarte Ongizate, Kultura eta Berdintasun sailek gertatutako egitarauaren barruan dago.

Korrika Eguna, mendi martxa eta herrien arteko mahai futbol txapelketa dute asteon gaztelekuan

Ekintzaz josita dago Aretxabaletako Atxagazte gaztelekuko martxoako egitaraua. Astebururako hiru hitzordu daude aurreikusita: egubakoitzean, Korrika Eguna; zapatuan, mendi martxa; eta domekan, herrien arteko mahai futbol txapelketako lehen kanporaketa. Azken hori Eskoriatzako gaztelekuan jokatu da. Bestalde, hilaren 22an eta 23an jaboigintza tailerra izango dute eta 24an, zinema foruma.

ESKORIATZA

Aste bukaerarako Luz Ardidenera eski irteera antolatu dute

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatza kirol elkarteak antolatuta, Frantziako Pirinioetan eskiatzeko aukera dago asteburuan; urtero moduan, Luz Ardidenera irteera gertatu dute. Izen-emeata eguenera arte dago zabalik (martxoak 14) herriko Namaste belar-dendan edo 943 71 43 27 telefono zenbakian. Antolatzaileek azaldu dute 135 euro balio duela bidaiak.

Prezio horretan sartuta dago autobusa, ostatua mantenu-erdian

eta bi egunerako forfaita. Materialaren alokairua eta aseguruaren ordainketa, berriz, norberaren esku geratuko da, baita eski pistetan jateko eroan behar dena ere.

Astebururako plana zein den azaldu digute antolatzaileek. Zapatuan 05:00etan irtengo da autobusa erdiko geltokitik, eta, bi egun eskiatzen eman ostean, domekan itzuliko dira; aurreikusitako 21:00 aldera iritsiko direla herrira.

Salgai daude zapatuko Korrika Egunaren bazkarirako txartelak

M.B. | ESKORIATZA

Zapatuan Eskoriatzan egingo duten Korrika Egunaren herri bazkarirako txartelak salgai daude Inkeru tabernan, 10 eurotan. Kontzejupean egingo dute, 14:30ean, eta bazkaldu ostean *Eskotribialean* arituko dira; hain justu, Eskoriatzaren eta euskararen gaineko galderak erantzun beharko dituzte parte-hartzaileek.

Martxoaren 14an Andoainen hasiko da euskararen aldeko lasterketa. 11 egunez, gelditu

gabe, Euskal Herria zeharkatuko du, hamazortzigarrenez, hilaren 24an Baionara heldu arte. Eskoriatzatik 21eko goizaldean igaroko da, 06:30ean.

Korrika Txikia eta gazte festa

Korrikaren bueltan, askotariko ekintzak gertatu dituzte datozten egunotarako herrian: zapatuan, esan bezala, Korrika Eguna; eta eguaztenean, martxoak 20, Korrika Txikia. Gaztelekuan ere festa egingo dute zapatuan.



GARBINE BEITIA

Haizeak eragindako kalteak

Egunotako haizeak kalteak eragin ditu osterara ere Eskoriatzan. Eguen arratsaldean izandako haize-boladek zuhaitzak bota zituzten Marin eta Zarimutz elizateetara doazen bideetan; ekaitzak, gainera, Zarimutz argi barik utzi zuen hainbat orduz. Goiko argazkia Maringo errepidean aterata dago; hain justu ere, AP-1 autobideko zubitik gertu.

Ez dago tokirik eguazteneko 'Ogia nola egin' tailerrerako

Harrera ezin hobea izan du etzi, eguaztena, Eskoriatzan egingo den *Ogia nola egin* tailerrak. Hamabi lagunendako tokia zegoen, eta, Udaleko Kultura Sailetik azaldu digutenez, zortzi lagun geratu dira kanpo; hori dela eta, apirilean ikastaroa osterara ere eskaintzekotan dabilta.

Esan bezala, etzi izango da ikastaroa, 18:00etan, herriko kultura etxean, erretiratuek kudeatzen duten sukaldean; euskaraz izango da esandako ikastaroa.

Parte-hartzaileek ogia egiteko prozesu guztia ikasiko dute tailerrean, hasieratik amaieraraino, baita ore egin eta gordetzen ere. Horretaz gainera, nork bere ogia eroango du etxean erretzeko.

'¿Dónde tenemos el sexo?' berbaldia dago Luis Ezeizan

Sexuari buruzko hitzaldia izango da eguenean, martxoak 14, Luis Ezeiza herri eskolan. Aldarte elkarteak eskainiko du, 18:00etan, ikastetxeko areto nagusian hasiko den *¿Dónde tenemos el sexo?* izenburupean egingo duten hitzaldia.



Herriko plazan egindako elkarretaratzea. | LARRAITZ ZEBERIO

ELGETA

Martxoaren 8ko kartel lehiaketak gero eta oihartzun handiagoa du herritarren artean

Lehiaketara aurkeztutako 14 kartelen artean sei Elgetatik aurkeztutakoak ziren; herritarrek gustura hartu zuten parte onena aukeratzeko prozesuan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Martxoaren 8ko ekitaldiak, Elgetan, bariku arratsaldean burutu ziren. Udaleko gizarte departamentuak iragarri moduan 18:00etan Bideberri Mankomunitateak deituriko kartel lehiaketara aurkeztutako lanak ipini ziren ikusgai herritarrek onena aukeratzeko. Hamalau kartelek osatu zuten erakusketa, askotariko estilo eta aldarrikapenekin. Besteak beste, *Batera hobe, Egunero emakume, Ez dago borrokarik gabeko garaipenik, Inoiz baino gehiago eskubide berdinak, Iratzarri, edo Berdintasuna bizi*. Kartel politikak zeuden, baina atentzioa deitu zuten euskara akats ugariek.

Herritarrek animatu ziren botoa ematera. Bideberri Mankomunitatea osatzen duten hiru herrietan ipini zen botoak jasotzeko kutxa. Hala, elgetarrekin batera antzularrek eta gatzagarrak ere aukera berdina izan zuten. Egunotan ezagutuko ditugu saridunak. Txokolate-jana, horma-irudi erraldoia eta elkarretaratzea ere egin ziren. Azken honetan 30 bat lagunek hartu zuten parte.



Bideberri antolaturiko kartel lehiaketara aurkeztutako lanak ikusten. | L.Z.



Ana Gillegi zinegotzia txokolate beroa banatzen. | L.Z.

LEINTZ-GATZAGA

Aste Santura begira, oraingo ez dute erreserbarik Gaztainuzketan

Hala ere, eguraldiak erreserba kopurua asko baldintzatzen duela azpimarratu dute

UBANE MADERA | GATZAGA

Bi aste besterik ez da falta Aste Santuko oporrak iristeko. Hala ere, ez dute opor giro larregirik somatu Gaztainuzketako txaboletan. "Ez dugu erreserba bat bera ere, ez jatetxerako eta ezta txaboletarako ere. Egia da, hala ere, gehiago funtzionatzen dugula egunetik egunera, eta pasadi-

zoan datozenek azken momentuan egiten dituztela erreserbak; eguraldiak ere zeresan handia izaten du. Adibidez, oraingo astebururako azken momentuan etorri zaizkigu zortzi lagun zapatuan. Baina esan moduan, Aste Santuari begira ez dugu eskaera bat bera ere jaso. Eta txaboletan langile batzuk izaten ditugu tarteka,

baina besterik ez", diote Gaztainuzketako maizterrek.

Menu bereziak

Edozelan ere, Gaztainuzketa erakargarri izateko ahaleginak egiten segituko dute. Adibidez, jate-txean eguneroko menuaz gainera, plater konbinatuak eta menu bereziak eskaintzen dituzte, "25 eurokoak. Jendeak diru konkretu bat ordaindu gura du, ez gehiago. Eta menu bereziak dira arrakasta handien izaten dutenak. Bestalde, Itziarko baserri batekoak gara, eta eguneroko menuan baserriko produktuak sartzen ahalegintzen gara", kontatu dute. Erreserbetarako: 943 71 51 64.

ARAMAIO

Estatutuak onartzeko bilera egingo du gaur Aramailur taldeak

Ofizialki elkarte eratu aurretik azken bilera izango da gaurkoa; kultur etxean, 19:00etan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramailur kontsumo taldea elkarte ofizial moduan sortzeko azken urratsak egiten dabil. Gaur bertan bilera egingo dute estatutuak onartzeko, eta elkarreko kide Jokin Orobengoak aurreratu duenez, elkarte ofizial gisa jaio aurretik egingo den azken bilera izango da gaurkoa. Bazkide guztiak daude deituta bilerara; kultur etxean egingo dute, 19:00etan.

Produktuen eskaintza azken hilabeteetako berbera da, ez da eta ekoizle berririk sartu. Hori bai, bertako zein Euskal Herriko produktuen zerrenda luzea da oso -30 produktu-; Aramaioko 17 produktu -marmelada, arrautzak, barazkiak,

txorizoa eta sagardoa, esaterako- eta Euskal Herriko 13-arroza, laranjak, olioia eta ardoa, adibidez- kontsumitzeko aukera dago gaur egun.

47 familia dagoeneko

Kultur etxea ia bete egingo da gaur, bazkide guztiak agertzen badira. Izan ere, egun 47 familiak osatzen dute Aramailur. Badira batzuk, duela hiru hilabete eskas 30 bat zirela kontuan hartzen badugu.

Baina atek zabalik daude oraindik. Orobengoak adierazi duenez, bazkideetza kanpaina ez da amaitu: "Bazkide berriei zabalik gaude; hori bai, ordurako onartuta egongo diren estatutuak errespetatu beharko dituzte".



Aramailur taldeak bazkideak erakartzeko egindako bileretako bat. | ARAMAILUR

ANTZUOLA

Etxeko konpostatzearen jarraipena egingo dute

Antzuolan, Bergaran eta Oñatin egingo dute jarraipena; ondoren, gainontzeko herrietan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Debagoieneko Mankomunitateak antzularrei jakinarazi nahi die etxeko autokonpostaren jarraipenaren gaineko kanpaina jarri duela martxan.

Helburua etxeko konpostaren egoeraren eta haren funtzionamenduari datu biltzea eta balorazioa egitea da. Jarraipen kanpaina Vermican enpresak egingo du. Hala, datozen asteetan, telefono deien bidez ekingo diote jarraipen kanpainari. Ondoren, bisitak egingo dituzte, konpostagailuen funtzionamendua eta egoeraren inguruko datuak jasotzeko asmoz.

Jarraipen kanpaina herriz herri egingo dute: Antzuolan, Bergaran eta Oñatin hasi, eta, ondoren, gainontzeko herrietara zabalduko da.

Kanpaina horrek Debagoieneko Mankomunitateko udalek epe tarte jakin batean banatutako kanpainen banatutako konpostagailuei eragingo die: 2005eko eta 2012ko kanpainen jarritako konpostagailuei eta datorren Aste Santura bitartean jarriko direnei, hain zuzen.


Bestalde, Mankomunitateak udaletan erregistratu gabe baina norbere kabuz konpostagailua duten herritarrei dei egin nahi die honen berri eman dezaten udalean.

Jarraipena egin, eta, hala balitz, dagokien hobaria aplikatuko diete.

Jendaurrean aurkezpena

Bihar, martitzena, 2012an batutako hondakinen datuen aurkezpena egingo dute. Olananean izango da, 18:30ean.

Debagoieneko GREMIOAK



AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

<http://merkatua.net/argiplastik>

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAITZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

KIROLA

FUTBOLA

Igoerarako hautagai nagusia

- ▶ Antzuolak bigarren sailkatua menderatu ostean, bost puntuko alde dauka sailkapenean
- ▶ Galtzen hasi arren, lehiari buelta emateko gaitasuna duela erakutsi zuen Estalan

EMAITZA

ANTZUOLA

2-1

GETARIAKO

FITXA TEKNIKOA

Antzuola: Jon Iturbe, Imanol Del Pozo, Josu Asensio (Josu Zubikarai, 72. min.), Mikel Zabala (Asier Longares, 65. min.), Markel Lete, Iñaki Agirre, Ander Arana, Julen Sanz, Imanol Arantzabal, Andoni Madariaga eta Iban Unanue.

Getariako: Endika, Alex, Jonda, Josean, Unax, Murillo, Fermin, Aritz, Mikel, Larra eta Navarro.

Oharra: Partiduaren garrantziaz jabetuta, Antzuolako eta Getariako zale asko batu zen Estalan.



Antzuolako Imanol Arantzabal (bizkarrez) eta beste hainbat jokalaria, baloiari begira. | IMANOL SORIANO

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Erregional Preferenteko bigarren multzoak badauka igoera lortzeko hautagaia: Antzuola. Hautagai sendoa, erregularra eta gauzak okertzen direnean, bide zuzena topatzen dakiena. Zapatuan, Estalan, sailkapeneko bigarrena menderatu zuen, eta bost puntuko alde dauka orain, liga bukatzeko geratzen diren zazpi partiduei aurre egin ahal izateko. "Bost puntu ditugu, baina 21 daude jokoan. Oraindik ez dugu ezer lortu, baina pauso bat gehiago eman dugu gaur", esan zigun partidu bukaeran Iñaki Agirre kapitainak.

Zale dezente Estalan

Zapatuko lehia inportantea zen Antzuolarendako, baina baita Getariarendako ere. Horren lekuko, Estalan elkartu zen zale piloa: batzuk etxekoan alde, eta beste asko, bonbo eta guzti, getariarren alde.

Bi taldeetako jokalaria ere tentsioarekin irten ziren zelaira. Akaso, horregatik, zelai erdia ezin menderatu ibili ziren lehen minutuetan. Baloia azkar mugitu gura zuten, ahalik eta azkarren, beste taldearen ate ingurura heltzeko. Hori horrela, akats dezente egin zituzten, biek ala biek.

Lehen bi jaurtiketak Getariakok egin zituen, baina lehen gol

aukera Antzuolak izan zuen, 14. minutuan. Korner erdiraketa baten, erremate bikoitza egin zuten, eta bietan defentsak alden duen baloia. 23. minutuan, jokaldi berean, beste bi aukera izan zituen Juanina Garairen taldeak. Ekaitzen eta Ibanen erremateek ez zuten saririk izan.

Antzuola sendo zegoen zelaietan, aukerak egiten eta baloia menderatzen. Baina, Getariako aurretik 25. minutuan: Ferminek eskuin hegaletik baloia erdiratu, eta Aritzek gola sartu zuen.

Kolpe gogorra izan zen etxeko jokalaria eta zaleendako. Baina, Antzuolak erakutsi zuen lider sendo batek izan behar duen ezaugarrietako bat baduela: erreakzionatzeko gaitasuna.

Puntuen garrantziaz jabetuta ez zuten etsi, eta atsedenean aurretik, lehia berdintzeko bi aukera izan zituzten: Iñaki Agirrek bat, eta Iban Unanuek bestea.

Berdinketa, Aranak

Bigarren zatian, intentsitate handiagoarekin irten zen Antzuola: lehen ordu laurdenean, lau auke-

ra garbi sortu zituen, baina guztietan Endika atezainarekin egin zuten topo.

Etxekoek ez zuten etsi, eta lehen saria 65. minutuan lortu zuten. Getariakok bere gola egin zuen jokaldiaren oso antzekoa izan zen. Orduan baina, protagonistak Antzuolako Ander Arana eta Iban Unanue izan ziren: Aranak erdiratu eta Unanuek gola sartu. Biziki ospatu zuten berdinketa, euren artean eta zaleekin.

Bigarren gola eta kaleratzek

Berdinketarekin lasaitu egin ziren etxekoak. Zailena egin ostean, bigarren golaren bila joan ziren bete-betean. Zelai erditik aurrera sendo, baina atzeko lerroan hutsunerik utzi barik.

Getariarrek ez zuten erreakzionatzeko aukera izan. Berdinketaren gola jaso, eta hamar minutura bigarrena egin zuen Antzuolak. Epaileak areaz kanpo falta adierazi zuen. Baloia ondoan Arana eta Zubikarai. Lehenak jaurti zuen, maisuki: lehiari buelta emateko balio zuen gol ederra lortuz.

Antzuolak partidua menderatuta zuen 76. minutuan. Baina, joko aldrebestu egin zen. Sarre-itsusi eta protesta batzuk tarteko, epaileak, etxeko Lete eta Zubikarairi txartel gorria erakutsi zien. Bederatzi jokalarirekin geratu zen Antzuola, baina Getariakok ez zuen jokalaria abantaila hura aprobetxatu.

ERREGIONAL PREFERENTEA, SAILKAPENA

1. Antzuola	47
2. Ordizia	42
3. Getariako	42
4. Anaitasuna	37
5. Amaiak Bat	37
6. Mutriku	37
7. Sorluze	33
8. Eibartarrak	32
9. Iliintxa	29
10. Zumaiako	29

Liga bukatzeko partiduak


- ▶ Eibartarrak-Antzuola, martxoaren 17an.
- ▶ Antzuola-Mutriku, martxoaren 24an.
- ▶ Mutrikuarrak-Antzuola, apirilaren 14an.
- ▶ Antzuola-Elgoibar, apirilaren 21ean.
- ▶ Lazkao-Antzuola, apirilaren 28an.
- ▶ Zestoa-Antzuola, maiatzaren 5ean.
- ▶ Antzuola-Idiazabal, maiatzaren 12an.

IÑAKI AGIRRE | ANTZUOLAREN KAPITAINA
"Konfiantza handitzeko balioko digu"

Nekatuta, baina pozik zegoen partidu bukaeran Antzuolaren kapitaina.

Sufrituta irabazi duzue.

Bai. Irabaztea zen garrantzitsuena eta lortu dugu. Guk dakiguna egin dugu, eta horrek eman digu lehiari buelta emateko gaitasuna. Hori esan digu entrentzaileak atsedenean, gudan konfiantza izateko.



Puntu asko gertatu dira jokoan, baina gaur paus handia eman duzue.

Hala da. Gaurko puntuek konfiantza handitzeko balio izango digute. Azken astetan, nahiko eskas ibili gara: tentsioa, emaitza txarrak, sailkapeneko abantaila txikitzea... Gaurtik aurrera, gauzak beste modu batera ikusiko ditugu.

OHOREZKO ERREGIONALA

Azken minutuetan berdindu zuen Bergarak Agorrosingo derbia

Mondrako atezainak egindako hutsa aprobetxatu zuten mahonerok

EMAITZA	
BERGARA	1-1
MONDRA	

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Mondrak, aurreko astean Aloña-aren kontra derbian luzapenean irabazi zuena, galdu egin zuen Agorrosin. Bergararen kontra lehia eskura izan zuen, markagailuan aurreratu ostean; baina, luzapenerako bidean, atezainak huts egin zuen, eta mahonerok berdindu egin zuten.

Lehen zatia gol barik

Lehen zatia parekatua izan zen. Biek ala biek, denboraldian zehar egiten diharduten jokoa egiten ahalegindu ziren. Mondrak, baloi luzeak erabili zituen aurrera egiteko. Bergara baloia kontrolatu gura ibili zen. Mahonerok bizpahiru aukera sortu zituzten, baina ez zuten asmatu. Mondrak ere izan zuen bakanen bat, baina eurek ere ez ziren fin ibili azken metroetan. Hori horrela, husnako berdinketarekin joan ziren aldegeletara.



Bergarako eta Mondrako jokalariek baloiarengatik lehian. | IMANOL SORIANO

Atezainaren hutsa

Lehen zatia ikusteko modukoa izan zen, golik sartu ez arren. Bigarrena, eskasagoa izan zen. Bergarak apenas izan zuen aukerarik. Aldiz, arrasatearrek, bigarren zatian sortutako aukera bakarra baliatu zuten markagailuan aurretik ipintzeko: 75. minutuan sartu zuen gola Iker Uribarrenek.

Derbia alde ipini zitzaion Mondrari. Lasaitasuna ematen duten sailkapeneko postuetan sendo mantentzeko puntu inportanteak

ziren. Bi derbi jarraian, eta bi garaipen. Baina, etxeokak gai izan ziren luzapenera heldu aurretik, berdinketa egiteko: Mondrako atezainak egindako aprobetxatu zuten.

Hurrengo aste bukaeran

Aste bukaeran partidu zailak dituzten berriro ere bi taldeek: Mondrak etxean jokatu du, sailkapeneko bigarren dagoen Hernaniren kontra; eta Bergarak, Touringen kontra neurtuko ditu indarrak.



OHOREZKO ERREGIONALA

JOSETXO ARANTZABAL

Puntu banaketa Azkoagainen: 1-1

Aloña Mendik eta Touringek Azkoagaingo puntuak banatu egin zituzten. Norgehiagoka banako berdinketarekin bukatu zen. Hala, talde bakoitzak puntu bat eskuratu zuen. Biak ala biak, parekatuta zeuden sailkapenean. Irabazten zuenak tarte zabaltzeko aukera zuen. Aloña hiru garaipen behar ditu maila mantentzeko.

OHOREZKO ERREGIONALA

Sufrituta irabazi zuen Aretxabaletak Urolaren zelaian: 1-2

Sufrituta, baina irabazi egin zuen Aretxabaletak Zumarragan: 1-2. Raul Sanchezek egin zuen UDArendako lehen gola. Atsedenen aurretik, berdindu egin zuen Urolak. Bigarrenean, Jokin Badillok egin zuen garaipenaren gola. Aretxabaletarrek gaizki jokatu, emaitza ona lortu zuten.

NESKEN 2. MAILA

Puntu inportanteak batu zituzten Mondrako neskek

Mondrako neskek Eibarren kontra jokatu eta irabazi egin zuten Mojategin: 2-0. Puntu inportanteak ziren Azkuraren taldearendako. Askoz gehiago, aurreko aste bukarean Zarautzen kontra irabazi ostean. Hurrengo aste bukarean, etxean jokatu dute berriro, Abantoren kontra.



Ibargarai kalea 1, 20570 Bergara. Tel: 943 76 70 49
ikastaroak@imaltuna.com • www.imaltuna.com



Langile eta langabetuentzat IKASTAROAK, %100ean diruz lagunduta

FABRIKAZIO MEKANIKOA			
IKASTAROEN IZENAK	ORDUAK	DATAK	ORDUTEGIA
UF0879: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO PIEZEN FABRIKAZIOARAKO CNC PROGRAMEN GARAPENA	70	2013/03/18 - 2013/05/30	A,A,A,O 14:00 - 16:30
UF0880 TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOAN FABRIKAZIO PROZESUEN ERAGIKETA OSAGARRIAK	70	2013/04/17 - 2013/06/04	A,A,A,O 18:00 - 21:00
UF1009: URRADURA, ELEKTRO HIGADURA ETA PROZEDURA BEREZIEN BIDEZKO PIEZEN FABRIKAZIOARAKO CNC PROGRAMEN SORTZEA (Sarpen bidez /hari bidez).	80	2013/04/08 - 2013/05/29	A,A,A,O 18:00 - 21:00
UF0453: FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUENTZAKO IRUDIKAPEN GRAFIKOA 3D	40	2013/04/15 - 2013/05/14	A,A,A,O 18:00 - 20:30
ELEKTRIZATEA			
IKASTAROEN IZENAK	ORDUAK	DATAK	
UF0884: ERAIKUNTZETAKO LOTUREN INSTALAZIO ELEKTRIKOEN MUNTAIA	60	2013/04/22 - 2013/05/29	A,A,A,O 18:00 - 21:00
OINARRIZKO ELEKTRONIKA	50	2013/03/11 - 2013/04/16	A,A,A,O 18:00 - 21:00
ADMINISTRAZIOA ETA INFORMATIKA			
IKASTAROEN IZENAK	ORDUAK	DATAK	
UF0319: SISTEMA OPERATIBOA, INFORMAZIOA BILATZEA: INTERNETA/INTRANETA ETA POSTA ELEKTRONIKOA	30	Zehaztu gabe	A,A,A,O 18:00 - 20:30
UF0323: AURKEZPENERAKO APLIKAZIO INFORMATIKOA: INFORMAZIO GRAFIKOAK (Power Point)	30	2013/04/08 - 2013/04/25	A,A,A,O 18:00 - 20:30
UF0314: KUDEAKETA KONTABLEA	90	2013/03/18 - 2013/06/05	A,A,A,O 18:00 - 21:00
BESTE BATZUK			
IKASTAROEN IZENAK	ORDUAK	DATAK	
HOTZEKO ESTANPAZIOKO PROZESUEN OINARRIZKO DISEINUA	20	2013/03/11 - 2013/03/25	A,A,A 15:00 - 18:00
HOTZEKO ESTANPAZIOKO PROZESUEN DISEINUA	20	2013/04/08 - 2013/04/18	A,A,A,O 15:00 - 17:30
HOTZEKO ESTANPAZIOKO MAKINEN DOIKUNTZA	30	2013/04/15 - 2013/04/30	A,A,A,O 15:00 - 18:00
FORGE AUERRERATUA. ERREMINTEN ANALISIA	20	2013/04/15 - 2013/04/19	A,A,A,O,0 08:30 - 12:30
HOTZEKO ETA BEROKO FORJAKO SIMULAZIO FORMAZIOA	21	MARTXOAK 19,20 eta 21	09:00etatik 17:00etara (Ordu bete bazkaltzeko)



Maila guztietako irabazleak podium-ean Euskadiko Openeko maillot-ekin. | JAGOBA DOMINGO

MENDI BIZIKLETA

Julen Zuberok irabazi zuen Aramaion Euskadiko Openeko lehenengo proba

Lehenengo hiru sailkatuek minutu bateko denbora aldearekin zeharkatu zuten Barajuengo helmuga erritmo biziko lasterketa gogorrean

JAGOBA DOMINGO | ARAMAIO

Adin eta maila ezberdineko 153 txirrindulari elkartu ziren atzo Aramaio Barajuen auzoan denboraldi honetako Euskadiko Openeko lehenengo lasterketan parte hartzeko. Goizean goizetik, Aramaio eta inguruko herrietako mendi bizikletazale asko hurbildu ziren proba ikustera eta ziklistei ez zitzaizaien animorik falta izan ibilbidearen barrena.

Teknikoki ibilbide zailari egin zioten aurre ziklistek eta lehen metroak asfaltoan egin ondoren, mendi pista eta bidexkatan sartu ziren. Elite, master 30 eta 23 urtez azpikoez bost itzuli egin zituzten 6 kilometroko ibilbideari. Gainerako lau mailetakoek hiru itzuli egin zituzten.

Garaipena Lemoara

Elite mailan irabazlea Julen Zuberok lemoarra izan zen, 1:30:23ko marka lortuz. Lemoarraren atzetik, Ismael Esteba, 17 segundora, eta Patxi Cia, 46 segundora heldu ziren helmugara. Zuberoren esanetan, lasterketa oso gogorra izan zen, denboraldiko lehenengo proba izanik, txirrindulari gehienak gogo handiarekin eta sasoi onean heltzen direlako. Beraz, teknikoki akatsik ez egiteak eta bizikletarekin arazorik ez izateak berebiziko garrantzia izan zuen atzoko lasterketa irabazi ahal izateko.

Oscar Pujolek erritmo oso bizia jarri zion hasieratik, eta pixkanaka bost edo sei txirrindularien artean zegoen lasterke-

ta irabazteko borroka. Ibilbidea amaitzeko bi itzuli falta zirenean, Zubero eta Esteba zeuden lasterketaren buruan, eta lemoarrak esan bezala, "Estebak nekatuta zegoela, eta aurrera bakarrik jarraitzeko esan dit". Hala ere, helmugara alde estuarekin heldu ziren biak.

Gainontzeko irabazleak

Gainontzeko mailatan irabazleak Miguel Sanzol, 23 urtez azpikoe-tan; Santiago Garrido, master 30 mailan; Ander Montero, gazteetan; Cristina Oliva, emakumetan; Iñigo Astigarraga, kadetetan eta Jesus Angel Espada master 40 mailan izan ziren. Azken honek ere pozik amaitu zuen lasterketa: hasieratik taldetik ihes egitea

lortu zuen, eta bere ustetan, hori izan zen garaipenaren gakoa, ibilbidean zehar aurreratzea oso zaila zen-eta.

Iñaki Lejarreta gogoan

Lehiatzen hasi aurretik, txirrindulari guztiek minutu bateko isilunea gorde zuten pasa den abenduan hil zen Iñaki Lejarretaren omenez. Aramaion ospatutako lasterketa askotan parte hartutakoa zen Lejarreta. Eta Jon Andoni Axpe antolatzaileak esan bezala, bertan lehen karerra egin zutenean, Lejarreta izan zen lasterketaren anfitrioi. Hori dela eta, zorretan sentitzen ziren Orixol Mendi elkarte-ko antolatzaileak eta omenaldi xume bat egitea erabaki dute aurten.



JON ANDONI AXPE
ANTOLATZAILEA

"Euskadiko Openeko lehenengo lasterketa da eta txirrindulariak oso gogotsu etortzen dira. Zirkuitua gainera egoera onean dago, negu gogorra izan da beraz prestatzeko, baina gaur egoera oso onean dago".



JULEN ZUBERO
ELITE MAILAKO IRABAZLEA

"Zirkuitu polita izan da, aurreko urtearekin alderatuz aldaketa txiki batzuk egin dituzte. Tarte tekniko interesgarriak, igoera gogorrak, tarte estu azkarrak eta aldapa politak egon dira. Beraz oso interesgarria da".



JESUS ANGEL ESPADA
MASTER 40-KO IRABAZLEA

"Lasterketa gogorra izan da, zirkuitu honetan ez dago indarrak berreskuratzeko tarterik, beraz erritmo altuan joan naiz ibilbide osoan zehar. Hasieratik ihes egin dut eta master 40 mailan lehen postua lortu dut. "



ASIER IZU
KADETEA

"Bigarren itzulian erori egin naiz eta lepoan min handia hartu dut. Eta horrez gain bizikleta apurtu dut kolpean, hala ere, nire mailan hirugarren amaitu dudala uste dut. Beraz, minduta, baina nahiko pozik nagoela esan daiteke".

XAKE

Arrasate-Arlutzek ohorezko mailara igotzea lortu du

Zapatuan Gros B menderatu ostean, Euskal Ligako ohorezko mailara igotzea lortu du Arrasate-Arlutz xake taldeak. Bilboko Alhondigan jokatu zen ligako azken jardunaldia eta Arrasate-Arlutzek eta Errenteriako Formento taldeak ohorezko mailara igotzeko lehia zeuden. Arrasate eta Aretxabaletako taldeak mailaz igotzeko 1,5 puntuko aldea atera behar zion errenteriarrei eta, Fran Miguelen eta Andoni Miguelen berdinketei esker, eta Aitor Alcaideren eta Asier Etxagibelen garaipenei esker, Gros B taldea 3-1 menderatu zuten. Errenteriarrek Orvina Bren aurka 2.5-1.5 galdu zuten. Hala ere, ez zen emoziorik falta izan, Fomentoren azken partidak 5 ordu iraun baitzuten.

ESKUBALOIA

Ford Mugarrik ezin izan zuen Atez Ate Usurbil gaintitu (26-26)

Ford Mugarrik ezin izan zuen sailkapeneko seigarren postuan dagoen Atez Ate Usurbilen aurka garaipena lortu eta berdinketarekin konformatu behar izan zuen. Gainera, Leioako Quiron Askartza taldeak Indupime Basauriren aurka irabazi ostean, talde bizkaitarrari ateratzen zion aldea desagertu eta, orain, sailkapenean berdinduta dade. Bi taldeek 21 partidu jokatu dituzte eta 36 puntu dituzte, hala ere, Ford Mugarri da sartutako gol kopuruarengatik talde moreak sailkapeneko lehenengo postuan jarraitzen du. Beraz, zapatuko berdinketaren ostean Pablo Garcia-ren mutilek ez dute puntuak galtzeko tarterik. Hurrengo astean Garcia-ren mutilek Basaurin jokatu dute Indupimeren aurka.

PILOTA

Yoldik eta Ansoategik jokatuko dute Soraluze txapelketako finala

Ojuel eta Jaka erraz menderatu ostean, Yoldi eta Ansoategi pilotariak lehiatuko dira martitzen arratsaldean Soraluze Bergara Hiria pilota txapelketako finalean. Nahiz eta Yoldi lau t'erdiko finala irabazteko faborito izan, Ansoategik Jakaren aurka egindako partidua ikusgarriaren ostean (22-5), Uharteko aurrelariak lan handia egin beharko du Ansoategi mendearen hartzeko. Yoldiren aurka galdu ostean (22-2) Ojuel pilotari hernaniarra eta Jaka hirugarren eta laugarren postuarengatik borrokatuko dira martitzenean. Partidu hori Soraluze Bergara Hiri txapelketako finalaren aurretik izango da, arratsaldeko 19:30ean Bergarako pilotalekuan.

ATLETISMOA

Berdintasunaren alde, korrika egin dute Oñatiko Lilatoian eta Arrasateko Takarrararen

Emakumearen Nazioarteko egunaren ospatzeko Debagoiengan bi kirol hitzordu izan dira asteburuan

ANDER MONEDERO | ARRASATE/OÑATI

Martxoaren 8a ospatzeko eta oraindik ere berdintasunaren alde egiteko asko dagoela gogorarazteko Debagoieneko emakume zein gizonak kalera atera dira asteburuan. Oñatiko eta Arrasateko emakumeen kasuan, korrika eginez ospatu dute. Hala, bi kirol hitzordu izan dira, alde batetik, Oñatiko Lilatoia eta bestetik, Arrasateko Emakumeak Takarraran lasterketa.

Bi herri, bi lasterketa, baina helburu berdina: gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak apurtzea. Egubakoitz arratsaldean, Oñatiko Emakumeen sareak antolatuta, lehenengo Lilatoia ospatu zuten. Lilatoia, lasterketa irekia eta lehiarik gabea izan zen, hau da, herriko kaleetan zehar lau kilometroko zirkuitua egin zuten eta bertan parte hartu zuten gizon eta emakumeek batera hasi eta bukatu zuten. Antolatzaileen esanetan, ekitaldiak erantzun ona izan zuen eta nahiz eta lasterketa hasita egon, kalean zegoen jendeak bat egin eta hasi baino jende gehiagok bukatu zuen lasterketa.

Lasterketaren ostean, Oñatiko Emakumeen sareak emakumeen eta gizonen artean dagoen ezberdintasuna salatu zuten.

Arrasaten, emakumeak bakarrik Zapatu eguerdian, berriz, Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailak eta Aukeak antolatuta, Emakumeak Takarraran lasterketaren 5. edizioa ospatu zuten. Lasterketaren zirkuitua, Seber Altube plazatik irten, Mahalan behera egin, Otarari buelta osoan eman, ondoren San Frantziskotik alde zaharrera sartu eta Seber Altuben bukatzen zen. Eguraldiak lagun, Takarraran egin zuten 40 emakumeek hiru buelta eman zioten zirkuituari eta, guztira, 2,8 kilometro egin zituzten.

Lasterketan azkarrenak Ane Zabala eta Marije Velasco izan ziren. Lasterketa hasieratik batera joan ziren, ibilbidearen 2,8 kilometroak batera egin zituzten eta bukaeran, eskutik heldu eta



Oñatiko lehenengo Lilatoian parte hartzaile gehienak lilaz jantzi ziren. | IMANOL SORIANO



Gema Izagirre, Garbi Saraseta eta Idoia Elkorok helmugaratzen. | IMANOL SORIANO

batera helmugaratu ziren Portaloian bildu ziren ikusleen txalo artean.

Biek lasterketaren lehenengo postua partekatu zuten eta euren atzetik Sonia Canas helmugaratu zen. Lasterketako hirugarren korrikalaririk azkarrena, berriz, Yolanda Perez de Arenaza izan

zen. Baina Emakumeak Takarraran lasterketaren helburua berdintasuna aldarrikatzea eta emakumeak kirola egitera bultzatzea denez, helmugaratzen azkenak izan ziren Gema Izagirre, Garbi Saraseta eta Idoia Elkorok ere sari bana jaso zuten. Lasterketan parte hartu zuten 40 emakumeek

tatik zaharrena eta gazteena ere, saritu zituzten. Miren Bengoa izan zen korrikalaririk betarrena eta Izar Carmona, berriz, gazteena.

Nahiz eta beste urte batzuetan baino parte hartze txikiagoa izan, lasterketak publikoak aldetik erantzun bikaina izan zuten.



MARIA APAOLAZA
LILATOIA EGIN ZUEN

"Lasterketa hasita zegoela, jendea batu egin da, eta hori oso polita izan da. Ez nuen hainbesteko parte hartzea espero, oñatiarrez gain unibertsitatean ikasten ari den jendea ere izan dugu".



LIERNI ARREGI
LILATOIA EGIN ZUEN

"Lehenengo aldia da horrelako lasterketa batean parte hartzen dudala, baina Martxoaren 8ak merezi duela uste dut. Nahiko gogorra egin zait, baina gustora egin naiz".



ANE ZABALA
TAKARRARAN EGIN ZUEN

"Emakumeak kirola egitera bultzatzeko ekimena da eta nahiz eta kirolariak ez izan, horrelako frogetan parte hartzeko gonbidapena egin nahi dut; hurrengoan gehiago izan behar gara!".



SONIA CANAS
TAKARRARAN EGIN ZUEN

"Gora-behera asko daude eta batzuetan gogorra egiten da, baina dagoen giroak asko laguntzen du. Ea hurrengo urtean parte-hartze handiagoa dagoen".

LENIZ
ESKORIATZA



KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

EBA

Psikologikoki garrantzia handiko partidua irabazi zuen Natra Oñatik

Lau partidu jarraian galdu ostean, Estela talde nafarra menderatu zuen

EMAITZA

NATRA OÑATI

77-68

ESTELA

FITXA TEKNIKOA

Natra Oñati: Jagoba (9), Imanol (6), Ander (26), Josean (8), Zabaleta, Asier (6), Gorka (6), Iban, Xabo (7), Aitor, Iñigo (9) eta Odriozola.

Estela: Estevez, Teja, Herrero (13), Anillo (2), Djukovic (16), Gartzia (8), Sanchez, martinovic (11), Carral eta Lombera (18).

Laurdenetako emaitzak: Lehen laurdena: 21-17; bigarren laurdena: 42-36; hirugarren laurdena: 65-52; laugarren laurdena: 77-68.



Natrako Iñigo Biain, saskira barneratzea egiten, Estelaren defentsaren aurrean. | IMANOL SORIANO

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Balio psikologiko handiko partidua irabazi zuen zapatuan Natra Oñatik. Azken lau partiduak jarraian galdu ostean, oñatiarrek euren ezaugarriak berreskuratu behar zituzten. Estelaren kontra irabazi egin behar zuten, bai ala bai; eta, azken laurdenean nafa-

rrak lau puntura hurbildu ziren arren, burua hotz mantenduz, irabazteko gai izan ziren.

13 puntuko tartea

Lehenengo zatian -lehenengo eta bigarren laurdenetan- oñatiarrek menderatu zuten partidua. Astean zehar egindako lan psikologikoak emaitza onak eman zituen. Jokalari bakoitzak zegokion papera

ondo baino hobeto bete zuen. Hori horrela, sei puntuko aldearekin joan ziren aldagelara: 42-36.

Hirugarrenaren hasieran, abantaila mantendu egin zuten. Gorka Kintanak eta Xabier Osak egindako hiru hirukoei esker, aldea zabaltu zuten oñatiarrek. Estelaren entrenatzaileari adierazitako teknikarekin, 13 puntu-

ko errentarekin hasi zuten azken laurdena: 65-52.

Teknika Estelako jokalariori

Lehia ia erabakita zegoela zirudienean, aurretik galdutako partiduetako sentsazio txarrak agertu ziren Zubikoako kantxan. Estelak 2-10eko partziala egin zuen. Sei minututan bost puntu bakarrik lortu zituen Aloñak.

Nafarrak lau puntura ipini ziren: 70-66. Une hartan Alvaro Lombera jokalariaik, modu txarrean, aurre egin zion Iñigo Biaini. Epaileek teknika adierazi zioten. Oñatiarrek bi jaurtiketa libreak eta ondorengo hiruko jaurtiketa baliatu zituzten partidua apurtzeko. Azken minutuetan, lasaia jokatu zuen Natrak eta irabazi egin zuen.

EMAKUMEAK

Harrobiko jokalariekin jolasean eta jokatzen

M.B. | ESKORIATZA

Espainiako ligan, gorengoen taldean diharduen Hondarribia-Irun saskibaloia taldeko jokalariaik Eskoriatzan egon ziren egubakoitzean.

Haien bisitak ikusmin handia piztu zuen zaleen, eta batez ere, harrobiko jokalarien artean. Saskibaloia eskolako neskek, eurekin jolasteko eta jokatzeke aukera izan zuten. Hau da, profesionalak diren jokalariaik, harrobikoekin

lanean egon ziren: jolasean lehenengo, eta saskibaloian jokatzen, ostera.

Bukatzeke, partidua

Txikienekin argazkiak egin ondoren, entrenamendu saioa egin zuten. Ekitaldia bukatzeke, partidua jokatu zuten: talde batean Hondarribia-Irun taldekoak, eta bestean, Eskoriatzako senior eta gazte mailako jokalariaik. Emaitza, gutxienekoa izan zen.



Etexko neskatila, baloia botatzen, Hondarribikoekin aurrean. | IMANOL SORIANO



Eskoriatzako neskek, Hondarribiko jokalariekin. | IMANOL SORIANO



Hondarribiko jokalaria, jaurtiketa librea egiten. | IMANOL SORIANO

LEHEN NAZIONALA

Erasoan huts gehiegi eginda, galdu egin zuen MUK

M.B. | ARRASATE

Lehen Nazional Mailako lideren kontra emandako mailaren guztiz kontrakoa erakutsi zuen Mondragon Unibertsitateak Ordizian. Erasoa huts gehiegi egin zituen eta galdu egin zuen: 70-64.

MUK lehen zatian, ez zuen erreferentziarik izan erasoan. Jokalari guztiek makal jokatu zuten. Ohikoa duten maila eman barik.

Ordizia talde indartsua da fisikoki, eta min handia egin zion MUKi barruko jokoan. Larreategiren taldeak ez zuen asmatu defentsan.

Bigarrenean aldiz, defentsa hobetu zuten arrasatearrek, baina arazoak, erasoan izan zituzten. Huts asko egin zituzten bakarkako jokaldietan: kontraerasoetan, taula azpian... Ordiziarrek hiru puntuko bi jaurtiketekin erabaki zuten partidua.

JAGOBA GAMARRA
NATRAKO JOKALARIA

"Lasaitu ederra hartu dugu gaurko lehia irabazita"

Otsaila hil beltza izan da Natra Oñatirendako. Jokaturako partiduen denak, galdu egin dituzte. Estelaren kontra irabazita, bolada txarrekin bukatu dute.

Azkenean, garaipena!

Bai, eta eskerrak. Lasaitu ederra hartu dugu irabazita. Arantza ateratzeko balio izan digu, eta aurretik ditugun partiduei beste aurpegi batekin begiratzeko.

Azken tartean, lau puntura jarri direnean, zer pasa zaitzue burutik?

Gauza asko: azken partiduetan egindako akatsak, tentsioa, urduritasuna... Estelaren kontrako teknikak mesede egin digu. Azken minutuetan, lehia kontrolatzeko gai izan gara. Lehen lekuan jarraitzeko indarrak batu ditugu gaur.

SASKIBALOIA

Aitor Uriondo | Hondarribia-Irun saskibaloia taldeko entrenatzailea

"Maila goreneko talde batendako ezinbestekoa da ezagutzera eman eta gazteengana hurbiltzea"

- ▶ Otsailaren 27an heldu zen Hondarribiara, taldea lehen mailan mantentzea lortzeko
- ▶ Egubakoitzean Eskoriatzan egin zuten entrenamendua, gazteengana hurbiltzeko asmoz

JOKIN BEREZIARTUA | ESKORIATZA

Jokalarari moduan ez zenez ondo moldatzen, oso gazte hasi zen entrenatzaile Aitor Uriondo (Donostia, 1972), 15 urterekin. Orduetik hainbat taldetan aritu da, palmares ederra lortzeraino. Otsailaren 27an hartu zuen Hondarribia-Irun taldea zuzentzeko ardura; lehen aldiz ari da emakumez osatutako talde batekin lanean. Espainiako Emakumeen Ligako lehen mailan mantentzeko borrokan dihardu taldeak eta erronka "zaila" dela badaki. Egubakoitzean Eskoriatzan izan ziren saskibaloia eskolako haurrekin eta gazte zein senior mailako neskekin entrena-tzen. Bisita aprobetxatu dugu harekin berba egiteko.

Noiztik zara entrenatzaile?

15 urterekin hasi nintzen. 11 urte egin nituen Askatuak klubean eta, besteak beste, lehen taldeko bigarren entrenatzaile izan nintzen. Gero EHUren taldearekin Espainiako txapelak izan ginen eta gero Atletico San Sebastian taldearekin EBA ligara igo ginen. Horren ostean Datak Gipuzkoa Basket taldearekin aritu nintzen. Hau da, gaur egun GBC taldea denaren historiako lehen entrenatzailea izan nintzen. Pamesa Valencia taldearendako ere egin nuen lan bi urtez, iparraldeko jokalarari ezberdinak ikuskatzen eta eurekin teknifikazio saioak egiten. Azpeitiko Iraurgi taldean ere aritu nintzen duela lau edo bost urte... Gipuzkoa barruan beti, Valentziako esperientzia labur hori izan ezik.

Eta beste hainbat proiektutan ere murgilduta nago: Pablo Prigioni NBAko New York Knicks taldeko jokalarariaren kanpua zuzentzen dut, Donostian. *Ska-Trainer* proiektuan ere buru-belarri ari naiz: Beasain, Bergara eta beste zenbait herritan entrenatzaileak eta zuzendariak formatzeko proiektua da. Domekan [atzo] Bergaran daukat saioa.

Entrenatzaile moduan ibilbide luzea da zurea, ezin ukatu. Jokatzeko astirik izan al zenuen?

Jokalarari moduan ez nintzen ondo moldatzen. Ume txikiekin hasi eta konturatu nintzen asko gus-tatzen zitzaidala. Euren hobekuntzan laguntzen nuela ikusi nuen. Gero, zorte handia izan nuen talde onak tokatu zitzaizkidalako eta zaletasuna ogibide bihurtzeko aukera ere izan nuen zenbait urtetan. Orain irakaslea naiz Donostiako Axular ikastolan, eta irakaskuntzak aukera ematen dit saskibaloiarekin zerkusua duten proiektuetan ibiltzeko.



Aitor Uriondo, Eskoriatzako Manolo Muñoz kiroldegian, egubakoitzeko entrenamendu saioa hasi aurretik. | IMANOL SORIANO

"Eskaintza polita iruditu zitzaidan, era berean erronka zaila dela dakidan arren"

"3 partidutatik bat irabazi behar dugu matematikoki maila mantentzeko"

"Taldea diziplinatua eta laguntzeko gertu dagoena aurkitu dut"

"Emakumeendako ere kirol erakargarria da saskibaloia; hori erakutsi nahi dugu"

Goazen zure azken proiektura. Nola jaso zenuen Hondarribia-Irun taldea zuzentzeko proposamena?

Ez nuen inolaz ere espero eta ordu gutxitan erantzun beharreko proposamena izan zen. Oskar Garcia kirol zuzendariak deitu zidan, aspalditik ezagutzen gara -eta. Badaki nola egiten dudana eta hasieratik argi eta garbi utzi zidan taldearen egoera oso zaila zela. Proposamen finkoa egin zidaten; zenbait urte neramatzan talde profesional bat zuzendu gabe eta eskaintza poli-

ta zela iruditu zitzaidan. Erronka zaila da, taldea bigarren mailara jaistea saihestu behar dugulako. Ilusioa eta poza ere ematen dit, ikusten dudalako oraindik batzuek badutela konfiantza nigan. Beste alde batetik, baina, erantzukizun oso handia da, azken hamarkada honetan Hondarribia-Irun taldea maila gorenean egon delako.

Zer egin behar duzue mailaz ez jaisteko?

Hilabete eta erdian hiru partidu jokatu behar ditugu eta horietatik bat irabaziz gero matematikoki maila mantentzea lortuko genuke. Hiruak galduta ere atzeko taldeak ez badu irabazten mantendu egingo ginatete baina hiru aste barru Iruñean Obenansa taldearen aurkako final handia irabaztea da gure lehen helburua. Norgehiagoka hori ari gara ondo prestatzen, jakinda azken jardunaldia lider den Rivas taldea datorrela. Europako talde indartsuenetako bat da Rivas. Beraz, gustatuko litzaiguke azken jardunaldi horretara etxerako lanak eginda heltzea.

Emakumeekin lan egiten duzun lehen aldia da. Zer moduz?

Orain arte oso gustura. Denbora gutxi daramat baina aurkitu dudana oso diziplinatua da eta beti dago laguntzeko gertu. Izan ere, ni baino gehiago dakite ligaren eta jokalarrien gainean. Gizonezkoen entrenatzaileak izan garenok askotan estereotipo batzuk barneratzen ditugu eta orain ari naiz konturatzeko kantxa barruan ez dagoela ezberdintasun handirik. Arlo fisikoa ezberdina da, noski, eta baita erritmoa ere. Baina taktikoki, adibidez, jokalarari sendoak dira eta oso ondo irakurtzen dute jokoa. Aldaketa handienak kantxatik kanpokoak dira. Orokorrean oso antzekoa da.

Egubakoitzean Eskoriatzan izan zineten gaztetxoekin lanean. Zein izan zen bisitaren helburua?

Hondarribia-Irun maila goreneko talde batendako ezinbestekoa da gazteengana hurbiltzea eta Gipuzkoan ezagutzera ematea taldearen jarduna. Klubaren helburu nagusien artean dago saskibaloia balioak transmititzea. Are gehiago, jakinda Debagoienan gazte asko mugitzen dituela saskibaloiak. Gure lana euren motibagarri izatea gura dugu.

Gizonezkoen aparte, emakumeendako ere saskibaloia oso kirol erakargarria izan daitekeela erakutsi nahi dugu, futbolaz haratago beste kirol batzuk ere badaudela.

HEZIKETA

Komunikazio ez bortitzaren eredu egokia da errespetuzko sexu-hezkuntzarako ere

Larraitz Arando sexologoa komunikazio eredu horren aplikazioaz mintzo da

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Gero eta ezagunagoa da Marshall B. Rosenberg-ek defendatzen duen komunikazio eredu. Komunikazio ez bortitza deritzo, eta lau pausutan laburbiltzen du: behaketa egitea, sentimenduak identifikatzea, beharrak finkatzea, eta eskaera egitea. "Marshallek eskaintzen diguna sexu-hezkuntzarako tresna indartsua izan daiteke", dio Arandok. Errespetuzko sexu-hezkuntza du helburu Arandok, eta nahiz eta ohartzarazten duen eredu berria barneratzeak denbora, energia eta gogo eskatzen duela, benetan merezi duela uste du. "Sexualitatearekin lotzen ditugun hainbat kontzeptuk -praktika batzuk, genitalak ...- karga moral handia dute, eta horrek behar eta eskaeraren arteko bidea lausotzen du. Hots, alde batetik diskurtso aurrerakoiak eta bestetik belaunaldiz belaunaldi heldu zaigun moral epailea



Haurra, udan, arropa gutxiarekin. | VINICIUS

nahasten dira. Ondorioz, guri sortzen zaizkigun sentimenduak eta beharrak identifikatzea zailagoa izaten da. Are zailagoa beharra identifikatu ondoren eskaera modu sinple eta garbi baten egitea". Eta Arandok egoera baten adibidea ipintzen du:

alaba salan dago lurrean jarrita eta alua ukitzen ari da. Zer egingo genuke? Zer sortzen digu egoera horrek? Zer behar dut? Ze eskaera egingo diot, betiere baietza zein ezetza entzuteko prest egonik? Galdera horien erantzunak *Guraso.com*-en daude.

Paul Bilbao: "Badakigu nola lor ditzakegun gazte euskaldun eleaniztunak"

LOMCE legeari eta haren ondorioei buruz jardun du Paul Bilbaok 'Hik Hasi' aldizkarian

L.Z. | ARRASATE

Kontseiluko Paul Bilbaoren ustez, Estatuaren beste eraso bat da LOMCE —edo Wert— legea. "Lege hori abian jarriz gero, gure hizkuntzaren berreskurapen-prozesuan inflexio-puntua gerta liteke, eta urteotan emandako hainbat aurrerapauso ezerezean geratuko lirarteke", irakurri diogu *Hik Hasi*-n.

Bilbaoren mezua, dena den, baikorra da. Horrelako erasoei aurre egiteko tresnak baditugula dio, eta badakigula nola lor ditzakegun gazte euskaldun eleaniztunak. "EAEn aukera erreala daude ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen eredu abian jartzeko, eta ezin dugu hutsik egin". Elkarlana,

erabaki ausartak hartzea eta instituzioen eta herri-eragileen arteko konplizitate beharrezko ikusten ditu. "Eztabaida parametro egokietan kokatu behar dugu; orain da unea egun Hego Euskal Herrian gertatzen den bidegabekeriari, hots, gazte ez-euskaldunak sortzeari, amaiera emateko. Gure aldarrikapena ezin dugu mugatu egungo hezkuntza-ereduak mantentzera, urrats kualitatiboak egiteko garaia iritsi da". Hitzunak lortzeko hiru bide daukela dio; gurasoengandik seme-alabekiko transmisioa; hezkuntza-sistemak belaunaldi berriak bermatzea eta helduak egoera gutxiagotuan dagoen hizkuntza horretan trebatzea.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



guraso.com

ARIZMENDI IKASTOLA PRO

Heriotza, bizitzaren azken helmuga

Josu Iriarte

Erizaina eta Arizmendiko irakaslea

Zaintza aringarriak behar dituen pertsonaren profila, orokorrean, minbiziaren amaierako fasean dagoen gaixoa-rena da. Horretaz gain, hiesa, hepatitis mota batzuk eta zahartzaroarekin zerikusia duten beste gaixotasun batzuk sufritzen dituztenak ere multzo horretan sartzen dira. Egoera horretako gaixok honako arazo fisikoak izan ohi dituzte: mina, digestio arazoak, gernu aparatuko arazoak, arnas aparatukoak, azaleko arazoak, eta arazo neuropsikologikoak. Psikikoki, berriz, zenbait fasetatik pasa ohi dira, eta pertsona bakoitzak bere faseak ditu. Bizitzaren amaieraren faseak modu batera edo bestera bizitzeko oinarritzko faktoreak dira norberaren nortasuna zein sinemena edo kultura, norberaren bizipenak edo familiarengandik jasotako laguntasuna.

Küber-Rossen faseak

Fase horiek deskribatzeko modu bat Küber-Ross-en faseak dira. Hain zuzen ere, ezeztapena, amorrua, negoziazioa, etsialdia, eta onarpena dira fase horiek.

Ezeztapenaren fasea esaten zaio gaixok sentitzen duenari egoera berriaren aurrean: gaixotasunaren diagnosia eta heriotzaren pronostikoa.

Amorrua sortzen da gaixotasunak irabazi duela konturatzean. Gaixok bere buruari, familiari, erizainari edo medikuari botatzen dio errua.

Negoziazioaren fasea da egoera aldatu nahian gaixotasunaren aurrean jarrera aldatzeko erabakia hartzen denean. Jarrera aldatuz bizipen gehiago izango dituela sinesten du gaixok.

Martxoaren 13an jardunaldia egingo du Arizmendik

Etsialdia sortzen da bizitzaren amaiera sentitzean, eta negoziatio aginduek aldaketarik sortu ez dutela konturatzean. Iraganeko bizipenez oroitzen dira gaixok baita aurrerantzean egingo ez duten bizitzaz ere.

Gaixotasun luze baten ondoren ohikoa da onarpenaren fasea iristea: etsipenaren ondoren lasai eta bare heriotzari aurre egitea, alegia.

Maitatua eta ulertua

Fase horietan guztietan gaixok maitatua eta ulertua sentitu behar du. Ingurukoengandik konfiantza, maitasuna eta laguntza jaso behar ditu azken unera arte. Modu batera edo bestera, zaintza aringarriak beti egon dira, baina azken hamarkadetan ikerketa, saio eta hausnarketa asko egin dira gaiaren inguruan.

Martxoaren 13rako, esaterako, Arizmendi Ikastolak *Ezin bada sendatu, zaindu. Zainketa aringarriak* izeneko jardunaldiak antolatu ditu.



Gaixoa ospitalean. | JOSE GOULAO

Bizitza duinari heriotza duina

Heriotzari aurrez aurre begiratzen dion gaixok badu oso garrantzitsua den eskubide bat: heriotza duina izateko eskubidea, alegia. Horren harira Munduko Osasun Erakundeak dio: "Zaintza aringarria sendatu ezin den eta aurreratua dagoen gaixotasuna tratatzeko modua da. Gaixoen eta euren familien bizi kalitatea hobetzea du helburu. Horretarako prebentzioa, sufrimendua gutxitzea, diagnostiko goiztiarra, ebaluazio egokia eta minaren arazo fisiko, psikiko, psikosozial eta espiritualen tratamendua uztartzen ditu heriotza bizitzaren prozesu natural gisa bizitzeko".

Testuak osorik irakurtzeko eta erantzuteko: **arizmendi.eu**



2.0 PROFESIONALAK



GOIENA, POLTSIKOAN

Zure herriko albisteak,
Ibarreko albisteak.
Iragarki sailkatuak.
Jaioberrak.
Zorion agurrak.
Ezkontzak.
Eskelak.
Eguraldia.
Goiena Gida.
Goiena Kluba.

**DESKARGA EZAZU
APLIKAZIOA!**



HTC Ericsson Alcatel
Samsung LG Huawei
Sony Motorola Nexus



iPhone eta iPod touchekin bateragarria.
iOS 3.0 edo berriagoa behar da.



Gainerakoak:

Nokia Windows
BlackBerry Symbian

m.goiena.net



KULTURA



Bazkaria amaitu eta gero, doinu afrikarrez gozatzen ibilitako talde anitza. | IMANOL SORIANO

Elkar ez ezagutzeak dakartzan ezberdintasunak apurtzeko eguna

- ▶ Haurraldek eta Ndank-Ndankek antolatuta Afrika ezagutzeko jaia egin zuten Bergaran
- ▶ Afrikara hurbiltzeko beste modu bat da, berri txarretatik at, gauza asko dagoelako

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Gutxi batzuek onartuko dute arrazistak direla, orokorrean mundu guztia oso irekia ei da, baina oraindik ezagutzen ez duguna errezeloz begiratzeko ohitura dago. Aurreiritzi horiek apurtzeko eta noski Afrikaren beste ikuspegi bat zabaltzeko sortu zuten Haurralde fundazioak *Afrika zabaldu* ekimen ibiltaria.

Aurtengoa bigarren edizioa izan du eta besteak beste Lankidetarako Euskal Agentziaren babesarekin *Afrikaren sormen gaitasuna* sortu zuten. Irun, Gasteiz, Donostia eta Zumarragatik igaro ostean Bergaran izan ziren zapatuan: "Bergarako Ndank-Ndank ezagutu eta euren bitartez ekarri dugu hau guztia ona", adierazi zuen Oihana Merinok Haurraldeko Garapenerako Hezkuntza eta Sentsibilizazio teknikariak. Duela 13 urte ekin zion Haurraldeko Afrikan garapen proiektuak gauzatzeari eta hone-lako ekimenen bitartez bi herrialdeak hurbiltzeko ahaleginak egiten ditu. Eguneroko berriek erakusten duten Afrika triste horretatik urrun beste errealitate batzuk daudela erakusteko konpromisoa behin eta berriro erakutsiz.

Guztiek argi dute ezberdintasunak, aurreiritziek sortutako beldurrengatik datozela "aurreiritzi edo beldurren kontra horrelako ekimen gehiagoren beharra dugu", zioen Eli Dominguez Ndank-Ndank (poliki poliki senegaldarrez) elkarteko presidenteordeak. Ndank-Ndank-ekoentzat zapatukoa bultzada handia izan zela azpimarratu zuten: "Elkarte moduan halako ekitaldiek asko laguntzen digute, Haurralderen laguntza gabe guk ezingo genuke horrelako gauza bat antolatu".

Zapatukoa ez zen ekitaldi arrunta izan, musika afrikarra eta Senegaleko jakiak dastatzeko aukera izateaz gain, *Madame Brouette* filma -2003 urteko Berlinaleko Zilarrezko Hartza-ikus-teko aukera ere izan zuten. Filma ikusi eta gero, zuzendariarekin solas egiteko aukera ere izan zuten.

Bateratu ez, elkar ulertu

Goiz osoa elkarrekin igaro ostena guztiek argi zuten: "Kontua ez da berdina izatea, kontua elkar ulertzea da", esan zuten parte hartzaile batek. Bapo bazkaldu eta gero Biko tabernaren kanpoaldean garrantzi gutxien zuena azalaren

kolorea zen. Festa giroan, bakoitzak ondoen egiten zekiena egin zuten: batzuek dantza, besteek danborra jo... Kontua ez zen ongi edo gaizki egitea, garrantzitsuena bestearengatik ikastea izan zen. Barreak, dantzak, eta musika, hortaz, ez ziren falta izan.

Burkina-Fasokoa den Romeok argi dauka: "Euskaldunak afrikarrak baino lotsatiagoak zarete, baina aldi berean oso irekiak ere bai, hemen kultura aniztasun ikaragarria dago". Gustura dago hemen, eta bere alaitasunak ondoan duen edozein kutsatzen du.

Gure artean ere gustura sentitzen den beste bat Usman da. Oraingoz ez hizkuntzarekin ez da ongi moldatzen. baina esku eta begiradaren bitartez ederki komunikatzeko gai da. Hala ere, barre artean "ni Usman naiz" esatera ausartu zen.

Festan zegoen batek argi zuten: "Bi aldeek egin behar dute elkar ulertzeko ahalegina bestela alferrik da". Kontuan izan behar da, bestalde, Afrikatik hona beharrragatik egorri direla. Afrikar esaera batek dioen moduan: *Tximinoak zuhaitz gainean behar adina jan eduki izan balu ez litza-ke inoiz lurrera jaitsiko.*

MOUSSA SENE ABSA | ISTORIO KONTALARIA

"Ezberdintasunak guk jarri ditugu, ezjakintasunak aldentzen gaitu"

Zine zuzendaria, irakaslea... Hamaita ogibide dituen gizona da Moussa Sene Absa, baina bere burua istorio kontalaritzat dauka, zine zuzendari moduan jasotako sariek, tartean, Berlinaleko Zilarrezko Hartzak garrantzirik ez balute moduan.

Nongo istorioak kontatzen dituzu?

Istorioek ez dute lurralderik; istorio on bat beti izango da istorio on bat eta horiek interesatzen zaizkit.

Zure ingurua islatzen saiatuko zara?

Ez pentsa, estatu ezberdinetan, are gehiago, kontinente ezberdinetan oso antzeko istorioak gertatzen dira.

Horren berdinak bagara, zergatik horrenbeste ezberdintasun?

Guk jartzen ditugulako, guk zati-tu dugu lurra, baina guztiok gara gizaki. Gehienetan gugandik urrun dauden gertakizun asko ezagutzen



ez ditugulako da hori. Senegalen emakumeek XX. mende hasieran lortu zuten bozka eskubidea, hemen baino lehenago. Ez gaude horren atzeratuta!

Nola definituko zenuke afrika?

Afrika alai, indartsua, kementsua, oparoa... Egia da Afrikan jendea gosez hiltzen dela, Hiesa arazo handi bat dela, baina gogoan izan; munduaren etorkizuna Afrikatik pasatzen da.

Emanaldiko azkenengo abestian ume eta gazte denek batera abestu zuten *Heigh ho!* abestia. | IMANOL SORIANO

La 200 ume eta gaztek Disneyren abestiak kantatu zituzten Amaian

- ▶ Arizmendi eta Txantxiku ikastoletako abesbatzek parte hartu zuten
- ▶ Disneyren abestiek ikusmina piztu eta Amaia ia betetzea lortu zuten

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasateko eta Oñatiko jende asko gerturatu zen zapatu arratsaldean Arrasateko Amaia antzokira. Bertan, Arizmendiko gune ezberdinetako eta Oñatiko Txantxiku ikastolako ume eta gazteek kantaldi bikaina eskaini zuten. Arizmendi ikastolako Abesbatzen Topaketaren 26. edizioan, antolatzaileek emanaldiari kohesio emateko asmoz, euskaraz abestutako Disney etxearen abestiak aukeratu zituzten.

Horrela, haurrek hainbeste maite dituzten pelikuletako kantak familia eta lagunei abesteko aukera izan zuten. Topaketan parte hartu zuten bost taldeek, euren adin eta mailalara egokitutako abestiak kantatu zituzten eta saioak ordubeteko iraupena izan zuten. Saioaren bukaeran, batzuei motza egin zitzaizen eta

beste batzuek, berriz, iraupen egokia izan zuela aipatu zuten, beraz, antolatzaileen helburuetako bat bete egin zen, emanalditik jendea gustura irtetea.

5-16 urte bitarteko abeslariak
Arizmedi ikastolako abesbatzen



Umezaitzako haurrek ondo baino hobeto pasatu zuten kantuan. | I.S.

topaketaren 26. edizioan, bost taldetan banatuta 5 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteek parte hartu zuten. Topaketa talde gazteenak hasi zuen eta taldearen adinaren arabera jarraitu zuten. Emanaldia Arrasateko Umezaitza guneke haurrek hasi zuten

eta *Mickyren martxa* eta *Superkalifragilistikoezpialidoso* kantuak abestu zituzten.

Ondoren, Arimazubi guneke lehen hezkuntzako taldeak *Pocahontas* pelikularen *Haizearen koloreak* eta *Lamiatxoaren Ur azpian* kantuak plazaratu zituzten. Arimazubikoaren ostean, Arizmendiko abesbatzen topaketako gonbidatuen txanda izan zen: Oñatiko Txantxiku ikastolako abeslariena. Oñatiarrek, *Piztia eta ederra* eta *Edurnezuri eta zazpi ipotxak* pelikulako *Heigh ho!* abestiak aukeratu zituzten.

Txantxikukoaren ostean, Almeneko taldeak *Elkar gaitzen* eta *Beharrezko premiak* kantatu zituzten eta Almen eta Gaztelupe guneetako taldeek *Mundu berri bat* eta *Oihaneko erregea* kantatu zituzten. Emanaldia borobiltzeko, talde guztiek batera *Heigh ho!* abestia kantatu zuten.

Debagoieneko altxor ezkutak ezagutzeko bisita gidatuak

M.B. | BERGARA

Ignazioitar lurraldea proiektu turistikoaren baitan, Debagoiena, Urola Erdia eta Urola Garaia eskualdeek *Ezkutuko Altxorak* izeneko bisita gidatu programa antolatu dute. Egitaraua martxoaren 2an abiatu zen eta ekainaren 23an amaituko da.

Debagoienaren kasuan, programa horren barruan bisita hauek egin ahal izango dira: Elgetako Jasokunde Amaren Elizako Erretaula; Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitateko kapera; Dorretxe eta Jauregi artean, Bergaran; Gatz Museoa berezia, Leintz Gatzagan; Garagartzako San Migel Elizako Erretaula, Arrasaten; Koruetako Santiago Elizako Erretaula, Aretxabaletan; Erorretako Errota, Eskoriatzan; eta Antiguako Ermita eta Antzuolako erdigunea.

Bisitak alde aurretik eskatuta edo erreserba eginda bakarrik egin ahal izango dira, info@tierraignaciana.com helbidean eta 943 79 64 63 zenbakian, bi euroren truke.

Bizikleta konpontzen ikasteko saioa

M.B. | BERGARA

Bergaran bizikleta konpontetari eta mantenuari buruzko ikastaro aurreratu hasiko da gaur, astelehena, Miguel Altuna institutuan. 18:30etik 20:30era izango dira eskolak, Basque Aventurek eta Bizikasik antolatuta eta hilaren 14an bukatuko da. Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu 943 76 93 94 telefono zenbakira edo idatzi info@bizikasi.com helbidera. Prezioa 20 euro dira.

Elikagaiak manipulatzailer karneta ere bai

Horrekin guztiarekin batera, elikagaien manipulatzailer karneta lortzeko aukera ere egongo da Bergaran Bizikasiren eskutik. Ikastaroa dohain izango da, %100ean Hobetuzek lagundutakoa delako. Bi eguneko ikastaroa izango da: gaur, astelehena, eta bihar, martitzena, izangodira eskolak, 16:00etatik 19:30era. Izena emateko 943 76 93 94 telefono zenbakira dei daiteke edo mezua bidali info@bizikasi.com helbidera.



ALEJANDRA PAZOS
ARRASATE

"Alaba ikustera etorri naiz eta ikuskizuna oso dibertigarria izan dela uste dut. Antolatzaileek denborarekin ondo jokatu dutela uste dut, hobe da motz geratzea luze egin eta aspertzea baino, gustura irten dut".



MIKEL URIBETXEBARRIA
ARETXABALETA

"Alaba ikustera etorri naiz. Urtero bezala, ikuskizun polita izan da, oso ondo abestu dute eta ondo pasatu dugu. Adin ezberdinetako jende piloak elkartu da eta umeek ere ondo pasatu dutelakoan nago".



IMANOL LUENGO
ARETXABALETA

"Nire alaba ikustera etorri gara, bertan abestu baitu. Ikuskizun polita izan da, oso gustura geratu gara. Pena bat izan da, baina motza egin zaigu. Abestiak ondo aukeratu dituzte, entzuteko errazak izan baitira".



FRANCIS OYON
ESKORIATZA

"Iloba ikustera etorri naiz eta ikuskizuna asko gustatu zait. Ume askok parte hartu dute eta lan ona egin dutela uste dut. Gainera, denborarekin ondo jokatu dute, horrelako beste batzuetan luze egiten baita".



Emon taldekoak festa girotzen Elgetako Espaloian. | IMANOL SORIANO

KRONIKA

Astronauta koadrila Espaloian

JAGOB DOMINGO | ELGETA

Konfeti kolore disko berria aurkeztu zuen Emon talde bergararrak zapatu gauean Elgetako Espaloian. Bergararrek txosnagunerako diskoa egin dute oraingoan, 21. hamarkadako erromeria bezala definitu daitekeena.

Munduko musika mota ezberdinak uztartzen saiatzen dira; cumbia, rumba edota Errusiar doinuekin ausartzen dira, beste batzuen artean. Baina talde honen habitat naturala, txosnagune bat dela argi geratu zen zapatuko hitzorduan. Eurek ere euren asmoa argi uzten dute *Euskal Herriko txosneroak* kantuarekin.

E.T.S. taldeak kale egin zuen

Gau borobila antolatzen saiatu ziren Emon taldekoak, baina has-teko talde gonbidatuak kale egin zuen. Arabako E.T.S. (En Tol Sarmiento) ska taldeak ezin izan zuen kontzertua eskaini taldekide bat gaixo zegoelako. Hala ere, bergararrek aurrera egin zuten eta Baga-Biga diskoetxearekin kaleratu berri duten lana aurkezteari ekin zioten gauerdia heltzearengana.

Gaua hotz xamar hasi arren, pixkanaka gerturaturikoak berotzen joan ziren. Espaloian adin tarte ezberdineko 60 bat pertsona animatu ziren, eta ordu beteko

saioaren amaieran festa gogoarekin jarraitzen zuten.

'Konfeti Kolore'

Lan berriaren errepasoa egin zuen seikoteak eta hasieran soinuarekin arazo txiki batzuk izan arren, horiek konpondu eta naturaltasunez aurrera jarraitu zuten. Emanaldiaren lehen zatian *Larrosa gorri gorria* edota *Cantandole a una rumba* kantuekin publikoa berotzen saiatu arren, nahiko hotz eta motel zegoen. Baina kontzertu erdialdean, herriko plaza askotan entzun izan den Juan Luis Guerraren *Me sube la bilirrubina* kantuarekin, publikoaren zati

FITXA

MUSIKA

EMON**Estiloa:**

Fusioa, ska, cumbia, rumba.

Non: Elgetako Espaloia.**Eguna:** Zapatua, martxoak 9.**Iraupena:** Ordubete inguru.

eta taula gainean erosoago sentitu zen. Gauaren momentu gorenak, *Konfeti kolore* diskoaren bi *single*-ak jo zituztenean bizi ziren, hain zuzen, *Txosneroak* eta *Konfeti Kolore* kantuekin.

Diskoa orain dela bi aste kaleratu arren, publikoaren zati handi batek kantuak bazekizkien eta Emonekin batera abestu zituzten uda honetan irrati zein herri askotako festetan entzungo diren bi kantuak. Horrez gain, Orishas taldearen bertsio bat eta Muchachito Bombo Infierno-ren *Ojala no te hubiera conocido nunca* kantu ezagunak jo zituzten bergarako astronautek.

Labur esanda, Emonek taldearen etapa berriari hasiera besterik ez dio eman, eta kontzertu gehiago egin ahala, *Konfeti Kolore* festa Euskal Herri osoan barrena ezagutzera emango dutela, seguru.

handi bat poltsikoan sartu zuten. Dantzan jarri zituzten bertara gerturaturiko asko eta aspaldian herrien plazan egiten ziren erromerien tankera hartu zuen kontzertuak momentu batzuetan; gizon eta emakumeak elkarri heldu eta inguratzen zebiltzala.

Amiera beroa

Kontzertuak aurrera egin ahala, taldeak konfiantzan irabazi zuen



On taldea da Itsaso Gutierrezen proiektu berria. | IMANOL SORIANO

Iñaki Perurenak 'Harri eta herri' izeneko berbaldia egingo du eguaztenean Bergaran

M.B. | ARRASATE

Eguaztenean, hilaren 13an, *Harri eta Herri* izeneko hitzaldia egingo du Iñaki Perurenak Bergarako Irizar jauregian, 19:00etan. Jardun euskara elkarteak antolatutako hitzaldia da eta sarrera dohain izango da. Iñaki Perurenak berbaldi horretan harriak eman dion bizia edo harriarekin bizitzeko zentzua azalduko du;

harri-jasotzaileak berak eta euskaldunok orokorrean harriarekin izandako harreman berezia azalduko du, bideo baten laguntzaz.

Euskaldunok harritik kirola nola egin duten kontatuko du; bestelako harriez ere egingo du berba, haitzuloez eta trikuharriez, esaterako. Eta baita euskaldunen burujabetza babesteko gazteluez ere.

Emakumeen ahotsa ozen On eta Kokein taldeen emanaldian

Martxoaren 8a ospatzeko emakumeek abestutako rock doinuak izan ziren Kurtzebarri eskolako patioan

ANDER MONEDERO | ARETXABALETA

60. hamarkadan hasi ziren lehenengo emakumeak rockaren munduan euren burua ezagutzera ematen. Janis Joplin eta Suzy Quattro bezalako abeslariak, edo Shanqri-las taldeak gizonezkoena

zen munduan bidea zabaldu zuten. Ondoren, The Runnaways, Girlschool edo L7 bezalako taldeak etorri ziren... eta talde horien guztien espiritua jarraituz, Emakumearen Nazioarteko eguna ospatzeko, Euskal Herriko bi

proposamen izan genituen Aretxabaletan: On eta Kokein. Bi taldeak gizon eta emakumez osatuta daude eta ikuspuntu hori euren abestietan igar daiteke.

Oholtza gainera igotzen lehenengo taldea On izan zen. Itsaso Gutierrezen (Jauko Barik, Xarma) proposamenak rock, stoner edo hardcorea bezalako estiloak jorratzen ditu eta euren lehenengo diskoa aurkeztu zuten.

Ondoren, rock alternatiboa egiten duen Eibarko Kokein talde beterranoaren txanda izan zen.



Hitzaldiaren kartela. | GOIENA

GURE MUSIKA TALDEAK

EMON



Emon taldea 'Konfeti kolore' diskoaren argazki promozionala. | EMON

"Guretzat erronka handia izan da, ez genuen aurrekoaren jarraipenik egin nahi"

- ▶ Bergarako taldeak 12 abestiz osatutako 'Konfeti kolore' diskoa kaleratu du
- ▶ Taldean aldaketak izan ostean, abesti askoz landuagoak egin dituzte

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Emon taldea 2007an sortu zen, eta 2010ean *Piztu Herrian* lehen lana kaleratu zuen. Disko horri esker Londresen edo Italian jotzeko aukera izan zuten. Oraingoan baina bigarren etapa hasi du *Konfeti Kolore* diskoarekin. Udan herri guztietako festetan bozgorailuetatik hauek entzutea normalena izango litzake, festarako disko borobila egin dute eta.

Emon birsortu egin ahal da?

Bai, aurretik egindakoarekin zerikusi handirik ez duen etapa berri bat hasi dugu. 2011an azken kontzertua eman ondoren, taldearen norabidea aldatzea erabaki genuen, azken urte hauetan musika asko entzun dugu eta elkarri ere asko erakutsi diogu. Hasieratik garbi geneukan disko koloretsua egin nahi genuela eta erritmo ezberdinak sartu nahi genituela. Taldekideen artean ere aldaketak izan dira. Aldake-

ta nagusia ahots nagusian izan da, Oihane Sarasolaren lekua Eneko Longartek hartu du. Bestetik tronpetan Andoni Larraza Oriotarra sartu da. Guretzat bigarren disko hau erronka handia zen, ez genuen lehenengo disko baten jarraipenik egin nahi. Orain sustraiak bota ditugu eta Emon bere soinura hurbildu da.

Nolakoa izan da grabazioa?

Diskoa Mutrikuko AME estudioan grabatu dugu Axular Arizmendiren gidaritzapean 2012 urtean zehar. Lehenbizi 9 abesti grabatu genituen udaberrian, eta udazkenean, beste 3 abesti grabatu genituen. Beraz, hilabete asko eman ditugu estudioan lan gogorra egiten; hala ere, asko gozatu dugu, teknikariaren eta taldearen arteko sintonia oso ona izan delako hasieratik.

Baina diskoa nahi baino berandua go kaleratu da.

Bai, gure ideia *Konfeti Kolore*

2012ko udazkenerako kaleratzea zen, baina kontratu bat zela medio, ezinezkoa izan zen. Hala ere, gerora taldearentzat ona izan dela konturatu gara, beste hiru abesti grabatzeko denbora izan dugu eta.

Produkzioa landu duzuela ikusten da.

Bai, garrantzia handia eman digu eta detaile bakoitza lupaz begiratu dugu, nolabait esateko gure buruarekin zorrotzagoak bihurtu gara, baina hala behar zuen. 12 abesti daude diskoan baina beste batzuen artean aukeraketa egin behar izan dugu. Horrez gain disko honetako kantuek egiterako orduan lan egiteko era aldatu dugu. Lokalean ordenagailu bat sartu dugu eta laguntza handia izan da.

Beraz ordu asko daude emaitzan.

Kontuan hartu behar da, gu honetatik ez garela bizi eta gure denbora libretik atera behar izan

ZERTZELADA



KONFETI KOLORE

Estiloa: Fusioa, ska, reggae.

Egilea: Emon (Bergara, 2013).

Argitaletxea: Baga-Biga.

Iraupena: 40 minutu.

Garaiko mestizajea zabaltzen

Osintxun eta Bergaran sustraiak dituen talde honek gero eta kolore —musika estilo— gehiago batzen ditu bere koktelera handian. Hastapenetako trikia hor dago oraindik, tronpetak eta tronboiak jantzitako ska-rockak ere bai, baina lan honetan rumbak, cumbiak, itsaso bestaldeko doinu beroek eta baita hip-hop eta raggamuffiak ere bere lekua aldarrikatu dute. Taldeak gaztetasuna, umorea eta jarrera positiboa barra-barra transmititzen du eta euskarazko mezuei gaztelera batu diete mestizajea areagotzeko. Bitxikeria moduan, bada trikiaren hauspoa elektronikara hurbiltzeko pieza bat, Kukutza eta Gaztetxeen aldeko pieza biderkatzailea eta txosnei omenaldia egiteko kantu bat ere.

IKER BARANDIARAN

dugu denbora. Lanetik irten eta ordu txikiak arte lokalean sartuta, asteburuak furgonetan... baina proiektuan erabat sinisten dugu.

Zeintzuk dira aurreko diskoarekin ezberdintasunak? Zeintzuk dira kantuak egiteko orduan erreferente edo eragin?

Abesti batzuk kutsu latinoagoa daukate. Runba kutsuko abestiak ere badaude, reggae lasai bat... Emon erritmo anitzetan murgildu da abestiz abesti. Letrak egiterako orduan bertsolarien laguntza izan dugu. Iratxe Ibarra, Maialen Arzallus, Jokin Uranga, Iñaki Gurrutxaga eta Itsaso Paiak parte hartu dute. Kukutzaren gaia lantzen duen abestian, guretzat erreferente diren La Pegatina taldeko Adria eta Rubenek parte hartu dute. Beste bi kolaboratzaile ere izan ditugu, Kike (gitarra) eta Oier Ponce (pianoa). Eraginak hainbat taldetan daukagu: Manu Chao, Orishas, Muchachito Bombo Infierno...

Single-ak Euskal Herriko jai guztietan eta irrati askotan entzuteko aukera asko ditu, botoi zuzenarekin eman duzue?

Ez dut uste botoi zuzenik dagoenik, guk lan hau asko mimatu dugu eta jendearen gustuko bada gu kontent. Ez dago erreza kontua, euskal musikak gero eta leku murriztagoa dauka, prentsa idatzian, irradian, telebistan... Euskal Herriko zenbait lekutan oraindik duela 20 urteko musika bakarrik entzuten da!

Disko hau Baga Biga-rekin kaleratu duzue, saltoa emateko momentua dela uste duzue?

Hainbat aukera aztertu ondoren, Baga-Bigaren proposamena interesgarria iruditu zitzaigun. Esperientzia handiko jendea da eta hasieratik guregatik egin zuten apustu. Lan egiteko beste modu bat ezagutzen gabiltza, modu profesionalago bat. Lehenengo diskoan agindu zigutenaren %10a ere ez zuten bete, diskoen *Royalti*-ak ez ditugu jaso... Baga-Bigak diskoa kaleratzeaz gain gure *management*-aren ardura ere izango du. Lana asko errazten digu diskoetxe bat atzetik izateak, disko bat ateratzeak lan asko baitauka: promozioa, zuzenekoan antolaketa, prentsa...

Facebooken nerabeekin arduratuta, "aspergarri" izatetik ihes egin guran

Inbertsoreendako urteko txostenean gazteenak erakartzeko beharra nabarmendu du Zuckerbergekek

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Mark Zuckerbergekek dio jada nera-beentzako Facebook ez dela interresgarria. Halaxe jakinarazi die inbertsoreei urteko txostenean. Hain zuzen, gazteek Facebooken antzekoak edo haren ordeko izan daitezkeen zerbitzuetara jotzen dutela dio eta horrek "negozioari epe ertainera kalte egin" diezaikeela. Negozio aukera berrien bila jo behar dute, hortaz. Argazki eta bideo laburretan oinarritutako zuzeneko mezularitza aplikazioak dira, joerek agintzen dutenez, nerabeen artean arrakasta duten sareak.


Snapchat da Estatu Batuetako nerabeen artean gaur egun horren bogan dauden zerbitzu horietako bat. Argazkietan oinarritutako zuzeneko txat aplikazioa da *Snapchat*, Instagramen antzerakoa, baina, osagarri moduan, txat funtzioa ere baduena. Garai baten Myspace baztertu zen moduan Facebook alde batera utziko duten beldurrez, gazteen artean irudia hobetzea ezinbestekotzat jotzen dute Facebooken. Euren jabetzakoa den Instagramen lukete orain, hortaz, gakoa.

Diseinua, gakoetako bat

Oraindik mundu mailako lehen sare soziala da, milaka milioi konturekin, baina animaliako neurri hori arazo bilaka daiteke, batez ere, kritikoak izan daitezkeen erabiltzaile poltsekin ez badute asmatzen. Adituek luze eta zabal dihardute fenomenoaz aztertzen eta gehienak bat datoz



Snapchat aplikazioaren promozio-irudi bat. | SNAPCHAT.COM



Facebooken diseinu berriaren pantaila-irudia. | GENBETA.COM

nerabeen artean dagoen pertzepzio horretan masifikazioak eragin handia duela. Diseinuari dagokionez, berrikuspina egin berri diote Facebooken. Zuckerbergekek berak aurkeztu zituen aldaketak

egunean bertan eta albisteen *feed*-ari itxura berria eman diote, erabiltzaileek gehien ikusten dituzten edukiak nabarmenduz. Diseinu berri *garbiagoa* barikutik dago ezarria.



WhatsApp aplikazioari buruzko marrazkia. | GLOBALEADGROUP.COM

WhatsApp urtero ordaindu beharko da jada

Mezularitza aplikazio ezagunarengatik, iOSen izan ezik, urtero ordaindu beharko da aurrerantzean

J.B. | ARRASATE

Android sistema eragilea darabiltenek aurrerantzean ordaindu egin beharko dute WhatsApp aplikazioa erabiltzen jarraitu gura badute. Probatarako, mezularitza aplikazioa urtebete doan erabiltzeko aukera izan dute Androideko erabiltzaileek. Urterik urte berri egin da doakotasun hori, aurreko astera arte. Lizentziak urtebete egindakoa, erabiltzen jarraitzeko ordaindu egin beharko dute erabiltzaileek. Aplikazioa, gainera, urtero ordaindu beharko da.

Guztiek ordainduko dute

Androidena izan da orain arte sistema eragile bakarra WhatsAppa doan erabiltzeko lizentzia zuena. iOSeko bertsioak 0,89 euro balio du, esate baterako, eta BlackBerry, Windows Phone eta Symbianen ere ordainpekoa da. Orain arteko doako bertsioek urtebeteko lizentzia daukate, ordea. Android sistema eragilean kontuaren ezarpenetan informazioa jasotzen den atalean ikus daiteke noiz arteko lizentzia duen erabil-

tzaileak. Urtean behin ordaindu beharreko lizentzia da, gainera, iOSen salbu, gainontzeko sistema eragile guztietan. Gauzak horrela, Android, Windows Phone eta BlackBerryren erabiltzaileek urteko kuota ordaindu beharko dute WhatsApp erabiltzeagatik eta iOSen erabiltzaileek (iPhonea, iPada...) aplikazioarengatik behin ordainduta bizi osorako lizentzia izango dute.

Ordainpekoa hasieratik

Ordaindu beharra, baina, ez da izan azkenaldiko erabilera baldintzen aldaketa bat, WhatsApp plataforman guztietan ordainpeko aplikazio gisara aurkeztu baita eta erabilera arauetan bertan lehen unetik zehazten baita doako lizentzia mugatua dela. Plataforman guztietan euro bat baino gutxiago balio du aplikazioaren urtebeteko lizentziak. Appleren erabiltzaileen eta gainontzekoen artean desberdintasun hau egin izana etor daiteke iOSeko erabiltzaileak aplikazio eta jokoengatik ordaintzera ohituago daudelako, adituek diotenez.

Eskumutur lesioak saihesteko, sagua hegaz

Oinarri magnetiko baten gainean flotatzen duen sagu baten prototipoan dabilta lanean. Horrela, eskumuturrean mahai-gaineko saguek eragiten dituzten lesioak ekidin nahi dituzte. Gailu horrek hamar milimetrotako altuera hartzen du, oinarriaren gainean, eta, hain zuzen ere, kilo bateko pisuari eusteko gauza da.



ZOMINUTOS.ES

Tweetdeck-ek agur esan die aplikazioei eta soilik nabigatzaileko bertsioan erabil daiteke Androiden

Mahai-gaineko Adobe AIR aplikazioa kendu du Tweetdeck-ek eta aurrerantzean Android sistema eragilean erabiltzeko modu bakarra nabigatzailearen barruko bertsioarekin bakarrik egongo da. Androiderako alternatibaren artean Hootsui ezaguna eta aukera zabalekoa dago eta bogan daude Carbon ala Twicca moduko aplikazio libreak ere. Alor honetan geroago eta izen handiagoa hasi da hartzen Tweetcaster izeneko aplikazioa, Facebookerako bertsioa ere badakarrena.

Megaupload-en itxieraren ostean 'pirateriak' behera egin duela frogatu dutela diote ikerketa baten

Carnegie Mellon Unibertsitateak Megaupload itxi aurretik eta ostean ekoizpen estudio batek izandako salmentak aztertu ditu 12 herrialde ezberdinetan. Megaupload itxi eta gero salmentek %10,6 egin omen zuten gora, ikerketaren arabera. Bi gertaeren arteko harreman kausala frogatu nahi izan dute ikerketarekin. Erabiltzaileek erosotasuna eta erabiltzeko erraztasuna bilatzen dutela ere nabarmendu dute ikerketan, ordaindu beharrezkoaren eta doakotasunaren auziaren gainetik.

TELE-BEGI

OIHAN
VEGAOspetsuak
uretara!

Ez da gauza berria euren ibilbide artistikoa erabat amaituta duten pertsonaia eta *personajeak* telebistan era guztietako jardura laidogarri, barregarri eta iraingarriak egiten ikustea -akaso, sekula artistak izan ez direlako.

Baina inozokeria guztietan inozoena iruditzen zait *Splash!* saio berria (Antena3), non erabat ahaztuta genituen ustez ospetsuak diren lehiakideak agertzen diren tranpolin batetik igerilekura saltoka. Saioak ez du beste helbururik, jende horren gorputz zigortuak uretara jauzi egiten ikustea, besterik ez.

Hori gutxi balitz, konpetentziako kateak, Telecincok alegia, saio berbera jarri du abian: *¡Mira quién salta!* Ideia eta originaltasun faltaren isla da, ala bi kateak ados jarri dira krisiarengatik erabat kopatuta dagoen gizartea tele-torturaz erabat suntsitzeko? Iraganean izandako oihartzun izpiak berreskuratzeo asmoz doaz ospetsuak bertara: patetikoa. Proposamen bat: jar ditzagun *famosillo* horiek guztiak bata bestearen atzetik, zenbait politikarirekin batera, guztiak bainujantzia jarrita tranpolin altu batean eta egin dezatela jauzi guztiak urik gabeko igerileku huts batera. Hori bai ikusiko nukela nik gustura.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 11



Sortu hizpide

Ibari Redondo Sortuko komunikazio ardura-duna elkarrizketatuko dugu *Magazinea* saioan. | 20:16

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:18 Onein
13:52 Laino arteko plana
14:17 Ekogune
14:42 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Zorion Agurrak
15:18 AsteON
15:58 Bizitegia
16:28 Zorion Agurrak
16:33 Berriak
16:58 Eguraldia
17:01 Ekogune
17:31 Korrika
19:01 Hitzlandia
19:29 Beranduegi.tv
19:49 Zorion Agurrak
19:54 Berriak
20:14 Eguraldia
20:16 Magazinea
20:59 Gurean gaur
21:28 AsteON
21:58 Harmailatik
22:43 Berriak
23:03 Eguraldia
23:06 Magazinea
23:51 Harmailatik
00:19 Eguraldia

MARTITZENA, 12



Albistegia

Eguneko albiste esan-guratsuenak jasoko ditugu *Berriak* saioan, Monika Belastegiren eskutik. | 14:45

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:15 Zorion Agurrak
13:22 Harmailatik
14:07 Ekogune
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:07 Eguraldia
15:10 Harmailatik
15:55 Onein
16:29 Berbetan
17:01 Nere herrie
17:33 Berriak
17:53 Eguraldia
17:56 Esatea libre
19:14 Harmailatik
19:59 Zorion Agurrak
20:02 Berriak
20:22 Eguraldia
20:24 Magazinea
21:09 Gurean gaur
21:39 Klaketa
22:21 Berriak
22:41 Eguraldia
22:46 Magazinea
23:31 Bizitegia
23:59 Berriak
00:27 Berriak
00:32 Eguraldia
00:35 Magazinea

EGUAZTENA, 13



Diabetesa

Oñatin eta Aretxabaletan egingo diren diabetesari buruzko Osasun Ikasgelak hizpide. | 20:21

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:10 Korrika
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Klaketa
15:50 Onein
16:25 Harmailatik
17:10 Berbetan
17:43 Zorion Agurrak
17:48 Berriak
18:08 Eguraldia
18:10 Ikusmira
18:33 Hitzlandia
19:01 Bizitegia
19:31 Beranduegi.tv
19:51 Zorion Agurrak
19:54 Berriak
20:19 Eguraldia
20:21 Magazinea
21:06 Gurean gaur
21:37 Hitzlandia
22:05 Ekogune
22:35 Berriak
22:55 Eguraldia
22:57 Magazinea
23:42 Harmailatik
00:09 Berriak
00:29 Eguraldia

EGUENA, 14



'Planik bai?'

Asteburuan izango diren kultura hitzorduen berri jaso ahal izango duzue egueneko saioan. | 17:41

12:00 Magazinea
12:45 Gurean gaur
13:10 Nere herrie
13:42 Ikusmira
14:06 Onein
14:41 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Berbetan
15:40 AsteON
16:20 Berriak
16:40 Eguraldia
16:43 Onein
17:18 Ikusmira
17:41 Planik bai?
18:01 AsteON
18:41 Ikusmira
18:58 Zorion Agurrak
19:03 Beranduegi.tv
19:28 Berriak
19:48 Eguraldia
19:50 Planik bai?
20:12 Zorion Agurrak
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:30 Laino arteko plana
21:59 Planik bai?
22:19 Berriak
22:39 Eguraldia
22:42 Magazinea
23:27 Klaketa
00:05 Planik bai?
00:25 Berriak
00:45 Eguraldia

EGUBAKOITZA, 15



'AsteOn'

Astean zehar egon diren albiste esanguratsuenak jasoko ditugu, besteak beste, *AsteOn* saioan. | 22:00

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Gurean gaur
13:30 Onein
13:55 Bizitegia
14:25 Ikusmira
14:43 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:05 Eguraldia
15:08 Planik bai?
15:28 Korrika
16:58 Laino arteko plana
17:28 Beranduegi.tv
17:48 Zorion Agurrak
17:53 Berriak
18:13 Eguraldia
18:16 Planik bai?
18:36 Esatea libre
19:46 28.Klip
20:18 Beranduegi.tv
20:42 Zorion Agurrak
20:45 Berriak
21:05 Eguraldia
21:08 Planik bai?
21:30 Gurean gaur
22:00 AsteON
22:30 Berriak
22:50 Eguraldia
22:53 Klaketa
23:35 AsteON

ARRASATE IRRATIA

Baserritarren azokari
buruz hitz egingo dugu
Marga Garmendiarekin

Hileko hirugarren zapatuan egiten da baserritarren azoka, eta, beraz, zapatu honetan egingo da martxokoa. Azoka horri buruz hitz egingo dugu Arrasate Irratiko uhinetan eta xehetasunak emango dizkigu Marga Garmendiak, Enplegu eta Garapen Saileko teknikariak.

Korrika badator, eta
jarraipena egingo diogu
lehenengo egunetik

Eguenean, hilak 14, emango zaio hasiera Korrikari Andoainen. Debagoienara hilaren 20tik 21erako gauean etorriko den arren, lehenengo kilometroetatik informazioa jaso ahal izango duzue Arrasate Irratian. Korrika Kulturalaren ekitaldien berri ere emango dizuegu.

Sei Urte taldearen
kontzerturako sarrerak
zozketatuko ditugu

Kooltur ostegunak egitasmoaren barruan, eguen honetan Berrizko *Sei Urte* taldeak emango du kontzertua Arrasateko Gaztetxean. Bertara joateko sarrerak zozketatuko ditugu irratian, eta, sarrerak lortu nahi badituzue, deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com helbidera. Zorte on!

TELE-ALBISTEAK

Maite Iturbe, EiTB
taldeko zuzendaria,
'Magazinea' saioan

Bihar, martitza, 20:24an elkarrizketatuko dugu eta kargu berriari buruz hitz egingo digu



Maite Iturbe, EiTB taldeko zuzendaria. | ENKO AZKARATE

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Eguenean Gasteizko Legebiltzarran erabateko gehiengo lortuta, Maite Iturbe arrasatearrak hartu du EiTB taldeko zuzendari kargu berria.

Iturbek 30 urte daroatza EiTBn lanean, ia sorreratik, eta orain arte produkzio zuzendaria izan da. Dagoeneko, baina, debagoiendarrak ekin dio kargu berriari.

Goiena telebistan

Goiena telebistako *Magazinea* saiora gonbidatu dugu Iturbe eta bihar, martitza, elkarrizketatuko du EiTB taldeko zuzendaria Txomin Madina aurkezleak.

Kargua nola hartu duen kontatuko digu arrasatearrak, bere lehentasunak zeintzuk diren azalduko digu eta EiTBren gaur egungo egoera ere izango dugu hizpide.

Arrasatearra izanda, Goiena ere gertutik ezagutuko du, eta, EiTBko zuzendari izanda, tokiko komunikabideei zein garrantzi ematen dioten ere kontatuko digu. Hori guztia eta gehiago, martitzenean, 20:24an.

Aramaion atzo jokaturako
Euskadiko Openeko lehen
proba ikusgai gurean

'Harmailatik' kirol saioan eskainiko dizuegu han jasotakoa gaur, astelehena, 21:58an

A.T. | ARRASATE

Mendi bizikletako Euskadiko Opena Aramaion hasi zuten atzo, domeka. Barajuen auzoko parajeetan jokatu zuten txirrindulariendako puntuagarria den lehen lasterketa.

Goiena telebistako kamerak bertan izan ziren eta han jasotako irudiak ikusi ahal izango dituzue gaurko saioan. Elkarriketak ere egin genizkien protagonistei, eta horiek entzuteko aukera izango duzue *Harmailatik* saioan.

Futbolaren eta emakumeen aldeko lasterketen berri ere emango dizuegu.



Lasterketan. | ALEX MENDIKUTE

ZORION AGURRAK




ARETXABALETA
Iker Seijo
Martxoaren 16an, 9 urte.
Zorionak eta oso-oso
ondo pasatu, txapeldun!




ARRASATE
**Maider Olabarria
Iturbe**
Martxoaren 14an, 7 urte!
Zorionak, laztana, eta
urte askotarako. Oso
ongi pasatu eguna.
Muxu potolo handi bat
etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Iban Arroiabe
Martxoaren 14an, 44
urte. Zorionak, aitaxo!
Ondo pasatu zure
egunien eta muxu handi
bat. Amatxo, Galder,
Anartz eta Jon.



ARETXABALETA
**Noa Olivenza
Iturricastillo**
Martxoaren 12an,
urtebete. Zorionak, txiki!
Jada urtebete gure artean.
Zorionak etxeko guztien
partetik, eta bereziki, Esti,
Laura, Eider, Janire, Irati
eta Julenek.



BERGARA
**Julen Arriola
Gallastegi**
Martxoaren 12an, 11
urte. Zorionak gure
txapeldunari! Patxo
handi bat danon partetik
eta ondo pasatu eguna.
Aupa Reala!



ARETXABALETA
**Peru Iturricastillo
Elgoro**
Martxoaren 11n, 4 urte.
Gure etxeko txikitxak
lau urte bete ditxu!
Zorionak eta patxo handi
bat etxeko danon
partetik.



OÑATI
**Olaia Anduaga
Txintxurreta**
Martxoaren 11n, 7 urte.
Zorionak, *pitxurrina!* Ze
handi egin zaren! Zazpi
urte dagoeneko! Oso
ondo pasa dezazula zure
urtebetetze eguna, zure
familiaren partetik.
Muxu potolo bat eta segi
horrela!



OÑATI
Kattin Malbadi Ugarte
Martxoaren 11n, 7 urte.
Zorionak, printzesa!
Azkenian heldu da zure
eguna! Ondo-ondo
pasatu zure lagunekin
eta etxekuekin
ospaketan!




ARETXABALETA
Mikel Oscoz
Martxoaren 10ean, 47 urte. Zorionak, aitaxo!
Ondo-ondo pasatu zure eguna eta bazkari eder batera
gonbidatu. Patxo handi bat Irati, Ekaitz eta amatxoren
partetik.



ARETXABALETA
Unax Gartziaetxabe Errasti
Martxoaren 10ean, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat
familia guztiaren partetik.



ARRASATE
Iraia Sarabia Gamazo
Martxoaren 9an, 6 urte.
Zorionak, printzesa!
Muxu handi-handi-handi
bat aitaxoren eta
amatxoren partetik.



ESKORIATZA
**Aner Orobengoa
Nevado**
Martxoaren 8an, 2 urte.
Zorionak, txiki, amatxo,
aitaxo eta etxeko
guztien partetik.



ARETXABALETA
Elena Garcia
Martxoaren 8an, 30
urte. Zorionak,
guapisima, zure
familiaren, lagunien eta
noski Julenen partetik.
Asko disfrutatzea espero
dugu!



ARRASATE
Nagore Barandiarani
Martxoaren 7an, 5 urte.
Zorionak, printzesa! Espero
dugu ezinhobeto ospatuko
duzula, ez duzu besterik
merezi-eta! Muxu
erraldoi bat maite zaitugun
denon partetik.



ARETXABALETA
Deiane Portalo
Martxoaren 6an, 7 urte.
Zorionak. Orain bezain
neska zoragarria eta alaia
jarraitu izaten. Asko maite
zaitugu denok. Musu
handi bat zuretzat.



BERGARA
Julen Rejano Molina
Martxoaren 5ean, 3 urte. Zorionak, Julen, zure familia
eta zure anaia Landerren partetik. Zorionak, Porrotx,
Malenen partetik eta muxu handi-handi bat, potxolo!



OÑATI
Maritxu Arrue eta M. Iratxe Maiztegi
Martxoaren 5ean, amandriak 90 urte eta bere bilobak 5
Zorionak familixa guztiaren partetik! Urte askotarako,
bikote!



ARAMAIO
Garazi Eriz Urizar
Martxoaren 4an,
urtebetetzea. Zorionak
etxekoen eta Maddiren
partetik!



ARAMAIO
Ekain Eriz
Martxoaren 4an,
urtebetetzea. Zorionak,
artista! Ederto pasatu
egune eta osasunaz
urratu urtie! Patxo
handixek familixako
danon partetik!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu;
bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko
11:00ak arte
jasotako zorion agurra
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Aitor Irizar Galarraga

Bergara. 2,870 kilo. Otsailaren 21a. Gurasoak: Irune eta Jon. Argazkian, Aitor anaia Julenekin.



Carlota Rodriguez Blanco

Antzuola. 2,600 Kilo. Martxoaren 1a. Gurasoak: Maite eta Jose. Argazkian, Carlota aitarekin.



Lur Hernandez Otxoa-Aizpurua

Oñati. 3,620 Kilo. Martxoaren 2a. Gurasoak: Edurne eta Julian. Argazkian, Lur amarekin.



Naiara Garitano Garitano

Antzuola. 3,100 Kilo. Martxoaren 1a. Gurasoak: Amaia eta Igor. Argazkian, Naiara amarekin.



Uxue Dos Santos Larrauri

Durango. 3,610 Kilo. Martxoaren 2a. Gurasoak: Olaia eta Ricky. Argazkian, Uxue aitaren besoetan.



Unai Cepeda Osinaga

Bergara. Martxoaren 5a. Gurasoak: Maddi eta Dioni. Argazkian, Unai aitarekin.



Ane Zabaleta Baltzategi

Arrasate. 3,510 Kilo. Martxoaren 7a. Gurasoak: Amaia eta Ibai. Argazkian, Ane gurasoekin.



Mara Moral Iturbe

Arrasate. 3,700 Kilo. Martxoaren 7a. Gurasoak: Amaia eta Iker. Argazkian, Mara gurasoekin.



Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkaritza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Narrasti mota	Abiatze	Aldresbeskeriak
	* Kirol olinpiar	Ezin alpa daitekeena	8 garroren jabe da
...	Tresna		
...	Uzta		
...	Ergelak		
Funtzio trigonometriko	Putre		
			Germanioa
			Aho-legar
Galdakaoztar			
Baietz			
			Ipar EH-n, inguru
			Bokalik gabeko gas
1	Ilargiaren goraldia		
Grezialako hiriburua	Bokala		
			... egin, goitik ari

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

K	O	S	V	A	T	A
A	R	O	G	L	I	B
I	R	I	K	I	B	A
R	A	D	A	K	A	R
E	G	E	N	S	I	K
K	A	B	O	A	K	G
L	L	A	I	L	B	O
A	A	A	A	A	A	A

A	H	E	A	I	X	B	A	Y
A	N	N	A	P	U	R	N	A
M	A	K	A	L	U	A	A	T
U	A	U	A	A	E	U	V	S
K	E	Y	C	E	O	L	A	E
A	A	O	A	G	A	E	S	R
D	R	O	L	H	O	T	S	E
I	A	H	A	Z	U	S	I	V
G	A	C	I	A	E	A	R	E

7	5	8	3	4	6	9	1	2
9	1	2	5	8	7	3	6	4
4	3	6	2	1	9	7	5	8
5	8	9	7	2	4	6	3	1
1	2	7	6	3	8	5	4	9
6	4	3	9	5	1	8	2	7
2	7	5	1	9	3	4	8	6
8	9	1	4	6	5	2	7	3
3	6	4	8	7	2	1	9	5



Ezetz igarri: Lurzoruak / Zulo erdirik ez dago.

SUDOKUA

	6		8					5
8						2		
		5		9	3	4	8	
6								7
	2					5		
	8	9	7		4	6	3	
	3					7		8
9			5			3		
	5			4	6	9		2

HIZKI SALDA

Topa itzazu Asiako bost mendi

G	A	C	I	A	E	A	R	E
I	A	H	A	Z	U	S	I	V
D	R	O	L	H	O	T	S	E
A	A	O	A	G	A	E	S	R
K	E	Y	C	E	O	L	A	E
U	A	U	A	A	E	U	V	S
M	A	K	A	L	U	A	A	T
A	N	N	A	P	U	R	N	A
A	H	E	A	I	X	B	A	Y

EZETZ IGARRI

Zerk geldiarazten du ilearen erortzea?

Pertsona batek ordubetea zulo bat egiten badu, eta bi pertsonak bi zulo, zenbat denbora beharko du pertsona batek zulo erdi egiteko?

AI, ENE!

Guztiaren aurretik, diseinua

Urteak pasa arren, objektu batzuen diseinuak ez dira batera berritu. Hona hemen komuneko papera eskegitzekorako proposamena. www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Homosexualen ezkontzek ez dute espezieak bizirik irautea bermatzen"

JORGE FERNANDEZ DIAZ | BARNE MINISTROA

Barne ministroak dio matrimonio homosexualen aurka egiteko, argumentu arrazionalak erabili behar direla; adibidez, espeziearen jarraipena. Zer egin orduan ezkontuta egon eta umerik izan nahi ez duten heterosexualekin? Edo ezin dutenekin? www.elpais.com

EGURALDIA



Max. 12°

Min. 5°

Eguraldia txarrera egingo du. Zaparradak botatzeko arriskua asko handituko da. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-03-11

HAMARREKOA

Ramon Agirre Donostiako Alde Zaharrekoa, aktore moduan eskarmentu handia du medio guztietan. *Amour* Oscarraren irabazlea eta *DBH* telesaila dira bere azkenengotako lanak | TXOMIN MADINA

"Banuen 'Amour'-ek Oscarren bat eroango zuen bihozkada"

1. DBH-n umore txarreko zuzendaria zara. Zein izan duzu inspirazio?
Ez dut izan buruan bereziki nire garaiko irakaslerik; atera dudana da nik, eta denok, dugun erretxin hori: ustez mundua kontra duen pertsona.

2. Zu zeu askotan pasatu al zinen zuzendariaren bulegotik?
Ez gehiegitan. Nahiko txintxo nintzen, eta ikasketa kontuak ere nahiko ondo eramaten nituen.

3. "And the Oscar goes to... Amour". Non entzun zenuen hori?
Oraindik ez dut entzun; gala ez nuen ikusi, lo nengoen-eta. Michael Hanekeren hitzak ikusi ditut: labur hitz egin zuen eta ez ninduen aipatu; ez dakit barkatuko diodan! [barreak] Bere estiloan egon zen, neurridun. Banuen *Amour*-ek Oscarren bat eroango zuen bihozkada.

4. Hanekek pelikula baterako deituz gero, bada dudarako lekurik?
Ezezkoa esatea zaila izango litzaiteke, ez bada arrisku handiko eszena bat egin behar dudalako; edo erakutsi behar ez direnak erakutsiko ditudalako. Nirekin oso jatorra izan zen, ez genuen arazorik izan; oso ondo konpondu ginen.

5. Askok kostatu zitzaizun *Etxebeste* goitizena kentzea?
Zorionez horren aurretik, gero eta batera beste pertsonaia batzuk ere egin ditut. *Aupa Etxebeste!*-k sona handia izan arren, izen-aldatzeetan telebistak indar handiagoa du; baina lan bezala, badu bere lekutxo.



AGM

MAKILA MAGIKOIA BANEUKA...

"Denboran atzera egingo nuke"

"Horrelakoetan zure alde eskuzabala erakustea da ohikoena; baina nik, behingoz egoista jarrita, denboran atzera egingo nuke. 18 edo 20 urte nituen garaira itzuli eta astebete pasako nuke han. Edo 68ko Parisen: manifestazioetan-eta poliziekin borrokatu, neska frantses polit bat ezagutu eta astebeteko erromantzea izan..."

6. Nola ikusten da mundua agertoki batetik?

Amodio istorio labur bat da, ordu-bete edo ordu eta erdi inguru irauten duen sedukzio istorioa. Zure lana jendea erakarri eta seduzitzea da. Intentsua izaten da.

7. Aktoreen aldarrikapenek hautsak harrotu dituzte aspaldion. Zu zeu ere ez zara isilik egotekoa.

Jende ezagunak izanda indar mediatikoa dugu eta pena da hori ez aprobetxatzea. Ni prest egoten naiz defendatu behar direla uste dudun gauzei nire indar txiki eta apurra eskaintzeko.

8. Madril aldean lan dezente egin duzu. Harako atea, beti zabalik?

Bai, baina nahiago hemen. Gero eta eskaintza hobekia egin behar dizkirate hara joateko; nagikeria apur bat ere ematen dit. Lanak mereziz gero, atea itxita ez dut; ez Madrilerakoa, ez beste edonorakoa.

9. Aktore izan aurretik, arkitektura ikasten hasi zinen...

Gustatu arren, bukatzeko gutxiren faltan utzi nuen antzerkiagatik. Baina bada nik diseinatutakorik: gure etxea zenaren eskaileraren baranda. Hori dut lan arkitektoniko guztia eta zutik dago oraindik!

10. Garai baten Donostia Parisengatik aldatu zenuen.

Ez nekien oso ondo zertara nindoan eta han pasatako urtean lana egin nuen, antzerkia, komikiak, unibertsitatea... Urte mugarrria izan zen; buruak buelta eman zidan.

BIHARAMUNA

ITXARO ARTOLA



Merezi dugulako eta digulako

Mankomunitateak 1984an jarri zituen beira biltzeko lehen edukiontzia. Gero iritsi ziren paper-kartoi eta pilak jasotzekoak (1992) eta ontzi arinentzakoak (1999). 2000rako Debagoien osoan genuen hondakinak birziklartzeko aukera. Urteak izan ditugu ohiturak aldatzeko. Denok ez dugu egin, ordea. Debagoiendar bakoitzak 280 kg hondakin botatzen du urtero zabor-poltsatan nahastuta.

Eta ez da izango urte haue-tan guztietan bilketa selektiboari buruzko informazio eta kontzientziario kanpaina gutxi egin delako! Bosgarren edukiontzia ez luke ezer konponduko, honenbestez. Badagoe-lako herritar multzo garrantzitsu bat bere erosotasuna lehenesten duena interes orokorraren ginetik. Eta ez dago arrazoirik pentsatzeko jarreraz aldatuko duenik aurrerantzean, bilketa sistema zorrotz batek behartuta ez bada. Zaborraren auziari kontsumo arduratsurantz eta hondakin kopuru minimoa sortzera eramango gaituen irtenbide bat ematea da gakoa. Arazoaren muinean gure bizimodu kontsumista eta suntsitzailea dagoelako. Ziur nago atez atekoak bide zuzen horretan jarriko gaituela denok, kontziente edo inkontzienteki.



R.P.S. Nº 149/10 I.L.G.

ESPEZIALISTAK BEGIEN OSASUNEAN

Ba al zenekien ikusmenaren azterketa lagungarria izango zaizula,

glaukoma, begi-lausoak eta begietako nekea diagnostikatzeko?

Multiópticas-en begien azterketa egingo dizugu, konpromezurik gabe.



J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan